

**Gipuzkoako
Pobrezari eta
Gizarte
Bazterketari
buruzko**

3

.Inkesta

Aurkibidea

LABURPEN EXEKUTIBOA	5
1. HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA	10
1.1. Proiektuaren aurrekariak eta helburuak.....	11
1.2. Txostenaren egitura	11
1.3. Operazioaren oinarritzko ezaugarriak.....	12
1.3.1. Laginaren diseinua	12
1.3.2. Landa-lana	13
1.3.2. Galdetegia.....	13
1.3.4. Eraitzen zehazpena	14
2. GIPUZKOAKO POBREZIA, DESBERDINTASUN ETA GIZARTE BAZTERKETA EGOERAK	15
2.1. Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte-bazterketa.....	16
2.1.1. Adierazle nagusiak	16
2.1.2. Arrisku-taldeak	18
2.1.3. Beste lurraldeen arabera konparazioa	21
2.2. Gipuzkoako pobrezia-, desberdintasun- eta bazterkeria-egoeren bilakaera	22
2.2.1. Pobrezia- eta desberdintasun-egoeren bilakaera	22
2.2.2. Bazterkeria-egoeren bilakaera	25
3. GIPUZKOAKO POBREZIA, GIZARTE BAZTERKETA ETA BIZI BALDINTZAK	28
3.1. Hezkuntza-maila, prestakuntza eta hizkuntza-ezagutza	29
3.1.1. Hezkuntza-maila	29
3.1.2. Uneko ikasketak eta prestakuntza-jardueretako parte-hartzea	31
3.1.3. Ama-hizkuntza eta hizkuntza-ezagutza	33
3.2. Osasun-egoera, mendekotasun-egoerak eta ariketa fisikoa.....	36
3.2.1. Osasun-egoera	36
3.2.2. Mendekotasuna eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza	37
3.2.3. Jarduera eta ariketa fisikoa	40
3.3. Laneko jarduera eta baldintzak	42
3.3.1. Lanbidea eta lan-intentsitatea.....	42
3.3.2. Soldata-maila.....	43
3.3.3. Bestelako laneko baldintzak	46
3.3.4. Langabezia.....	46
3.4. Gastua eta zorpetzea	48
3.4.1. Etxebizitzetako gastua eta hilabete bukaerara iristeko zailtasunak	48
3.4.2. Etxebizitza-gastuak.....	50
3.4.3. Aurrezki-gaitasuna eta kredituen eskaerak	52
3.5. Zailtasun ekonomikoen eragina bizi-baldintzetan eta pobrezia-eraginean	54
3.5.1. Zailtasun ekonomikoen eragina etxebizitzetako bizi-baldintzetan	54
3.5.2. Pobrezia-eraginean subjektiboa.....	56

3.6.	Etxebizitzaren baliagarritasuna, ekipamendu-maila eta bizigarritasun-baldintzak	57
3.6.1.	Etxebizitzaren eskuragarritasuna	57
3.6.2.	Etxebizitzaren eta ingurunearen baldintzak	58
3.6.3.	Etxebizitzaren ekipamendu-maila	59
3.6.4.	Metaketa	60
3.7.	Harreman sozialak, hiri- eta politika-partaidetza eta boluntarioria	60
3.7.1.	Gizarte-harremanak	60
3.7.2.	Hiritar- eta politika-partaidetza	63
3.7.3.	Parte-hartze soziala eta boluntarioria.....	65
3.8.	Pobreziari aurre egiteko politiken erabilera, eskaria eta eraginkortasuna	67
3.8.1.	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Lanbideren erabilera	67
3.8.2.	Laguntza eta prestazio ekonomikoen eskaria.....	68
3.8.3.	DBE etxebizitzako oinarrizko premietara egokitzea	69
3.8.4.	Gizarte-transferentzien sistema eta oinarrizko errentaren sistemaren eragina	69

Laburpen Exekutiboa

Pobrezia, gizarte-bazterketa eta desberdintasuna Gipuzkoan

Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren (GPGBI) emaitzak aurkezten dira txosten honetan, 2017 urteko bukaera eta 2018ko hasiera bitartean egindakoa. Operazio estatistiko honen hirugarren bolada da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak sustatua, eta 2012 eta 2014 urtekoei jarraipena ematen diena. Inkesta honetan, Gipuzkoako pobrezia-, gabezia-, desberdintasun- eta bazterkeria-egoeren hedapena – arloko ohiko adierazleak erabilita – aztertzeaz gain, biztanleria gipuzkoarraren bizi-baldintzak aintzat hartzen dira; eta egoera horiei aurre egin behar dien biztanleriaren ongizateari pobrezia- eta gizarte-bazterketaren eragina berariaz aztertzen da.

Gipuzkoako pobrezia-, gabezia-, bazterkeria- eta desberdintasun-egoeren hedakuntzari buruzko oinarritzko datuak ondoko hauek dira:

- 2018 urtean, pobrezia erlatiboa edota diru-sarrera apalak pairatzeko arrisku-egoeran dago biztanleriaren %16,4, kaltetutako 117.000 pertsona baino gehiago. Pobrezia larriko egoerak bizi ditu %5,3k –ia ia 38.000 pertsona dira–. Pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera apalen atalasea 920 eurokoa da hilero pertsona bakoitzeko, eta 613 eurokoa pobrezia larria pairatzen dutenen kasuan.
- Biztanleriaren %6,9 gabezia materialeko egoerek kaltetuta bizi da eta 60 urtez azpiko biztanleriaren %5,7 lan-intentsitate baxuko etxebizitzetan bizi da. Pobrezia erlatiboaren atalasearen azpiko mailan bizi da lana duen biztanleriaren %10,0, hau da, langile pobreen kolektibokoa da.
- Bazterkeriaren eta gizarteratzearen ikuspegitik, 2018 urtean, biztanleriaren %4,7k bazterkeria larriko egoerak biziko lituzke eta %9,1k bazterkeria moderatua. Bestelako biztanleen artetik, gizarteratze-maila prekariora biziko luke %29,3k eta ia %57 erabateko gizarteratze-egoeran aurkituko litzateke.
- Errenta- desberdintasunei dagokienez, Gini indizea 25,3koa da. S80/S20 adierazleak 3,8ko zifra eskaintzen du, hau da, hoberen bizi den biztanleriaren %20k hirutan biderkatzen du kaltetuen dagoen biztanleriaren %20.

Arrisku- eta babes-faktore nagusiak

Logikoki, pobrezia- eta bazterkeria-arrisku egoerek ez diete modu berean eragiten biztanleriaren talde desberdinei.

- Atzeritarren eta nazionalitate espainiarra duten pertsonen arteko aldeak nabarmentzen dira, baina ez soilik pobrezia- eta bazterkeria-egoerei dagokienean, baita txosten honetan aztergai hartutako beste gaien inguruan ere, dela kirol-jarduera, dela partaidetza politikoa eta soziala, dela etxebizitzako pilaketa edo lan-jarduera. Aztertutako adierazlea zeinahi ere den, atzerrian jaiotako edo nazionalitate atzeritarra duen biztanleriaren egoera bertakoaren aldean okerragoa da, eta horrek Lurraldeko gizarteratze-ereduan ageri diren ahuleziak azaleratzen ditu.
- Halaber, pobrezia-, gabezia- eta bazterkeria-tasak altuagoak izaten dira etxebizitzetako buru emakumea denean, haur-biztanlerian eta 45 urtez azpiko biztanleak etxebizitzetako erreferente direnean. Zentzu honetan, pobrezia-aren gaztetze-prozesu bat gertatzen ari da –bai Gipuzkoan bai EAE osoan, baita gure inguruko herrialdeetan ere–, eta haren erakusgarri gertatzen da haur-pobrezia, desberdintasunaren belaunaldien arteko ugalketa errazten duena eta egitura demografikoari kalte nabarmenak dakartzkionak.
- Pobrezia- eta bazterkeria-tasek bereziki apalak izaten jarraitzen dute etxebizitzan lana duten pertsonak daudenean, zeinak azaltzen baitu enplegu ordainduaren gaitasunak pobrezia- eta bazterkeriari aurre egiteko babes-mekanismo gisara duen garrantzia. Babes-gaitasun horrek, aitzitik, ez du sendotasun nahikorik: etxebizitzako pertsona guztiek lana egiten duten etxeetako pertsonetatik soilik %2,8k pobrezia larria pairatu arren, pobrezia larria bizi duten etxebizitzetatik %35ean pertsona heldu guztiek lan egiten dute. Pobrezia-arriskua beheratzen du enpleguak, baina, hala ere, pobre edo bazterkerian bizi den biztanleriaren zati garrantzitsu bat laneko merkatuan txertatua dago.

Adin handia izateak edo/eta kotizaziopeko pentsioek, gaur egun, indar handiko babes-faktore bilakatzen dira Gipuzkoan pobreziari aurre egiteko. Era honetan, adin aktiboko pertsonak bizi ez diren etxebizitzetako pobrezia larria %2,7koa da. Biztanleriaren %18,8 ordezkatu arren, pobrezia larriko egoeran dauden pertsonen %9,7 dira.

Bilakaera eta beste lurraldeen arabeko konparazioa

2012 eta 2018 urteen bitartean aztertutako egoerei buruzko bilakaeraren azterketak Gipuzkoako Lurralde Historikoa krisialdi ekonomikotik nola atera den balioztatzea ahalbidetzen du, baita suspertze ekonomikoak biztanleriaren bizi-baldintzen hobekuntzan nola lagundu duen ere.

- Bilakaera-ikuspegitik, balorazio orokorra anbiguena izan da: alde batetik, egoera ekonomikoaren eta laneko merkatuaren hobekuntzaren ondorioz, aztertutako adierazle askotan hobekuntza nabarmenak gertatu dira. Bestetik, hala ere, ezin da esan pobrezia eta gizarte-bazterketa neurrietan hobekuntza garbirik gertatu denik, eta horrek azaltzen duenez, suspertze ekonomikoak ez du bete-betean eraginik izan zailtasun gehien bizi duen biztanleriako sektorean.
- Hobekuntza ezagututako adierazleak asko izan dira. Adibide batzuk jartzearen, errenta mediana balio-kidea hazi egin da, Gini indizea nabarmen murriztu da (desberdintasuna neurtzeko gehien erabiltzen dena), soldaten desberdintasun-maila apaldu egin da, enpleguaren bazterkeria murriztu egin da, ikasi edo lanik egiten ez duten gazteen tasa murriztu egin da eta hilabete bukaerara erraz ailegatzen diren etxebizitzetako ehunekoak gora egin du. Edonolako sostengu edo prestazio publikorik jaso gabeko mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ehunekoa ere murriztu egin da, eta etxebizitzan eta ingurunean arazorik ez duen biztanleriaren ehunekoa hazi egin da.

Hala ere, pobrezia eta gizarte-bazterketa neurtzen duten adierazleek oso bariazio apalak jaso dituzte, edota okertu egin dira krisialdiaren une gorenetik. Pobrezia erlatiboaren edo diru-sarreraren tasek ia bariatorik ez ezagutu arren –beste arrazoiren batzuen artean pobrezia-atalasea igotzeagatik–, pobrezia larriaren tasa %4,3 izatetik %5,3 izatera pasa da. Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren (PGEI) EAE osorako datuek eta Espainiako eta EB-28ko EU-SILC inkestaren datuek pobrezia larriko tasaren hazkundeak nabarmentzen dituzte aldi horretarako, beraz, Gipuzkoako datuek zabalagoa den joera bat azalduko lukete. Halaber, gabezia material larria neurtzen duen adierazleak gora egin du urte hauetan, baita pobrezia-egoeran dauden pertsona landunen ehunekoak ere (langile pobreak).

- GPGBIK azalduko biztanleriaren banaketarako gizarteratze/bazterkeria eskalak azaltzen duenez, ez omen da 2014 eta 2018 urteen bitartean aldaketarik gertatu arlo honetako biztanleriaren banaketan, eta bazterkeria-mailaren hazkuntzarik garrantzitsuen (bazterketa moderatua eta larria elkar batuta) 2012 eta 2014 urteen bitartean gertatu zen, %11,8tik %13,8ra hazitako garai. Hazkuntza horiek ez dira lehengo egoera bueltatu 2014 eta 2018 urteen bitartean. Edonola ere, hein bateko aldaketa gertatu da, oso apala izan arren, pobrezia larriko egoeretatik egoera moderatuago batera.

Beste lurraldeen arabeko konparazioak globalki onuragarria den egoera bat, dela Estatu osoari dagokionean, dela Europar Batasuneko eskualde gehieneko dagokionean –bereziki desberdintasun-mailaren kasuan–.

- Pobrezia neurtzen duten adierazleei dagokionean, Gipuzkoako maila EAE osorako eta EB-28rako bildutakoaren maila baliokidean kokatzen da, baina konparazioan Estatu osorako erregistratutakoa baino hobe.
- Gabezia material larrien prebalentzia beste lurraldeen aldean zerbait altuagoa da aldi honetan (aurreko bi urtetan behatutakoa ez bezala), baina AROPE tasan bildutako Gipuzkoako prebalentzia apalagoa da (%19,2) EAEkoaren (%20,6) eta EB-28aren aldean (%22,4); batez ere, Espainiaren aldean (%26,6).
- Biztanleriaren banaketa gizarteratze- eta bazterketa-mailaren arabera eginez gero, 2018 urterako EINSFOESSAko datuen arabera, Estatu osoko erabateko gizarteratzea biztanleriaren ia erdiak (%48,4) bizi duen bitartean, askoz altuagoa da bai Gipuzkoan bai EAE osoan, izan ere, biztanleriaren %57ra iristen baita. Gizarte-bazterketari dagokionean, aldeak ez dira horrenbeste hedakuntzaren arlokoak (%13,8 Gipuzkoan, %15,2 EAEn eta %18,4 Espainian), baina bai haren intentsitate-mailan, izan ere, Gipuzkoako bazterkeria larriaren prebalentzia (%4,7) EAEkoa eta Espainiako (%8,8) baino askoz ere apalagoa baita.

Bizi-baldintzak, pobrezia, bazterkeria eta gizarte-desberdintasuna Gipuzkoan

Pobreziaren, gabeziaren edo gizarte-bazterketaren adierazle nagusiak aztertzeaz gain, GPGBIk gipuzkoar herritarren egoera arlo desberdinetan aztergai hartzen du (hezkuntza, enplegua, etxebizitza, gizarte-harremanak, partaidetza soziala eta politikoa, etab.), eta horri buruz ageri diren aldeak identifikatu. Gainera, pobrezia monetarioak kaltetutako pertsonen edo bazterkeria-prozesuak bizi dituztenen kasuetan, beste biztanleen aldean, hein handiagoan pairatzen dituzte kaltegarri edota larriak izan daitezkeen egoerak, eta zein neurritan gertatzen den aztergai hartzen da, eguneroko bizimoduari loturiko alderdi horiei lotuta.

- Aurretik aipatu bezala, konparazioan hartuta, Euskadiko tasak apalak dira eta, gainera, 2014 urtetik beharatu egin dira. Hala ere, inkestako datuek nabarmentzen dutenez, zenbait gabezia-egoera hertsiki lotzen dira etxebizitzetako errenta-mailarekin. Horrela, diru-sarreraren eskalan aurrera egin ahala, sistematikoki hobetzen da, adibidez: osasunaren autopertzepzioa, kirol-jarduera, hezkuntza, hizkuntzen eza gutza, lan-jarduera, hiritar- eta politika-partaidetza edo boluntario-jardueren maila; eta biztanleriaren %20 pobreenaren eta %20 aberatsenaren arteko oso alde nabarmenak agertzen dira batzuetan.
- Sarrera-desberdintasunek biztanleen bizi-baldintzetan duten eragina oso nabarmena da, adibidez, hezkuntza-mailan: Diru-sarreraren kintil baxueko biztanleetatik %8,3k unibertsi-titulazioa du; eta errentarik gehieneko kintileko biztanleetatik %53,1k. Alderdi horretaz gain, hezkuntza-mailari eta prestakuntza-jardueri dagokienez, biztanleria gipuzkoarraren %10,6k prestakuntza-jarduerak betetzen dituela nabarmen daiteke; eta 15 eta 29 urte bitarteko gazteetatik %9,6k ez du lanik egiten edo ikasten –2012ko %13,6aren aldean–.
- Hizkuntzen ezagutzak ere zerikusia du familien diru-sarreraren eskalaren kokapenean eta/edo erabateko gizarteratzetik bazterkeria larrienera bitarteko eskalan. Ikuspegi horretatik hartuta, euskara-ezagutzarik ez duen biztanleriaren pobrezia-tasak euskara hiztuen bikoizten duela nabarmendu behar da.
- Biztanleriaren osasun-egoerari dagokionean, gipuzkoarren %84,6k osasun-egoera oso ona (%22,1) edo ona (%62,5) duela adierazten du. Hamarretik batek, berriz, erdipurdiko osasun-egoera duela adierazten du; eta %4,5ak txarra eta %1k oso txarra dela. Bilakaera-ikuspegi bat kontuan hartuz gero, ez da ia alaketarik eman 2014 urtetik.
- Etxebizitza partikularretan bizi den %4,8k –2014 urtekoaren %4,2aren aldean– autonomia funtzionalen mugak ditu, 35.000 pertsona dira; baita instituzio kolektiboetan bizi diren autonomia mugatua duten pertsonak ere, adibidez, egoitzetan edo ospitaleetan daudenak. 80 urtez gorako pertsonen artean, horrelako egoeren prebalentzia %32,6ra iristen da, eta 80 urtetik gorako pertsonak dira mendekotasun-egoeran dauden guztietatik %46,5.
- Autonomia-mugak dituzten hamar lagunetik bederatzik laguntza jasotzeko edo zaintzarako premia dute eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak betetzeko. Kolektibo horren %4k –1.200 pertsona inguruk– ez du inolako laguntzarik jasotzen. Laguntza jasotzen dutenen artean, zaintzaile informalek eta/edo partikulari kontratatutako pertsonak artatzen dituzte, hau da, ez dute prestazio ekonomikorik jasotzen eta ez dira EELZ, eguneko zentro eta telelaguntzaren erabiltzaile. Horrekin batera, haietatik %8,5ak izaera eskusiboki publikoko zerbitzuen edo prestazioen jasotzaile izango lirateke, baina gehienek, hau da, beste %59,9k izaera mistoko arta jasoko luke: zaintza informala eta/edo partikulari kontratatua konbinatuz izaera publikoko zerbitzuekin eta prestazio ekonomikoekin.
- Izaera pribatuko laguntza bakarrik jasotzen duten pertsonen portzentajea 2012tik nabarmen beharatu izan arren, gizarte-zerbitzu publikoen guztizko eskaintzari buruzko inkestako datuek azaltzen dutenez –bereziki lehen-arretako eta/edo izaera prebentiboko gizarte-zerbitzuak–, 10.000 bat plaza gehitu beharko lirateke laguntzarik jasotzen ez duten pertsonak edo bakarrik izaera pribatukoak jasotzen dituztenak artatu ahal izateko.
- Lan-merkatuaren funtzionamenduari dagokionean eta inkestako datuen arabera, lan-merkatuko landunetatik %12,9k 25 orduz azpiko lanaldi partziala betetzen du. Proporzio hori bereziki altua da emakumeen artean eta adingabeko diren langileen artean, eta atzerritar jatorriko biztanleen artean ere. Enplegu-modalitate horrek erlazio hertsia du pobrezia- eta bazterkeria-egoerekin: pobre diren pertsonen lanaldi partzialeko enplegu-tasa %33,3koa da, eta %19,8koa bazterkeria-egoeran dauden biztanleetan.
- Hileko batez besteko soldata garbia 1.648 eurokoa izan da 2018an, %6ko hazkuntza izan duena 2014 urtetik. Datuen arabera, gainera, soldaten desberdintasun-maila murriztu egin da 2014 urtetik. 2014 eta 2018 urteen bitartean, gehien hazitako soldata-tarteak, ordenan jarritan, hauek izan dira: 1 kintilari dagozkionak (zeinak soldata apalena jasotzen duen biztanleriaren %20 biltzen du), 2 eta 3. kintilekoak, eta hein apalago batean azken kintilekoak, %1,4ko hazkuntza izan dutenak. Horren ondorioz, soldata altuenak dituzten langileen %20aren eta soldata apalena duten langileen %20aren arteko batez besteko soldata-ratioa (Q5/Q1) 2014an 4,2 izatetik 3,2 izatera pasa da 2018 urtean. Gainera, erdiko (3. kintila) eta lehen kintilaren arteko tarte (Q3/Q1) murriztu egingo litzateke; 2014an 2,3 izatetik 1,9 izatera.

- Etxebizitza gipuzkoarretatik %42,6k hilero hipoteka (%24,9) edo alokairua (%17,7) ordaintzen du. Ez luke izango horrelako gasturik etxebizitza gipuzkoarretatik %57,4k. Banaketa hori ez da ia aldatu inkestaren aurretiko boladetatik, baina kontzeptu bakoitzaren arabera bilakaera desberdindu antzematen da. 2014 eta 2018 urteen bitartean, hipoteka-kontzeptuaren arabera batez besteko zenbatekoa murriztu egin da (hileko 537 eurotik, 528 eurora), baina alokairu-kontzeptuan ordaindutako batez bestekoa handitu egin da, hileko 492 euro izatetik, 532 euro izateraino.
- Bestalde, hipoteka- edo alokairu-ordainketen eta etxebizitzako diru-sarrera arrunten arteko erlazioa aintzat hartuz gero, hipoteka edo alokairua ordaintzen duten gipuzkoar etxebizitzetatik %44,9k diru-sarreraren %20 baino gutxiago bideratzen dute ordainketa horietara, %43,6k diru-sarreraren %20 eta %40 bitartekoa, eta beste %11,5ak etxebizitzako diru-sarreraren %40 baino gehiago bideratzen du. Datuak bilakaera-ikuspegi batetik aztertuz gero, etxebizitzetako diru-sarreraren maila hobetu egin dela beha daiteke eta gastu horri aurre egiteko kaudimena hobetzeko eragina izan duela.
- Gipuzkoako etxebizitzetatik %28,4k ezin du joan astebetetzetik kanpoko oportetara, eta etxetatik %26,4k aisialdiko gastuak murriztu beharra izan du. Halaber, %19,7k etxebizitzako gastu energetikoak murriztu beharra izan omen du (elektrizitate-, ur-, gas-, berogailu-ordainagiriak, etab.) eta %16,2k gauza bera egin du oinarritzko arropa eta oinetakoen oinarritzko gastuekin. Azkenik, etxebizitza gipuzkoarren %6,7k, 47.600 bat pertsonak, azken urtean oinarritzko elikadura-gastua murriztu beharra izan omen du. Oinarritzko gabezia mota horrek elikadurarekin zerikusiko bestelako egoerekin harremana izango lukete, berekin larritasun-maila berezia dutenak. Zentzu horretan, GPGBIko emaitzek erakusten dutenez, etxebizitza gipuzkoarretatik %3,2k ezin du egin janari-dieta egokirik arazo ekonomiko-engatik, eta %2,1k ezin du jan haragirik, oilasko edo arrainik gutxienez bi egunetik behin.
- Adierazle horien arabera egoera ona da, dela bilakaeraren ikuspegitik, dela konparatuta. FOES-AREN VIII. Txostenak Estatu osorako eskainitako datuen arabera, Espainiako biztanleen jantzi eta oinetakoen gastua %36,0 murriztu da (Gipuzkoako %16,2ren aldean), eta, hurrenez hurren, %36,9k eta %22,2k aisialdirako eta etxebizitzako gastu finkoak murriztu ditu (elektrizitatea, ura eta berokuntza); Gipuzkoako %26,4ko eta %19,7ko portzentajeen aldean. Bilakaera-ikuspegi bat aintzat hartuz gero, aisialdiko gastuak murriztu behar izandako etxebizitzaren proportzioa apaldu dela nabarmendu behar da (%38,1etik %26,4ra pasa dena 2014 eta 2018 urteen bitartean), baita etxebizitzako gastu energetikoak murriztu beharrean izandako etxebizitzaren proportzioa ere (2014an %23,2 izatetik, 2018an %19,7 izatera pasa dena).
- Orokorrean, inkestan partaide izandako etxebizitzetako pertsonekin dituzten harremanak globalki onak dira, senideekin eta bizilagunekin. 2018an, etxebizitzetatik %72k behintzat gehienez onak diren harremanak omen ditu etxeko kideekin. Aurreko urtean aldean, portzentajea murriztu egin da, baina ez da gertatu harreman txarrak dituzten kasuak hazi direlako, baizik eta pertsona bakarra bizi den etxebizitzetako ehuneko handitu egin delako; ez dago galdere hau egitea. Gainera, biztanleriaren %97,4k gehienez onak diren harremanak mantentzen omen ditu, aurreko urteetan nabarmendutako ehunekoen joera berean. Azkenik, etxebizitzetatik %95k bizilagunekin, gehienez behintzat, harreman ona duela nabarmentzen du.
- Gipuzkoar biztanleriaren %68,7k hauteskundeetan beti parte-hartzen du, %12,8k ia beti egiten du eta %6,9k aldi batzuetan. Aitzitik, %12,4k hauteskundeetan ez du parte-hartzen, dela boto-eskubiderik ez izateagatik, dela ez duelako interesik edo ezertarako baliorik. Politika- eta hiritar-partaidetza ezak bereziki eragiten die pertsona gazteei, jatorri atzerri-tarra dutenei, pobrezia pairatzen dutenei eta bazterkeria-egoeran bizi diren lagunei. Ez du inolako politika- eta hiritar-partaidetzarik egiten pertsona pobreetatik %35k; eta biztanleria osoaren ehuneko %11,6 da. Horrek baino garrantzia handiagoa izan dezake etxebizitzako diru-sarreraren arabera hiritar- eta politika-partaidetzaren gradienteak: Hobeikien dagoen biztanleriaren %20 aintzat hartuz gero, %1,1k ez du parte-hartzerik egiten bizimodu politikoan edo hiritarrean. Egoera eskasena bizi duen %20aren kasuan, %29,8ra heltzen da ehuneko hori.
- Biztanleria gipuzkoar helduaren %85,6k ez du sekula boluntario-lanik bete. Halaber, %14,4k -84.900 bat pertsonak- boluntario-lanak egin ditu, dela azken urtean zehar (%7,7), dela aldi horren aurretik (%6,7). Partaidetza handiagoa esku-hartze sozialaren arloan gertatzen da, izan ere, boluntario-jardueretan parte-hartutako 45.000 pertsonetatik %28k arlo horretan lan egiten duten erakundeetan parte-hartu baitu.
- Azken urtean zehar aldiren batean Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetara jo duela adierazten du gipuzkoar etxebizitza guztietatik %11k. Tankerako portzentaje baten esanaren arabera, epe luzeago batean (urtebete baino gehiagoan) jo dute zerbitzu horietara, beraz, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetara joan da %22,5, aldiren batean. Lanbidera jo dutela baieztatzen duten etxebizitzetako portzentaje altuagoa izan da. %18,0 azken urtean joan da, %16,8 azken urtean baino aurretik, eta %34,8 aldiren batean behintzat. Bilakaera-ikuspegi batetik, progresiboki murrizten joan dela beha daiteke -oso hein apalean gertatu arren- Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetara jo duela adierazten duten etxebizitzetako ehuneko.

- Dela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen nahiz Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabilera nabarmen hazten da pobrezia monetarioa eta/edo gizarte-bazterketa pairatzen duten etxebizitzetako biztanleen artean. Gainera, Gizarte Zerbitzuetara aldiren batean jo duten pertsonetatik %35,7 pobrezia-egoeran bizi diren pertsonak direla nabarmendu behar da, eta %35,6 bazterkeria-egoeran dauden biztanleak. Ildo horretatik nabarmen daitekeenez, Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen arteko kolektibo horiek gain ordezkatuak egon arren, haietara jotzen duten gehienek ez dute bazterkeria- edo pobrezia-egoerarik pairatzen.
- 2018an, gipuzkoar etxebizitzetatik %6,0k Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eskatu du. Berterik gertatzerik ez dagoenez, prestazio horri buruzko pertzepzioak etxebizitzetako ezaugarri sozio-demografikoak aintzat hartzen ditu. Horrela, emakumea buru duten etxebizitzetako %11,3k, 45 urtez azpiko erreferenteak dituzten %14,5ak, nazionalitate atzerritarreko laguna buru duten %29,1k, lan-intentsitate apala duten etxebizitzetatik %44,4k, pobrezia-egoeran dauden etxebizitzetatik %50,1k eta bazterkeria-egoeran dauden etxebizitzetako %39,0k prestazio hori eskatu izan du.
- Hala ere, eskatu dutenetik %74,6k nazionalitate espainiarra du, %77k ez du pairatzen pobrezia-egoera larrikeria, eta %41 gizarteratua bizi da, dela erabat gizarteratua dela prekarioki gizarteratua. Halaber, laguntza horiek eskatu izandako lagunetatik %17k, lan-intentsitate (bateratu) altua duten familietako kide dira eta, datuen arabera behintzat, bateragarri gertatzen da modu honetako prestazioak jasotzearekin.
- Ematen duenez, prestazioaren zenbatekoaren egokitasuna desegoki bilakatu da urte hauetan, jasotzaile diren lagunen ikuspegitik behintzat. Hain zuzen ere, 2018 urteko jasotzaileen %9,5ak adierazten duenez, haien premietara egokitzen da erabat prestazioaren zenbatekoa; 2014 urteko %13,2aren aldean eta 2012 urteko %19,3aren aldean. Bestetik, prestazioaren zenbatekoa eskasa edo oso eskasa dela adierazten dutenen ehunekoa 2012 urtean %38,6 izatetik 2018 urtean %49,1 izatera pasa da. Halaber, maila apalagoan izan arren, prestazioaren zenbatekoa premietara egokitzen dela uste duten pertsonen ehunekoa hazi egin da, baina ez erabat, 2012 urteko %35etik 2018 urteko %41,3ra pasa baita.
- Edonola ere, biztanleriako pobrezia-egoera larrien tasaren %43,6ko beherapena ahalbidetzen dute gizarte-transferentzietatik, 29.200 lagunei pobrezia-egoeratik alde egiten laguntzen diena. Ikuspegi konparatibo batetik, baita ebolutibo batetik ere, 2014an antzemandako pobrezia larriaren tasa murrizteko gaitasun hori apalagoa izan da; Espainia osotasunean hartuta baino altuagoa da –erkidegoko sistemaren aldean gutxieneko errenta-sistema askoz ere ahulagoa duena–; eta EB-28ko herrialdeak osotasunean hartuta baino apalagoa da, gizarte-transferentzien bitartez lortutako pobrezia larria murrizteko maila %57,4koa baita.

1 ATALA

HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1. Helburuak, egitura eta metodologia

1.1. Proiektuaren aurrekariak eta helburuak

Txosten honetan, Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestari (GPGBI) dagozkion emaitzak aurkezten dira, 2017 urteko azaroa eta 2018 urteko otsaila bitartean egin dena. Operazio estatistiko honen hirugarren bolada da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamenduak sustatzen duena; eta 2012ko¹ eta 2014ko² inkestei jarraitutasuna ematen diena.

GPGBI sortu zenean, garai hartako operazio estatistikoetan nabarmentzen ziren gabezia eta muga batzuk hobetzea izan zuen xede. Oro har, hauexek dira inkestaren helburu nagusiak:

- Gipuzkoako pobrezia-, desberdintasun- eta bazterkeria-egoeren neurketa- eta jarraipen-sistema propio bat ezartzea, eta aldian-aldian, gure ingurune herrialdeetan erabili ohi diren egoera horiek neurtu eta jarraipena egiteko adierazle nagusiak lortzea.
- Gipuzkoako pobrezia-, desberdintasun- eta bazterkeria-egoera desberdinen inguruan, eta ezaugarri pertsonalen (sexua, adina, okupazioa, jatorria, etab.) edo etxebizitzek dituzten ezaugarrien arabera pairatzen duten eraginei buruzko informazio xehatua eta berezia eskuratzea.
- Bildutako informazioa oinarri hartuta eta pobrezia eta gizarte-bazterketaren arloko gure lurraldeko erakunde publiko nahiz pribatuen partaidetzaren laguntzaz, pobrezia eta bazterkeria aurre egiteko Gipuzkoak garatzen diren politikak hobetzea ahalbidetuko duten gomendioak edo orientazioa eskaintzea.

¹ SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa (2013) [Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. Emaitza txostena](#). Donostia: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

² SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa (2015) [Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2. Inkesta. Emaitza definitiboak](#). Donostia: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

1.2. Txostenaren egitura

Txostenaren egitura laburpen exekutibo batean, hiru ataletan eta bi gehigarrietan antolatzen da.

Azterlan honetako lehen orrialdeetan laburpen exekutibo azaltzen da. Hartan biltzen dira *Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkestaren* emaitzak, baita azken bost urtetan behatu izandako joera nagusiak ere.

Lehen atal honek, sarbide izateko funtzioa duenak, operazioaren helburuen azalpenak biltzen ditu, haren aurrekariak azaltzen dira eta dituzten ezaugarri teknikoak zehazten dira, baita inkesta osatzeko erabili izandako metodologia ere.

Bigarren atalean, Gipuzkoako pobrezia monetarioko, gabezia materialeko, gizarte-bazterketako eta desberdintasun-mailako eraginei buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzen da neurketa ahalbidetzen duten adierazle nagusien bitartez. Horretaz gain, identifikatutako magnitude nagusien bilakaera aztertzen da, talde sozialen arabeko pobrezia eta bazterkeria eragin desberdina, eta haren konparazioa herrialde europarretan gertatzen denarekin.

Hirugarren atalean, gipuzkoar biztanleriaren bizibaldintzak aztertzen dira ondoko arlo hauen arabera: hezkuntza-maila, osasun- eta mendekotasun-egoera, langabezia- eta enplegu-egoerak eta lan-baldintzak, etxebizitzetako gastu- eta zorpetze-maila, pobrezia erantzun subjektiboa, etxebizitza izateko eskuragarritasuna eta egoera, gizarte-harremanak eta partaidetza, eta pobrezia aurre egiteko politiken erabilera, eskaria eta eraginkortasuna. Atal honetan, Gipuzkoako biztanleriaren artean dauden desberdintasunak azpimarratzen dira, oinarrizko aldagai soziodemografiko batzuen arabera, baina baita pertsonak eta etxebizitzak pobrezia eta bazterkeria-dimentsioen kokapenean ere.

Azkenik, bi gehigarri agertzen dira. I Gehigarrian, pobrezia, gizarte-bazterketa eta desberdintasun-maila neurtzeko erabili izandako adierazle nagusien arabera lortutako emaitzak era sistematiko batean aurkezten dira. Azkenik, II. Gehigarriak Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkestari dagokion galdetegia biltzen du.

1.3. Operazioaren oinarriko ezaugarriak

Atal honetan Gipuzkoako Pobrezari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkestari dagozkion ezaugarri tekniko eta metodologiko nagusiak azaltzen dira.

1.3.1. Laginaren diseinua

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren eskariz, EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundeak diseinatu zuen Gipuzkoako Pobrezari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren lagina, 2018ko azaroan.

Laginaren markoa

Lagina hautatzeko erabilitako markoa Gipuzkoako familia-etxebizitza okupatuek osatzen dute. 2016ko Etxebizitza Direktorioa erabili da hori lortzeko, eta zehazki, EUSTATEko Biztanleria Erregistroaren arabera, gutxienez pertsona batek osatutako familia-etxebizitzak.

Laginaren diseinua

Etapako biko laginketa bat da, lehen etapan estratifikazioa duena, eta bigarren etapan lagin-tamaina finkoa: 8 orokorrean, eta 14 Donostian eta Donostialdean.

Eustatek ezarritako eskualde gipuzkoarren arabera egin da lagina, eta etxebizitzakoen adinaren, nazionalitatearen, familia-tamaina eta pertsona landunen zenbatekoaren arabera orekatu da.

Lagin-unitatea

Inkesta-unitatea familia-etxebizitza izan da, eta 2016ko Etxebizitza Direktorioa erreferentziako biztanleriaoinarri gisara erabili da.

Laginaren tamaina

Lagina 1.508 familia-etxebizitzek osatzen dute. Laginako etxebizitza titular bakoitzeko ordezkari bat eta bi erreserba gorde dira.

Lehen etapa: Sekzioen lagina

Lehen etapan zozketa estratifikatu bat egin da Gipuzkoan dauden 545 zentzu-sekzioekin.

▪ Estratifikazioa:

Lehen etapako lagin-unitateak ondoko bi aldagaien arabera estratifikatu dira:

- Eskualdeak: hiru talde osatu dira. Bidasoa Behearek, Debarrenak eta Debagoienak osatzen dute lehena; Donostialdeak (hiribururik gabe) eta Donostiak bigarrena; eta Goierri, Tolosaldeak eta Urola Kostak hirugarrena.
- Tipologiak: Osagai Nagusizko Análisisa egin ondoren, Gipuzkoako sekzioak, estratifikazioari dagokionez, 9 tipologietan sailkatu dira.

▪ Esleipena:

Etxebizitza-zozketa eskualde eta tipologiaren etxebizitza-kopuruaren proportzioari jarraituz egin da.

▪ Zozketa:

Banaketa teorikoa lortu ondoren, zentsu-sekzioen zozketa probabilistikoa eta etxebizitzetan neurtutako sekzioen tamainaren arabera proportzionala izan da (PPT).

▪ Oreka:

Kuboaren Metodoa erabiliz hautatu da etxebizitza-lagina, jatorriko biztanleriaren proportzioak laginean mantentzen dituen oreka-aldagai batzuk oinarri eta diseinuaren inklusio-probabilitateak kontuan hartuta. Lagina orekatzeko aldagaiak ondoko hauek izan dira:

- Gizabanakoak: gizabanakoen zenbatekoa eskualde bakoitzean.
- Sexua: gizon eta emakumeen zenbatekoa.
- Adina: 34 urtez azpiko pertsonak, 35-44 urte bitartekoak, 45-54 urte bitartekoak, 55-64 urte bitartekoak eta 65 urte baino gehiagoko pertsonak.
- Nazionalitatea: gizabanako nazionalen eta atzerriarren zenbatekoa.

1. Koadroa. Eskualdeen arabeko sekzioen eta etxebizitzaren laginak. 2018

	Laginketa-markoa		Lagina	
	Sekzioak	Etxebizitzak	Sekzioak	Etxebizitzak
Bidasoa Beherea	54	30.993	19	152
Debarrena	44	23.139	16	128
Debagoiena	47	25.699	16	128
Donostialdea (hiribururik gabe)	108	57.705	25	350
Donostia	142	76.529	25	350
Goierri	54	26.946	16	128
Tolosaldea	47	19.253	16	128
Urola Kosta	49	28.880	18	144
Guztizkoa	545	289.144	151	1508

Iturria: Gipuzkoako Pobrezari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

- Familia-tamaina: bizilagun 1, 2 bizilagun, 3-4 bizilagun edo 5 bizilagun baino gehiago dituzten etxebizitza-kopurua.
- Landunak: 0, 1, 2 edo pertsona landun gehiago bizi diren etxebizitza-kopurua.

Bigarren etapa: etxebizitza-lagina

Bigarren etapan, lagineko etxebizitza-hautaketa ondoko irizpideei jarraituz egin da:

- **Esleipena:**

Laginaren lehen etapan hautatutako sekzio bakoitzeko 8 edo 14 etxebizitza hautatu dira sekzio mota bakoitzaren arabera.

- **Zozketa:**

Etxebizitza-hautaketa ausazko zozketa bakunaz egin da sekzio bakoitzean.

- **Oreka:**

Bigarren etapa honetan berriz ere, etxebizitza-lagina Kuboaren Metodoa erabiliz hautatu da eta lehen etapako aldagai berdinen arabera orekatu da lagina, marko osoaren arabera azken lagin orekatu bat ziurtatzen duena.

Ordezkoak

Azken lagina, etxebizitza titularrek osatzen dutena, ordezko baten hautaketarekin osatu da eta etxebizitza bakoitzeko bi erreserbekin. Bai ordezkoak bai erreserba gisako etxebizitzak lehen etapan hautatutako zentsu-sekzio bakoitzetik hartu dira, oreka, familia-tamaina eta etxebizitzako pertsona landunen zenbatekoaren aldagai dagozkien gertutasun-irizpideen arabera.

Laginketa-errorea

Ausazko laginketa bakunaren kasuan, %95eko konfiantza-tarteetarako eta gehienezko bariantzarako ($P = Q$), laginketa-errorea \pm %2,52koa da lagin osorako.

1.3.2. Landa-lana

Landa-lanaz EMAIKER-Azterketa Soziologikoen Kabinetea arduratu da. Inkestaren inguruko informazio-bilketa 2018ko azaroaren 27an hasi zen eta 2018ko otsailaren 16an amaitu, eta landa-lanaren gutxi gorabeherako iraupena hamahiru astekoa izan zen.

Landa-laneko taldea operazioaren arduradun batek, landa-laneko lan-prozesuaren koordinatzaile batek eta 11 inkestatzailek osatu dute.

Inkestak baliozkotzeko, ondoko kontrolak egin ziren:

- Betetako galdetegi guztien inspektzioa landa-lanaren arduradunen eskutik. Logika- eta koherentzia-kontrolak egin ziren, erroreak, kontraesanak eta informazio-gabeziak antzematea; eta alderdi horiek informazioa bildutako lagunek erkatu zuten.
- Telefono-kontrolak. 606 etxebizitzetara deitu zuten, inkestan partaide izandako etxebizitzetatik %40,2.
- Grabatutako datuen koherentzia baieztatuzko informatika-kontrolak.

Guztira, 1.508 familia-etxebizitzetako kideei galdegin zaie, haietatik %50,5 (772) etxebizitza titularren laginekoak, %26,5 ordezko etxebizitzak, eta %23 erreserba-etxebizitzen laginekoak. Etxebizitza titularren laginaren guztizkotik, ezetz erantzundakoen tasa –hau da, galdegegia betetzeari uko egindako etxebizitzen proportzioa– %27,5ekoa izan zen. Tasa hori nabarmen altuagoa da aurreko 2014ko boladan lortutakoaren aldean, zeina %9,3koa izan baitzen.

1.3.3. Galdetegia

Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren azken bolada honetako galdetegia guztira 121³ galderek osatzen dute, 11 modulu tematikoetan biltzen direnak. Bestetik, argiro desberdintzen diren bi ataletan antolatzen da galdetegia. Etxebizitzan bizi diren pertsonak dira azterketa-unitateak lehen atalean, eta horren ondorioz, galdetegia etxebizitzako pertsona guztiek bete behar dute. Etxebizitza osoak osatzen du bigarren ataleko azterketa-unitatea, eta unitatearen izenean betetzen dute galdetegia. Dokumentu honetako I. Gehigarriak Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018 urteko Inkestari dagokion galdetegia biltzen du.

2018 urterako erabili izandako galdetegia aurreko boladakoen oso tankerakoa da. Beraz, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren dimentsio anitzeko ikuspegia mantentzen da eta etxebizitzetako alderdi ekonomiko eta materialei buruzko galderak eta etxeko kideei buruzko ohiko galderez gain, gizarte-bazterketaren eragina neurtzeko beste batzuk biltzen dira, hezkuntza, osasuna, harreman sozialak edo partaidetza politikoa eta soziala bezalako dimentsioak aintzat hartzen dituenak.

Ondoren, galdetegiko modulu tematikoen eta galderen arteko erlazioa azaltzen da:

- A. Etxebizitzaren eta etxeko kideen ezaugarri sozio-demografikoak: P1etik P16 bitarteko galderak.
- B. Hezkuntza-maila, ikasketak, ama-hizkuntza eta hizkuntzen ikasketa: P17tik P22 bitarteko galderak.

³ Galdetegian 129 galdera zerrendatu arren, zentzu hertsri batean, formularioak 121 galdera ditu. 2012 urteko galdetegiko zenbaketa erreferentzia gisa gorde delako gertatzen da.

- C. Osasuna eta autonomia: P23tik P34 bitarteko galderak. Modulu honetan hiru galdera gehigarri sartu dira (F01, F02 eta F03), jarduera eta ariketa fisiokoari buruzkoak.
- D. Jarduera, enplegua eta prestakuntza: P35etik P48 bitarteko galderak.
- E. Etxebizitzako diru-sarrera ekonomikoak: P49tik P62 bitarteko galderak.
- F. Etxebizitzako gastuak eta egoera ekonomikoa: P63tik P87 bitarteko galderak.
- G. Etxebizitza nagusiaren ezaugarriak: P89tik P99 bitarteko galderak.
- H. Harreman sozialak eta hiritar- eta politika-partaidetza: P100etik P107 bitarteko galderak.
- I. Pobreziari aurre egiteko politikak: P108tik P114 bitarteko galderak.
- J. Etxebizitzako energia-erabilera: P117tik P122 bitarteko galderak.
- K. Partaidetza soziala eta boluntariotza: P123tik P129 bitarteko galderak.

Bi ataletako banaketaren arabera, etxeko kide bakoitzari zuzentzen zaio atal bat, eta besteak etxebizitzari buruzko galderak ditu. Lehenak Atik E modulura eta K moduluarren zati bat (1etik 62ra bitarteko galderak eta 123tik 125ra bitartekoak) hartzen ditu, eta bigarrenak F, G, H eta J (63tik 122ra bitarteko galderak) moduluarak.

2014ko boladaren aldean, berrikuntza nagusia partaidetza sozialarekin eta boluntariotzarekin zerikusia duen modulu tematiko bat sartzea izan da, aurreko aldiaren mendekotasun-egoeran dauden pertsonen buruzko denboraren eta zaintzaren erabilerrari zegokion modulu tematikoa ordezkatzen duena. Halaber, osasunari eta autonomiari buruzko modulu horretan jarduera eta ariketa fisikoei buruzko hiru galdera gehitu dira, eta beste horrenbeste herritar gipuzkoarren hiritar-kulturari buruzkoak –harreman sozialei eta hiritar- eta politika-partaidetzari buruzko moduluan–.

Oro har, Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren galdetegiaren lanketa eta diseinurako erreferentzia gisara ondoko operazio estatistikoei dagozkien galdetegiak:

Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikokoak landutakoa.

- Bizi Baldintzei buruzko Inkesta, Estatistika Institutu Nazionalak (INE) landutakoa.
- Gizarteratzeari eta Premia Sozialari buruzko Inkesta, FOESSA Fundazioak landutakoa.

1.3.4. Emaitzak zehaztea

Berresleen kalkulu-prozedura bi fasetan osatu da:

Haietako lehena Eustatek egindako hasierako doikuntzari dagokio. Fase honetan, Ranking Ratio kalibraketa-metodoaren bitartez, aldebereko doikuntza egin zitzaien bai gizabanakoei bai etxebizitzari. Erabilitako doikuntza-aldagaiak sexua, adina eta nazionalitatea izan dira, gizabanakoei dagozkien aldagaietan; eta familia-tamaina, familia motako aldagaietarako. INSEE-k presatutako CALMAR (*calage sur marges*) programaren bitartez egin zen doikuntza.

Emaitzak zehazteko bigarren faserako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikokoaren aholkularitza jaso zen, eta aurrekoa oinarri hartutako haztatzaile alternatibo bat proposatu zuen. Kasu honetan, Eustaten CALMAR kalibraketa-prozesua berriz egin zen, etxebizitzako pertsona landunen zenbatekoari zegokion aldagai bat sartuta.

2. ATALA

GIPUZKOAKO POBREZIA, DESBERDINTASUN ETA
GIZARTE BAZTERKETA EGOERAK

2. Gipuzkoako pobrezia-, desberdintasun- eta bazterkeria-egoerak

2.1. Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte-bazterketa

2.1.1. Adierazle nagusiak

Lehen atal honetan, pobrezia monetarioari, gabezia materialei eta gizarte-bazterketari lotutako egoerak ezagutzeko neurri nagusiei buruzko 2018 urteari dagozkion emaitzak aurkezten dira. Gure lurraldeko horrelako egoeren panoramika orokor bat eskaintzea da helburua. Aurretiko deskribapen hau hurrengo epigrafeetan osatzen da egoera kalteberan dauden taldeen analisiarekin, azken bost urtetan behatutako joera nagusiekin eta gure lurraldea beste batzuekin konparatuta.

2018 urteko GPGBIK eskaintako datuak testuinguru sozioekonomiko zehatz batean jaso direla aurretiaz nabarmendu behar da, 2008 urtean hasitako krisialdi ekonomikoaren bukaerako testuingurukoa, eta BPG edo enplegua bezalako parametroak berreskuratu diren garaikoa, atzeraldian sendo uzurtutakoak.

Hala eta guztiz, berreskurapen-sintoma nabarmenak aspaldi ageri diren abagune ekonomikoa gertatu arren (2014 urtean hasi zen hazten Barne Produktu Gordina, urte hartatik langabezia-tasa beheratu zen eta etxebizitzetako diru-sarrerren maila berreskuratzen hasi zen), pobrezia eta gizarte-kalteberatasunari lotutako egoerei dagozkien eraginak oso murrizak dira oraindik, eta egoera horien helmena erlatiboki orekatua mantendu izan da 2014 urtetik.

2018 urtean, Gipuzkoako pobrezia erlatiboko eta diru-sarrerera apalen arriskuko egoeren prebalentzia biztanleriaren %16,4koa izan zen, hau da, biztanleria osoaren medianaren diru-sarrerren %60 baino diru-sarrerera apalagoak dituzten 117.000 bat pertsona (ikus 1. Taula). Atalase hori hautatu ordez –pobrezia ‘erreal’ neurtu baino gehiago ongizate-gabezia edo diru sarrerak neur-tzen dituen–, erreferentzia gisara errentaren mediana baliokidearen %40 hartzen da, eta Gipuzkoan jasotako prebalentzia %5,3koa da. 2018 urtean, 37.800 bat pertsonak hileko 613 eurotik azpiko diru-sarrerak eskuratzten zituen (pertsona bakarrek etxebizitzaren kasuan) eta, horren ondorioz, pobrezia monetarioko egoera larriarazi zen.

1. Taula. Pobrezia-, bazterkeria- eta desberdintasun-adierazle nagusiak. Gipuzkoa 2018
(Eragindako pertsonen eta etxebizitzaren tasa eta zenbatekoa)

		Pertsonak		Etxebizitzak	
		Tasa (biztanleria osoaren %aren arabera)	Kaltetutako pertsonen zenbatekoa	Tasa (guztizko etxebizitzaren %aren arabera)	Kaltetutako etxebizitzaren zenbatekoa
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatiboa edo diru-sarrerera baxuak	16,4	117.157	16,3	48.024
	Pobrezia larria	5,3	37.838	4,3	12.599
	Gabezia material larria	6,9	49.110	6,4	18.911
	Lan-intentsitate baxua	5,7	40.375	4,4	12.934
	Pobrezia eta bazterkeria (AROE)	19,2	137.051	19,1	56.302
	Pobrezia erlatiboa, biztanleria landuna	10,0	29.445	--	--
FOESSA adierazleak	Erabateko gizarteratzea	56,9	406.341	58,0	171.336
	Gizarteratze prekarioa	29,3	209.071	28,6	84.497
	Bazterkeria moderatua	9,1	64.852	8,1	23.944
	Bazterkeria larria	4,7	33.273	5,3	15.725
	Guztizkoa	100,0	713.537	100,0	295.502
Desberdintasun-adierazleak	Giniren koefizientea		25,3		--
	S80/S20		3,8		--
Diru-sarrerari buruzko adierazleak (euroak/hileko)	Errenta mediana baliokidea		1.533,3		--
	Pobrezia erlatiboaren atalasea		920,0		--
	Pobrezia larriaren atalasea		613,3		--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Bi adierazle horiek egoki ulertzeko, 2018 urteko atalasea hileko 1.533 eurotan finkatu zen, hau da, pertsona bakarrak osatutako etxebizitzako errentaren medianaren baliokidea dena⁴. Atalase horretatik kanpo, berriazko atalaseak daude, pertsona bakarra bizi den etxebizitza baten arabera kalkulatuak, eta 920 euro/hileko dira pobrezia erlatiborako edo diru-sarrera apaleko kasuetarako, eta 613 euro/hileko pobrezia larria pairatzen dutenentzat. Etxebizitza-tamaina bakoitzeko berriazko atalaseak ondoko taulan kontsulta daitezke.

2. Taula. Eurostaten metodoaren arabera diru-sarrera baxuen eta pobrezia larriaren atalaseak. Gipuzkoa 2018
(Euroak/hilabeteko)

	Erreferentzia Errenta mediana	Pobrezia erlatiboa edo diru-sarrera baxuak (medianaren <%60)	Pobrezia larria (medianaren <%40)
1 pertsona	1.533	920	613
2 pertsona	2.300	1.380	920
3 pertsona	2.760	1.656	1.104
4 pertsona	3.220	1.932	1.288
5 pertsona	3.680	2.208	1.472

Oharra: bigarren kasuan bi pertsona helduk osatutako etxebizitza aintzat hartu da kalkulurako, eta hurrengoetan, bi pertsona helduk eta besteak 14 urtez azpiko direla aintzat hartuta.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Gabezia material larriko adierazlearen emaitzen arabera, egoera horien prebalentziak Gipuzkoako %6,9ri eragiten diola erakusten du, eta zifra absolutuetan 49.100 pertsona bizi dira bederatzi kontzeptuko zerrenda batek lau kontzeptuetako gabeziekin erlazionatutako zailtasun ekonomikoak dituztenak. Aintzat hartu diren bederatzi kontzeptuak eta biztanleria osoan duen prebalentzia 3. Taulan biltzen dira.

3. Taula. Gabezia material larria. Gipuzkoa 2018
(Eragindakoen tasa eta pertsonen zenbatekoa)

	Tasa (%)	Pertsonen zenbatekoa
Etxebizitzako gastuekin zerikusiko ordainketa atzerapenen bat izan du	5,3	38.031
Ezin dute etxebizitzan tenperatura egoki bat mantendu	9,1	65.136
Ezin diete aurre egin ezusteko gastuei (800 €)	24,5	174.719
Ezin dute jan astean 3 alditan gutxienez haragia, oilaskoa edo arraina	2,6	18.211
Ezin dute oporretara joan gutxienez urtean astebetetz	28,1	200.823
Ezin dute eduki autorik	13,5	96.383
Ezin dute eduki garbigailurik	0,1	477
Ezin dute eduki telebistarik	0,7	4.877
Ezin dute eduki telefonorik	0,0	261
+ Gabezia material larria (gutxienez 4 item)	6,9	49.110

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.


⁴ Etxebizitzako errenta baliokidea kontsumo-unitate baliokideetara bihurtzea OCDEko baliokidetza-eskala zuzenduaren bitartez egiten da. Metodo horren arabera, etxebizitzako kontsumo-unitate kopurua kide bakoitzari egotzen zaion pisuaren arabera kalkulatu da: 1 etxebizitzako lehen kide helduari, 0,5 beste heldu bakoitzari eta 0,3 14 urtez azpiko pertsona bakoitzari. Etxebizitza bakoitzeko kontsumo-unitatea lortzeko, etxebizitzako guztizko diru-sarrera kontsumo-unitate kopuruaren arabera banatzen da.

Enpleguaren pobrezia- eta prekaritate-adierazleei dagokienez, hein bateko anibalentzia nabarmendu behar da. Alde batetik, 60 urtez azpiko gipuzkoar biztanleriatik %5,7 bizi da lan-intentsitate baxuko etxebizitzetan –hau da, etxebizitzako 18 eta 59 urte bitarteko kideek balizko lana egiteko denboraren %20 baino gutxiago lan egin dutenak–. Hala ere, arreta biztanleria landunaren egoerari jartzen zaionean, hamar pertsona langiletik bat pobrezia erlatiboko egoeran bizi dela nabarmentzen da etxebizitzako diru-sarrerak aintzat hartzean; eta, horren ondorioz, langile pobretzat har daitezke.

Laburtuz, eta pobrezia erlatiboko, gabezia material larriko eta lan-intentsitate apaleko adierazleak elkarrekin hartuz gero, AROPE adierazlearen arabera, biztanleria gipuzkoarraren %19,2k pobrezia- edo bazterkeria-arriskuko egoerak biziko litzuzke.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, gipuzkoar biztanleriaren %9,3, 137.000 bat pertsona, pobrezia erlatiboko egoeran biziko litzateke, nahiz eta ez pairatu AROPE tasak aintzat hartutako beste egoeren kalterik. %1,6 lan-intentsitate apaleko egoerek kaltetuta biziko lirateke; eta %1,1 gabezia materialeko egoerek kaltetuta. Bestetik, %3,2k pobrezia erlatiboko eta gabezia materialeko egoerak pairatuko litzuzke, eta %1,4k lan-intentsitate baxuaz gain, pobrezia-arriskua izango luke. Biztanleriaren %2,6k egoera bereziki larriak biziko litzuzke, AROPE tasaren hiru osagaiek kaltetuak baitaude.

1. Grafikoa. Pobrezia- eta/edo bazterkeria-arrisku tasa (ARPE) osagaien arabera. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

ARPE tasaren osaraz ikus daitekeenez, jasotako egoeretatik %86k diru-sarrera apalak izaten dituzte, eta beste kasuetatik soilik %14k gizarte-bazterketako egoerak direla 'ulertuko' litzateke (gehienbat lan-merkatuko parte-hartze baxuari lotzen zaiona), baina ez pobrezia-egoera gisakotzat.

AROPEn bazterkeria-adierazleak eskainitakoa baino dimentsio anitzeko ikuspegi bati helduz gero, FOESSA Fundazioak⁵ eskaintako kalkulu-metodologiari jarraituz, biztanleriaren %4,7k –ia-ia 33.000 pertsona– bazterkeria larriko egoerak bizi ditu eta %9,1k bazterkeria moderatuko egoerak; beraz, intentsitate altuagoko edo baxuagoko bazterkeria-prozesu desberdinek biztanleriaren %13,8 kaltetuko omen luke. Bestelako biztanleriaren artetik, gizarteratze-maila prekariora biziko luke %29,3k eta ia %57k erabateko gizarteratze-egoera biziko luke, hau da, bazterkeria-egoerek kaltetu gabeak.

Azkenik, desberdintasunari buruzko adierazleei dagokienez, Giniren indizea 25,3koa dela jakin daiteke –berdintasun perfektua 0 duena eta erabateko desberdintasuna 100 dena–, eta S80/S20 adierazleak –diru-sarrera gehien duen biztanleriaren %20 eta diru-sarrera apalenak dituen biztanleriaren %20 erlazionatzen dituenak– 3,8ko zifra eskaintzen du, eta horren arabera, biztanleriaren %20 aberatsenaren diru-sarrerak hiru-koiztu egiten dute biztanleriaren %20 pobreak izandako diru-sarrerak.

2.1.2. Arrisku-taldeak

Aurreragoko taulak hiru adierazleei dagozkien balioak biltzen ditu (bi pobrezia monetariokoak eta bat gabezia materialekoak) ezaugarri pertsonal batzuetan oinarritutako profil soziodemografiko batzuen arabekoak (sexua, adina, nazionalitatea eta jaioterria) eta etxebizitzaren arabekoak (etxebizitza mota eta enpleguari erlazionatutako osaera).

Lehenik, ezaugarri pertsonalei kontu hartuz, atzerriko jatorriko pertsona guztien artean gertatzen den prebalentzia bereziki altua nabarmentzen da (bai atzerriko nazionalitatea dutenak bai Espainia kanpoko jaioterrikoak). Hautatutako adierazlearen arabera, gradu desberdinetako pobrezia-tasak edota gabezia materiala 3,4 eta 4,7 bider altuagoa da biztanleria gipuzkoarraren osotasunaren aldean. Edonola ere, alderik nabarmenak larritasun handiagoa azaldutako adierazleetan gertatzen dira. Pobrezia larriak, adibidez, atzeritar nazionalitatea duten lau biztanleko bati eragiten dio (%25,4), biztanleria osoaren %5,3aren aldean, eta gabezia materialek hirutik bati eragiten diete.

4. Taula. Guztizko biztanleriaren pobrezia eta gabezia materialari buruzko adierazle nagusiak, ezaugarri pertsonalen eta etxebizitzako ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				
		Pobrezia monetarioa			Gabezia material larria	Pobrezia monetarioa			Gabezia material larria	Guztizkoa
		Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa	Pobrezia erlatiboaren gabezia		Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa	Pobrezia erlatiboaren gabezia		
Sexua	Gizonezkoa	4,8	15,5	84,5	6,8	44,5	46,3	49,5	48,2	49,0
	Emakumezkoa	5,8	17,3	82,7	7,0	55,5	53,7	50,5	51,8	51,0
Pertsona nagusiaren sexua	Gizonezkoa	4,8	15,2	84,8	6,0	68,5	70,1	76,8	66,5	75,7
	Emakumezkoa	6,9	20,2	79,8	9,5	31,5	29,9	23,2	33,5	24,3
Adina	<18	10,8	23,0	77,0	10,6	35,4	24,5	16,1	27,0	17,5
	18-44	5,5	17,4	82,6	8,2	32,8	33,5	31,2	37,8	31,6
	45-64	4,3	14,3	85,7	6,3	23,7	25,2	29,7	26,6	28,9
	65 eta gehiago	1,9	12,6	87,4	2,7	8,0	16,8	23,0	8,6	22,0
Pertsona nagusiaren adina	<45	8,8	23,8	76,2	12,1	47,4	41,2	26,0	50,0	28,5
	45-64	5,1	14,0	86,0	5,6	42,6	37,9	45,6	36,1	44,3
	65 eta gehiago	1,9	12,6	87,4	3,5	10,0	20,9	28,4	13,9	27,2
Nazionalitatea	Espainiarra	2,7	10,9	89,1	3,6	45,0	58,8	94,3	46,0	88,5
	Atzeritarra	25,4	58,8	41,2	32,3	55,0	41,2	5,7	54,0	11,5
	EAE	2,8	10,9	89,1	3,5	39,3	50,3	80,7	38,7	75,7
Jaioterria	Estatuko beste lekuak	5,2	16,5	83,5	5,3	13,2	13,6	13,5	10,4	13,5
	Estatutik kanpokoak	23,4	55,2	44,8	32,6	47,5	36,1	5,8	50,9	10,7
Familia multzoa	Pertsona bakarra	3,4	16,1	83,9	6,4	7,2	11,1	11,3	10,4	11,3
	Seme-alaba gabeko bikotea	2,3	10,6	89,4	1,5	8,9	13,5	22,3	4,7	20,9
	Seme-alabaren bat duen bikotea	5,2	14,9	85,1	5,8	53,8	50,0	56,0	46,2	55,0
	Gurasobakarra	13,1	34,1	65,9	24,5	21,5	18,1	6,9	31,1	8,7
Jardueraren araberako erlazioa	Aktibo guztiak landunak	2,8	10,3	89,7	4,1	35,6	43,2	73,7	40,5	68,7
	Bi edo pertsona aktibo gehiagoko etxean behintzat aktiboak den batek lana izatea	17,5	41,4	58,6	20,5	28,3	21,6	6,0	25,5	8,6
	Ez dago lana duen pertsona aktiborik	35,2	69,8	30,2	38,5	26,4	16,9	1,4	22,2	4,0
	Ez dago pertsona aktiborik	2,7	16,0	84,0	4,3	9,7	18,3	18,9	11,8	18,8
Guztizkoa		5,3	16,4	83,6	6,9	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

⁵ Metodologiari eta 2018 urterako Gipuzkoan lortutako dimentsioei eta adierazleei buruzko informazio zehatzagoa izateko azterlan honetako I. Gehigarria kontsulta daiteke; zehazki, 2.1, 2.2 eta 2.3 fitxak.

Pobrezia eta gabezia materialeko egoerak orokorragoak izaten dira emakumeen artean ere, baina genero-arraila gehien nabarmentzen da emakumea erreferentziatzko pertsona gisara duten kasuetan. Etxebizitza horietan bizi den biztanleriaren artean (%28 gurasobakarrak eta %27 pertsona bakarrak dira), biztanleria osoaren aldean %30 altuagoa da pobrezia larriaren tasa, eta %38 altuagoa gabezia material larriena.

Adinaren ikuspegitik, 2018 urteko emaitzen 'gaztetze'-prozesu argi bat iradokitzen dute, eta, ia-ia, pobrezia 'haurte'-prozesuaz hitz egin daiteke gure lurraldean. Gaur egun, 18 urtez azpiko adingabeko pertsonen pobrezia erlatiboko edo diru-sarrera apaleko egoeren prebalentzia %23koa da, biztanleria osoaren aldean %40 altuagoa (%16,4). Horretaz gain, talde honetan gabezia material larriko egoerak nabarmen gehiago ematen dira talde honetan (%10,6koa da eta biztanleria osoarena %6,9), baita pobrezia larrikoak ere. 18 urtez gorako biztanleak gipuzkoar biztanleriaren %17,5 inguru dira, eta pobrezia larriaren dauden pertsonetatik %35,4 adingabekoak dira; gure lurraldeko diru-sarrera baxuen kasu guztietatik laurden bat.

Datu horiek 45 urtez azpiko pertsonak buru dituzten kasuekin erlaziona daitezke, izan ere, gradu desberdinetako pobrezia eta gabezia materialeko egoerak gipuzkoar biztanleria osoaren arabera batezbestekoaren gainetik baitaude haiei buruzko datuak.


Alderantzizko zentzuan, 65 urte eta gehiagoko pertsonen artean pobrezia- eta gabezia-egoerak bereziki urriak izaten dira. Talde honetako pobrezia erlatiboko eta pobrezia larriko tasak %23 eta %63 dira, hurrenez hurren, biztanleria osoarentzako agertzen diren datuak baino apalagoak.

Etxebizitzen arteko konparazio-ikuspegi batetik, egoerarik kaltegarrienak bizi dituzten etxeetan gurasobakarrak osatutako etxeak nabarmentzen dira, biztanleria osoaren pobrezia larriko eta gabezia material larriko egoerak 2,5 eta 3,6 bider altuagoak direnak. Aitzitik, pobrezia- eta prekarietate-egoerak urriagoak izaten dira seme-alaba gabeko bikoteek osatutako etxebizitzetan.

Ezaugarrien arabera etxebizitza mota desberdinak sailkatzeko erabili ohi diren mailez kanpo, hurrengo grafikoak pobrezia erlatiboaren eragina azaltzen du etxebizitza mota desberdinen, etxeko seme-alaben eta erreferentziatzko pertsonaren adinaren arabera. Bertan ikus daitezkeen bezala, gurasobakarrak osatutako etxebizitzak, aurretik esanenez, egoera horien ondorioz kaltetuenak izan dira. Aitzitik, haien artean arrail nabarmena aurkitzen da 18 urtez azpiko⁶ norbait duten eta ez dutenen artean. Lehenengo horien artean, %50,5koa da pobrezia-arriskua bizitzeko prebalentzia.

⁶ Galdetegi honetan definitu izan diren bezala, gurasobakarren etxebizitzak bi edo pertsona gehiagok osatutakoak dira, eta haietako bat gurasoa dena. Inkestako datuen arabera, Gipuzkoako etxebizitzetatik %7,7 mota honetakoak dira, eta etxe horietan bizi diren lagunak biztanleria gipuzkoarraren %8,7. Etxebizitza guzti horietatik soilik %37tan bizi da 18 urtez azpiko pertsona bat, baina biztanleriaren arabera, etxebizitza horietan bizi direnek gurasobakarren etxebizitzetatik %61 dira. 18 urtez azpiko seme-alabaren bat duten gurasobakarrak osatutako etxebizitzetatik %50,5ak pobrezia-arriskua bizi du, eta %22,5ak pobrezia larria, eta gabezia material larriaren intzidentzia %34,8 izatera iristen da.

2. Grafikoa. Familia multzo desberdinen pobrezia-arriskua. Gipuzkoa 2018



Oharra: parentesi arteko ehunekoak etxebizitza mota bakoitzeko kideen proportzioari dagozkie.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Haien atzetik, %20 inguruko pobrezia erlatiboko arrisku-tasak dituzte adinez nagusi diren seme-alabak dituzten pertsonak (%19,9) eta 64 urteko pertsona bakarreko osatutako etxebizitzak (%21), eta haien atzetik, adingabeko seme-alabak dituzten bikoteek (%18,9). Beste muturreko egoerak bizi dituzte emantzipatu gabeko adinez nagusiko bikoteek osatutako etxebizitzek (%6) edo seme-alabarik gabekoak (%10,2).

Azkenik, etxebizitzako egoera okupazionalaren ikuspegi jarraituz (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula), pobrezia-tasarik altuenak adin aktiboko eta lanean jarduteko prest dauden kideetatik batek ere lanik egiten ez duten kasuei dagokie. Etxebizitza horietan bizi diren pertsonak biztanleriaren %4 bakarrik izan arren, pobrezia larriko eta erlatiboko %35,2ko eta %69,8ko tasak dituzte, hurrenez hurren. Bestetik, erabateko okupazio-maila ez dutenen etxebizitzetan kasua nabarmentzen da, gipuzkoar biztanleriaren %8,6 bizi dena. Etxebizitza horietako gradu desberdinetako pobrezia-tasak (gutxienez pertsona landun bat dutena) 4 eta 6,3 bider altuagoak izaten dira erabateko okupazioa duten etxebizitzetan, eta horrek erakusten duen bezala, pertsona aktiboak dituzten etxebizitzetan enplegua galtzeak pobrezia-egoera pairatzeko arriskuaren garrantzia nabarmentzen du.

Azken batean, 2018 urterako GPGBIk azaltzen duenez, bai pobrezia-egoerak bai gabezia materialeko egoerak kaltetzeko aukera gehien atzeritarrek dute, etxeko norbait edo denak langabezia dauzaten kasuek eta haien familiek; eta hemendik lor daiteke hiru dimentsioen garrantziaz jabetzea –jatorria, enplegua eta bizi-zikloa– pobrezia-egoerak aintzat hartzean.


Talde bakoitzari pobrezia eragiten dion moduari buruzko datuez gain, biztanleria pobrearen artean kolektibo bakoitzak duen garrantzia aztertzea komeni da. Ikuspegi horretatik, pobrezia larriko egoerak bizi dituzten etxebizitzetatik %68k gizonetako bat du buru, %47k 45 urtez azpiko pertsona bat, eta %47k EAE kanpoko nazionalitatea du. Pobrezia-kasuetatik %53,8 seme-alabak dituzten familiei dagozkie eta etxebizitzetatik %35eko pertsona aktibo guztiak landunak dira.

Gizarteratze-mailari dagokion biztanleria-banaketa arabera, emaitzek gizarte-talde desberdinen arteko alde nabarmenak azaldu dituzte (ikus 5. Taula). Pobrezia gi-

zarte-bazterketaren beste dimentsio bat delako gertatzen da hori; eta haren presentzia gizarte-bazterketaren espazioan zalantzarik gabe oso nabarmendua dago.

Hala eta guztiz ere, bazterkeria-egoeraren batek eragindako pertsona guztietatik %45ak ez du diru-sarrera baxuen egoerarik pairatzen, eta horren ondorioz, biztanleriaren %6k, 44.100 bat pertsona, gizarte-bazterketa bizi arren, ez luke zerikusirik izango haien dimentsio ekonomikoak.

3. Grafikoa. Pobrezia-egoerez gaindiko bazterkeria-egoeren prebalentzia, talde desberdinen arabera. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

5. Taula. Gizarteratze/bazterkeria-mailaren biztanleria-banaketa, ezaugarri pertsonal eta etxebizitzako zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				
		Gizarteratzea	Gizarteratze prekariora	Bazterkeria moderatua	Bazterkeria larria	Gizarteratzea	Gizarteratze prekariora	Bazterkeria moderatua	Bazterkeria larria	Guztizkoa
Sexua	Gizonezkoa	56,9	30,2	8,1	4,8	48,9	50,5	43,8	50,8	49,0
	Emakumezkoa	57,0	28,5	10,0	4,5	51,1	49,5	56,2	49,2	51,0
Pertsona nagusiaren sexua	Gizonezkoa	59,3	28,0	8,7	3,9	78,9	72,4	72,7	63,8	75,7
	Emakumezkoa	49,5	33,3	10,2	7,0	21,1	27,6	27,3	36,2	24,3
Adina	<18	50,3	32,2	13,3	4,2	15,4	19,2	25,5	15,6	17,5
	18-44	53,8	32,6	9,1	4,4	29,8	35,2	31,8	30,1	31,6
	45-64	58,2	27,8	8,7	5,3	29,6	27,5	27,6	33,0	28,9
	65 eta gehiago	65,1	24,2	6,3	4,5	25,1	18,1	15,2	21,2	22,0
Pertsona nagusiaren adina	<45	46,9	33,2	16,2	3,7	23,4	32,2	50,8	22,8	28,5
	45-64	59,6	29,7	6,1	4,6	46,4	44,9	29,8	44,2	44,3
	65 eta gehiago	63,2	24,6	6,5	5,7	30,2	22,8	19,4	33,0	27,2
Nazionalitatea	Espainiarra	62,4	27,9	6,1	3,6	96,9	84,4	59,0	69,0	88,5
	Atzerritarra	15,3	39,7	32,4	12,6	3,1	15,6	41,0	31,0	11,5
	EAE	62,6	28,2	5,9	3,3	83,3	72,8	49,1	54,1	75,7
Jaioterrria	Estatuko beste lekuak	57,3	26,7	9,9	6,0	13,6	12,3	14,8	17,4	13,5
	Estatutik kanpokoak	16,6	40,5	30,5	12,4	3,1	14,9	36,1	28,5	10,7
Familia multzoa	Pertsona bakarra	56,0	29,9	7,5	6,6	11,1	11,5	9,3	16,1	11,3
	Seme-alaba gabeko bikotea	64,5	25,7	6,4	3,4	23,6	18,3	14,8	15,2	20,9
	Seme-alabaren bat duen bikotea	58,7	30,1	8,1	3,1	56,7	56,4	49,2	36,2	55,0
	Gurasobakarra	37,4	30,2	20,6	11,8	5,7	9,0	19,8	22,0	8,7
Jardueraren arabeko erlazioa	Aktibo guztiak landunak	63,6	27,6	6,8	2,0	76,7	64,6	51,4	29,3	68,7
	Bi edo pertsona aktibo gehiagoko etxean behintzat aktiboa den batek lana izatea	8,2	61,6	19,6	10,6	1,2	18,1	18,5	19,5	8,6
	Ez dago lana duen pertsona aktiborik	4,6	29,8	28,4	37,2	0,3	4,0	12,4	31,7	4,0
	Ez daqo pertsona aktiborik	65,9	20,7	8,5	4,8	21,7	13,3	17,6	19,5	18,8
Guztizkoa		56,9	29,3	9,1	4,7	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Zein pertsona edo etxebizitzetan bizi dira hein handiago batean pobrezia gabeko bazterkeria-egoeretan?

3. Grafikoa ikus daitekeen bezala, kasu honetan hein handiengan kaltetutako pertsonak (talde gutxiak, noski) adin handiko biztanleak izaten dira, gazteen edo bertako pertsonen aldean, eta atzerriko nazionalitate duten pertsonen aldean; eta azken kasu honetan pobrezia loturiko bazterkeria-prozesuek pobrezia-egoerekin duten erlazioa zein den iradokitzen da. Era berean, eta pobrezia aintzat hartzean ohikoa denez, gurasobakarrek osatutako etxebizitzak oso ordezkapen altua dute, arrazoi askorengatik gizarte-kalteberatasun handieneko gure talde nagusietakoa dena.

2.1.3. Beste lurraldeen arabera konparazioa

6. Taulan Gipuzkoako egoera EAEkoarekin, Estatu osoarekin eta EB-28arekin konparatzen da, PGEIak eskaintako datuak, errentari buruzko EBko estatistikak eta bizi-baldintzak (EU-SILC) eta FOESSAko gizarteratzeari eta premiei buruzko inkesta (EINS) erabilita.

Pobrezia monetarioari buruzko egoeren hedakuntzari dagokionez, gradu desberdinetan, Gipuzkoa, EAE eta EB-28 maila berean kokatzen dira, baina Estatu osoan erregistratutakoaren aldean hobea da, izan ere, diru-sarreraren tasa baxuak (%21,6) eta pobrezia larriari buruzkoak (%10,5) ageri baitira, Gipuzkoakoak baino askoz ere altuagoak (%16,4 eta %5,3). Gabezia material larrien prebalentzia beste lurraldeen aldean zerbait altuagoa da aldi honetan (aurreko urteetan behatutakoa ez bezala), baina AROPE tasan bildutako Gipuzkoako prebalentzia apalagoa da (%19,2) EAEkoaren (%20,6)

eta EB-28aren aldean (%22,4); batez ere, Espainiaren aldean (%26,6).

2018 urteko datuen arabera, Gipuzkoako lan-intentsitateari dagozkion datuak baxuenak dira konparatutako beste lurraldeen aldean. Hala ere, eta hein batean aurrekoaren ondorioz, EAEk edo EB-28 osoak aurkeztutako tasa baino zerbait altuagoa du langile pobreen prebalentziari dagokionean.

Beste lurraldeekin konparatuz gero, desberdintasun monetarioari dagokionean, aldiz, egoera hobea bizi du Gipuzkoak. Hautatutako hiru adierazleen arabera (Gini, S80/S20 eta 1. dezilaren diru-sarreraren ehunekoak), gure lurraldeko balioak EAEkoen aldean arinki apalagoak dira eta EU-SILCek eskaintakoen aldean askoz apalagoak dira, dela EB osoaren arabera, dela Espainiaren arabera, Europako desberdintasun-indizek altuenetakoa duen lurraldea.

Azken batean, biztanleriaren banaketa gizarteratze- eta bazterte-mailaren arabera eginez gero, 2018 urterako EINSFOESSAren datuen arabera, Estatu osoko erabateko gizarteratzea biztanleriaren ia erdiak (%48,4) bizi duen bitartean, askoz altuagoa da bai Gipuzkoan bai EAE osoan, izan ere, biztanleriaren %57ra iristen baita. Gizarte-bazterketari dagokionean, aldeak ez dira horrenbeste hedakuntzaren arlokoak (%13,8 Gipuzkoan, %15,2 EAEan eta %18,4 Espainian), baina bai haren intentsitate-mailan, izan ere, Gipuzkoako bazterkeria larriaren prebalentzia (%4,7) EAEkoa eta Espainiakoa (%8,8) baino askoz ere apalagoa baita.

6. Taula. Pobrezia, gabezia materialaren, bazterkeriaren eta desberdintasunaren arabera adierazle nagusiak. Gipuzkoa, EAE, Espainia eta EB-28
(Guztizko biztanleriaren arabera tasak)

		Gipuzkoa 2018	EAE 2016	Espainia 2017	Europar Batasuna EB-28 2017
EU-SILC Adierazleak	Pobrezia erlatiboa edo diru-sarrera baxuak	16,4	16,4	21,6	16,9
	Pobrezia larria	5,3	4,9	10,5	6,0
	Gabezia material larria	6,9	6,4	5,1	6,6
	Lan-intentsitate baxua	5,7	10,2	12,8	9,5
	Pobrezia eta bazterkeria (AROPE)	19,2	20,6	26,6	22,4
FOESSA adierazleak*	Biztanleria landunaren pobrezia erlatiboa	10,0	7,5	13,1	9,4
	Erabateko gizarteratzea	56,9	56,6	48,4	--
	Gizarteratze prekariora	29,3	28,2	33,2	--
	Bazterkeria moderatua	9,1	6,4	9,6	--
Desberdintasun- adierazleak	Bazterkeria larria	4,7	8,8	8,8	--
	Giniren koefizientea	25,3	25,8	34,1	30,7
	S80/S20	3,8	3,9	6,6	5,1
Diru-sarreraren adierazleak (eroak/hileko)	D1/Guztizkoa (%)*	3,7	3,5	1,9	2,8
	Errentaren mediana baliokidea	1.533,3	1.430,0	1.183,6	--
	Pobrezia erlatiboaren atalasea	920,0	858,0	710,2	--
	Pobrezia larriaren atalasea	613,3	572,0	473,4	--

*Diru-sarrera baliokide baxuena duten biztanleen %10ak (1. Dezila) guztizko diru-sarrera baliokideen baturaren arabera proportzioa adierazten du. Oharra: EAEri eta Espainiari dagozkien datuak 2017 urtekoak dira, FOESSAko adierazleak salbu, 2018 urteari dagozkionak.

Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta; Estatistikako Organo Espezifikoak. Gizarte Politikako Departamentua. Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkesta (PGEI) 2016; INE. Bizitza Baldintzen Inkesta; Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions); FOESSA Fundazioaren Batzorde Teknikoa (koord.) (2018). "Exclusión estructural e integración social". Saila: Análisis y Perspectivas, Madrid: FOESSA Fundazioa.

2.2. Pobrezia-, desberdintasun- eta bazterkeria-egoeren bilakaera

2012, 2014 eta 2018 urtetan eginiko inkestetako emaitzak oinarri hartuta, epigrafe honetan pobrezia-, desberdintasun- eta bazterkeria-egoeren bilakaera aztergai hartzen da, azken bost urtetan behatu dena. Bi fenomenoen izaera desberdina kontuan hartuz gero (nahiz eta erlazionatuta egon), era desberdin batean aztertzen dira pobreziako, desberdintasun monetarioko eta gizarte-bazterketako egoerak.

2.2.1. Pobrezia- eta desberdintasun-egoeren bilakaera

Zein neurrian gertatu da azken bost urtetako pobrezia-mailaren bilakaera gure lurraldean? 8. Taulan ikus daitekeen moduan, 2012 eta 2018 urteen arteko pobrezia erlatiboko tasa edota diru-sarrerara apalena ia-ia ez aldatu arren -%16,8 izatetik, biztanleriaren %16,4 izatera pasa da eta, beraz, %2,3ko beherakada ezagutu du-, pobrezia larriaren tasa %4,3 izatetik, %5,3 izatera pasa da. Bai PGEIko EAE osorako datuek bai EU-SILCeko Espainiarako eta EB-28rako datuek pobrezia larriaren tasaren hazkuntza nabarmentzen dute aldi horretarako, beraz, Gipuzkoako datuek handiagoa den joera bat azpimarratuko lukete.

Halaber, gabezia material larria neurtzen duen adierazleak gora egin du urteotan (2012 urteko %5,2tik, 2018 urteko %6,9ra). Hala ere, AROPE adierazlea nabarmen murriztu da, %22,7 izatetik, %19,2 izatera, gehienbat, 2018 urtean gertatutako enplegu-mailaren hobekuntzategatik, zeinak lan-intentsitate maila 2012 urteko %9,3tik 2018 urteko %5,7ra beheratu baitu.

Hala ere, gipuzkoar biztanleriak dituen landun gehiagorekin batera (GPGBiren arabera, landunen zenbatekoa 2012 urtetik 2018ra %6,2 hazi da) pobrezia-egoeran

dauden pertsona landunen tasa ere hazi egin da. **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.**Taulan ikus daitekeen modura, biztanle landunen pobrezia-arriskurako tasa 2014 urtean %6,2 izatetik, 2018 urtean %10,2 izatera pasa da, eta horrek, zalantzarik gabe, enpleguaren prekarizazio-prozesuekin harremana izango luke.

Langile pobreen zenbatekoak izandako gorakada azaltzeko kausen artean, soldatarik apalenak dituen biztanleriaren artean gertatutako diru-sarrerara maila eskastu izana nabarmen daiteke, baita biztanle okupatuaren artean langile pobreen kolektiboak hartutako garrantzi erlatibo ere. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzen Departamentuaren 2014 eta 2017 urteen arteko datuek erakusten dutenez, batez besteko soldataren murrizketa handiena lehen dezilekoak diren pertsonen artean gertatu da, beraz, soldatarik apalenak dituzten pertsona landunen artean gertatu da. Eragin hori are nabarmenagoa da 2008 eta 2017 urteen arteko bilakaera behatzen denean.

7. Taula. Soldataren medianaren bilakaera dezilen arabera. Gipuzkoa 2012-2018 (Euro/urteko)

	2008	2014	2017	Bilakaera 2008-17 (%)	Bilakaera 2014-17 (%)
1. Dezila	1.393	1.021	987	-%29,1	-%3,3
2. Dezila	6.228	5.286	5.215	-%16,3	-%1,3
3. Dezila	11.563	10.296	10.304	-10,9%	%0,1
4. Dezila	16.346	15.380	15.076	-%7,8	-%2,0
5. Dezila	19.987	19.834	19.417	-%2,9	-%2,1
6. Dezila	23.554	23.899	23.574	%0,1	-%1,4
7. Dezila	27.491	28.465	28.323	%3,0	-%0,5
8. Dezila	32.166	33.861	33.900	%5,4	%0,1
9. Dezila	38.031	40.447	40.980	%7,8	%1,3
10. Dezila	52.632	54.587	55.311	%5,1	%1,3

Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia. [109 ereduan](#) aitortutako datuak.


8. Taula. Pobreziari eta desberdintasunari buruzko oinarritzko adierazleen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

		Pertsonak					Etxebizitzak				
		2012	2014	2018	Bilakaera 2014-2018		2012	2014	2018	Bilakaera 2014-2018	
					Aldea	Bilak.				Aldea	Bilak.
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatiboa edo diru-sarrerara baxuak	16,8	15,6	16,4	0,8	▲	17,6	15,6	16,3	0,7	▲
	Pobrezia larria	4,3	5,4	5,3	-0,1	=	4,0	4,4	4,3	-0,1	=
	Gabezia material larria	5,2	5,2	6,9	1,7	▲	6,1	5,2	6,4	1,2	▲
	Lan-intentsitate baxua	9,3	8,4	5,7	-2,7	▼	13,0	10,9	4,4	-6,5	▼
	Pobrezia eta bazterkeria (ARPE)	22,7	19,5	19,2	-0,3	▼	22,9	19,2	19,1	-0,1	▼
Desberdintasun-adierazleak	Biztanleria landunaren pobrezia erlatiboa	7,0	6,2	10,2	4,0	▲	--	--	--	--	--
	Giniren koefizientea	27,2	26,3	25,3	-1,0	▼	--	--	--	--	--
	S80/S20	3,8	4,0	3,8	-0,2	▼	--	--	--	--	--
Diru-sarreraren adierazleak (euro/hileko)	D1/Guztizkoa (%)	3,7	3,5	3,7	0,2	▲	--	--	--	--	--
	Errentaren mediana baliokidea	1.404,2	1.420,6	1.533,3	112,7	▲	--	--	--	--	--
	Pobrezia erlatiboaren atalasea	842,5	852,4	920,0	67,6	▲	--	--	--	--	--
	Pobrezia larriaren atalasea	561,7	568,3	613,3	45,0	▲	--	--	--	--	--

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

2014 urteko txostenak *pobreziaren pobretze-prozesu* moduko bat nabarmendu arren (pobrezia gabeko biztanleen eta pobrezia larriko egoeren pisu erlatiboaren garrantzia oso arin igotzeagatik), 2018 urteko datuen arabera, dituen gradu desberdinetan aldi horretan pobrezia-maila mantendu egin da. Hain zuzen ere, pobreziatik kanpo aldi horretan zegoen biztanleria %84ra iristen da, eta pobrezia larriko egoerek kaltetutakoak %5ean mantendu dira.

4. Grafikoa. Pobrezia/pobrezia gabekia eskalan biztanleria-banaketa. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

GPGBIren emaitzek ere lotura dute antzemandako joera horrekin, beste eskala batean, beste lurralde-eremuetan. 2012 eta 2018 urteen artean, pobrezia erlatiboko tasak ia-ia aldaketarik gabe mantendu dira dela Espainian (2012 urtean %20,8 eta 2018 urtean %21,6), nahiz EB-28ko herrialdeen artean (2012 urtean %16,8 eta 2018 urtean %16,9). Beste horrenbeste gertatu da pobrezia larriaren kasuan: Espainian, 2012 urtean %9,6 izatetik, 2018 urtean %10,5 izatera pasa zen eta EB-28an %5,7tik, %6 izatera. Beraz, datu guztiek erakusten dutenez, pobrezia-maila desberdinen geldialdia gertatu den agertoki bat azaltzen dute.

Hala eta guztiz, 2014 eta 2018 urteen bitartean mantendu diren pobrezia-tasak ia-ia berberak izatea ez da gertatu diru-sarreraren beherakada baten ondorioz. Aitzitik, hobekuntza orokorra gertatu da, baina ez da era uniforme batean gertatu. 9. Taulan ikus daitekeen bezala, bitarteko taldearen diru-sarrerak (3. kintila) hein handiago batean hazi dira beste biztanleen aldean, eta horren ondorioz pobrezia-atalasea hazarazi egin da, eta haren azpitik geratu dira diru-sarreraren hazkuntza apalagoa izandakoak beheragoko kintiletan dauden etxebizitzak. Guztiarekin ere, kintilen arabera antzemandako diru-sarreraren bilakaeran izandako alde urri horiek oso garrantzitsuak dira 2014 eta 2018 urteen artean bildutako pobrezia larriko eta pobrezia erlatiboko datuetan.

9. Taula. Errentaren mediana baliokidearen bilakaera diru-sarreraren dezilen arabera. Gipuzkoa 2012-2018 (Euro/hileko)


	2012	2014	2018	Bilakaera 2014-2018 (%)
1. Kintila	714	733	779	%6,2
2. Kintila	1.060	1.117	1.190	%6,6
3. Kintila	1.401	1.421	1.537	%8,2
4. Kintila	1.787	1.794	1.911	%6,5
5. Kintila	2.355	2.460	2.622	%6,6
Guztizkoa	1.404	1.421	1.533	%7,9

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

¡Error! No se encuentra el origen de la referencia..
Taulan ikus daitekeen bezala, ezin da esan, beraz, gure lurraldean diru-sarreretan oinarritutako gizarte-desberdintasuna hazi denik. Aurretik azaldu den bezala, Gipuzkoako gizarte-desberdintasunaren maila Estatu osokoa eta EB-28 osatzen duten herrialdeetako baina apalagoa da, eta bilakaera egokia bizi izan du horren eskasa izandako abagune ekonomikoan. Giniren koefizientea 2012 urtean 27,2 izatetik, 2018 urtean 25,3 izatera pasa da, eta S80/S20 adierazlea 3,8ra murriztu da 2018 urtean, nahiz eta 2014 urtean lortutako balioa 4 izan.

Gizarte-desberdintasunaren oreka erlatiboa, hala eta guztiz, oso nabarmen antzeman daiteke hurrengo grafikoa, zeinak biztanleriaren kintilen arabera biltzen baitu guztizko diru-sarreraren banaketa. Grafiko honetan, kintiletan ordezkatzeko da biztanleria (tamaina bereko bost talde), eta kintil bakoitzari dagokion diru-sarreraren bera-riazko garrantzia agertzen da, etxebizitza gipuzkoar guztien guztizko diru-sarreraren arabera. Ikus daitekeen bezala, 2012 urtean, errenta gutxieneko gipuzkoar biztanleriaren %20k guztizko errentaren %9a zuen, eta errenta gehieneko %20k %34,2a eskuratzen zuen. Proporzio horiek, eta bitarteko tartekak, aldi honetan erkatuta mantendu dira.

5. Grafikoa. Guztizko diru-sarrera baliokideen bilakera, biztanleria-kintiletan. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

10. Taula. Biztanleriaren pobrezia eta gabezia materialari buruzko adierazle desberdinen banaketa-bilakaera, zenbait ezaugarri pertsonalen eta etxebizitzetako ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2012-2018

		Pobrezia monetarioa						Gabezia materiala eta bazterkeria			biztanleria osoa		
		Pobrezia larria			Pobrezia erlatiboa			2012	2014	2018	2012	2014	2018
		2012	2014	2018	2012	2014	2018						
Banaketa horizontala (%)													
Sexua	Gizonezkoa	4,5	5,1	4,8	16,7	14,0	15,5	5,0	5,2	6,8	100,0	100,0	100,0
	Emakumezkoa	4,2	5,7	5,8	16,9	17,2	17,3	5,3	5,2	7,0	100,0	100,0	100,0
Pertsona nagusien sexua	Gizonezkoa	3,9	5,0	4,8	15,3	13,4	15,2	4,2	4,2	6,0	100,0	100,0	100,0
	Emakumezkoa	5,7	6,7	6,9	22,0	22,9	20,2	8,4	8,4	9,5	100,0	100,0	100,0
Adina	<18	6,1	8,8	10,8	21,1	19,2	23,0	8,1	6,8	10,6	100,0	100,0	100,0
	18-44	4,6	6,8	5,5	16,0	15,5	17,4	5,7	6,3	8,2	100,0	100,0	100,0
	45-64	4,1	4,2	4,3	13,0	13,8	14,3	4,8	4,4	6,3	100,0	100,0	100,0
	65 eta gehiago	2,6	2,1	1,9	19,8	15,2	12,6	2,2	2,9	2,7	100,0	100,0	100,0
Pertsona nagusien adina	<45	5,1	9,1	8,8	19,1	16,2	23,8	9,0	8,0	12,1	100,0	100,0	100,0
	45-64	4,8	3,6	5,1	12,9	14,8	14,0	3,9	3,3	5,6	100,0	100,0	100,0
	65 eta gehiago	2,6	4,1	1,9	20,6	16,2	12,6	2,5	4,7	3,5	100,0	100,0	100,0
Nazionalitatea	Espainiarra	3,1	3,5	2,7	14,3	13,1	10,9	2,9	3,7	3,6	100,0	100,0	100,0
	Atzerritarra	21,0	33,4	25,4	50,7	52,1	58,8	35,1	26,4	32,3	100,0	100,0	100,0
Jaioterrria	EAE	2,7	3,7	2,8	14,0	12,6	10,9	2,9	3,6	3,5	100,0	100,0	100,0
	Estatuko beste lekuak	5,4	3,3	5,2	16,7	17,7	16,5	3,5	4,7	5,3	100,0	100,0	100,0
	Estatutik kanpokoa	19,2	29,1	23,4	47,1	46,6	55,2	32,6	24,0	32,6	100,0	100,0	100,0
	Pertsona bakarra	1,5	3,6	3,4	23,5	19,5	16,1	8,5	8,0	6,4	100,0	100,0	100,0
Familia multzoa	Seme-alaba gabeko bikotea	2,6	3,0	2,3	16,3	11,9	10,6	1,8	3,0	1,5	100,0	100,0	100,0
	Seme-alabaren bat duen bikotea	4,1	5,8	5,2	14,4	14,0	14,9	4,3	4,1	5,8	100,0	100,0	100,0
	Gurasobakarra	11,8	7,9	13,1	33,5	27,2	34,1	15,2	10,2	24,5	100,0	100,0	100,0
Jardueraren araberako erlazioa	Aktibo guztiak landunak	1,1	1,0	2,8	8,8	5,5	10,3	3,0	1,5	4,1	100,0	100,0	100,0
	Bi edo pertsona aktibo gehiagoko etxean behintzat aktiboa den batek lana izatea	5,0	9,6	17,5	19,4	34,9	41,4	8,0	9,7	20,5	100,0	100,0	100,0
	Ez dago lana duen pertsona aktiborik	33,8	40,2	35,2	66,1	67,0	69,8	22,1	37,1	38,5	100,0	100,0	100,0
	Ez dago pertsona aktiborik	2,5	5,0	2,7	21,7	18,8	16,0	2,9	2,9	4,3	100,0	100,0	100,0
Gutzikoa		4,3	5,4	5,3	16,8	15,6	16,4	5,2	5,2	6,9	100,0	100,0	100,0
Banaketa bertikala (%)													
Sexua	Gizonezkoa	50,2	46,0	44,5	48,4	43,8	46,3	47,5	48,7	48,9	48,7	48,8	49,0
	Emakumezkoa	49,8	54,0	55,5	51,6	56,2	53,7	52,5	51,3	51,1	51,3	51,2	51,0
Pertsona nagusien sexua	Gizonezkoa	70,2	71,4	68,5	70,6	66,0	70,1	63,4	76,8	78,9	77,5	76,8	75,7
	Emakumezkoa	29,8	28,6	31,5	29,4	34,0	29,9	36,6	23,2	21,1	22,5	23,2	24,3
Adina	<18	24,9	28,1	35,4	22,1	21,3	24,5	27,6	16,6	15,4	17,6	17,4	17,5
	18-44	37,2	42,4	32,8	33,1	33,9	33,5	38,3	30,9	29,8	34,9	34,0	31,6
	45-64	25,6	21,3	23,7	21,1	24,4	25,2	25,4	28,2	29,6	27,3	27,6	28,9
	65 eta gehiago	12,3	8,3	8,0	23,7	20,4	16,8	8,7	24,2	25,1	20,2	21,0	22,0
Pertsona nagusien adina	<45	37,4	52,2	47,4	36,2	32,5	41,2	55,4	27,4	23,4	31,9	31,3	28,5
	45-64	47,1	26,9	42,6	32,8	38,7	37,9	32,4	41,8	46,4	42,7	40,9	44,3
	65 eta gehiago	15,5	20,9	10,0	31,1	28,8	20,9	12,2	30,8	30,2	25,4	27,9	27,2
Nazionalitatea	Espainiarra	66,2	60,2	45,0	79,0	78,5	58,8	52,7	97,5	96,9	93,0	93,5	88,5
	Atzerritarra	33,8	39,8	55,0	21,0	21,5	41,2	47,3	2,5	3,1	7,0	6,5	11,5
	EAE	46,7	54,3	39,3	63,1	63,5	50,3	42,7	82,0	83,3	76,2	79,1	75,7
Jaioterrria	Estatuko beste lekuak	20,8	8,4	13,2	16,4	15,7	13,6	11,1	14,7	13,6	16,5	13,9	13,5
	Estatutik kanpokoa	32,5	37,3	47,5	20,4	20,8	36,1	46,2	3,3	3,1	7,3	7,0	10,7
	Pertsona bakarra	2,6	5,8	7,2	10,5	11,1	11,1	12,4	9,1	11,1	7,5	8,9	11,3
	Seme-alaba gabeko bikotea	11,7	10,7	8,9	18,5	14,9	13,5	6,5	22,7	23,6	19,1	19,5	20,9
Familia multzoa	Seme-alabaren bat duen bikotea	56,9	60,6	53,8	50,7	50,3	50,0	49,8	54,7	56,7	59,5	56,3	55,0
	Gurasobakarra	23,0	15,8	21,5	16,8	18,9	18,1	24,9	9,6	5,7	8,4	10,9	8,7
	Aktibo guztiak landunak	15,1	11,7	35,6	31,2	22,3	43,2	34,7	74,6	76,7	59,7	63,3	68,7
Jardueraren araberako erlazioa	Bi edo pertsona aktibo gehiagoko etxean behintzat aktiboa den batek lana izatea	18,7	21,0	28,3	18,5	26,6	21,6	24,9	4,1	1,2	16,0	11,9	8,6
	Ez dago lana duen pertsona aktiborik	56,5	50,9	26,4	28,3	29,5	16,9	30,9	0,5	0,3	7,2	6,9	4,0
	Ez dago pertsona aktiborik	9,7	16,4	9,7	21,9	21,6	18,3	9,4	20,8	21,7	17,0	17,9	18,8
Gutzikoa		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Biztanleria-talde desberdinentzako era berean gertatu al da egoeraren eboluzioa? **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taulan ikus daitekeen bezala, termino erlatiboetan, 45 urtez azpiko pertsonak buru dituzten etxebizitzek osatzen duten taldea izan da kalterik handiena jasan izandakoa (pobrezia erlatiboko tasa 2012 urtean %19,1 izatetik, 2018 urtean %23,8 izatera pasa da), baita atzeritar nazionalitatea duten pertsonen taldea ere, 2012 urteko pobrezia-tasa %50,7koa izanda ere, 2018 urtean %58,8 izatera pasa dena. Erabateko okupazio-maila ez duten etxebizitzetako diru-sarrera apaleko egoerak ere hazi egin dira (%8,8tik %10,3ra), baina biztanleria osoaren arabera izandako garrantzia erlatiboa ere nabarmen murriztu da, %16 izatetik %8,6ra pasata. Aitzitik, pobrezia erlatiboaren helmena 65 urtez azpiko biztanleen artean eta pertsona bakarren bizitegietan nabarmen beheratu omen da.

Gabezia material larriko egoerei dagokienez, kalterik gehien jasan izandako taldearen baitan daude pertsona aktibo guztiak langabezian dauden etxebizitzak (2012 urtean %22,1 eta 2018 urtean %38,5), eta gurasobakarrak osatutako etxebizitzak, izan ere, %15,2 izatetik %24,5 izatera pasa baita gabezia material larriaren tasa.

2.2.2. Bazterkeria-egoeren bilakaera

Denborari kontu hartzen dion ikuspegi bati jarraituz gero, GPGBik azaldutako biztanleriaren banaketarako gizareratze/bazterkeria eskalak azaltzen duenez, ez omen da 2014 eta 2018 urteen bitartean aldaketarik gertatu arlo honetako biztanleriaren banaketan, eta bazterkeria-mailaren hazkuntzarik garrantzitsuena (bazterketa moderatua eta larria elkar batuta) 2012 eta 2014 urteen bitartean gertatu zen, %11,8tik %13,8ra hazi zen garaikoa. Hazkuntza horiek ez dira leheneratu 2014 eta 2018 urteen bitartean. Edonola ere, hein bateko aldaketa gertatu da, oso apala izan arren, pobrezia larriko egoeretatik egoera moderatua bizitzera. Era honetan, 2014 urteko egoera horien prebalentziak gipuzkoar biztanleriaren %5,1k bizitzetik, egungo %4,7ko prebalentzia azaltzen du azken GPGBik.

FOESSA metodologiak aintzat hartzen dituen gizarte-bazterkeriaren dimentsio desberdinak aztertzean (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula), biztanleriaren proportziorik handienari eragiten dizkien alderdiak etxebizitza (%27,6), enplegua (%12,9) eta politika dira. Halaber, bilakaera-terminoetan, ardatz ekonomikoko (enplegua eta kontsumoa) izaerako egoeren murrizketa antzeman daiteke, baita alderdi sozialei eta harremanei dagozkien adierazleen okerreko joera. Zehatzago esanda, etxebizitza-arloko bazterkeria-egoerek kaltetutako biztanleen hazkuntza konstante bat nabarmentzen da, 2014 urtean %24,2 izatetik, 2018 urtean %27,6 izatera pasa dena. Gainera, politika-bazterkeria egoeren hazkunde nabarmen eta progresibo bat antzeman daiteke, %7,5 izatetik %11,9 izatera pasa dena aldi horretan; eta osasun-arloko bazterkeria-egoeren hazkunde moderatua. Horretaz gain, prebalen-

tzia oso baxua izan arren, gizarteko bakartasun-egoeren hazkunde azpimarragarri bat nabarmentzen da.

11. Taula. Gizarte-bazterketaren dimentsio desberdinegatik kaltetutako pertsonen proportzioaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018


	2012	2014	2018	Bilakaera 2014-18
Enplegu-bazterkeria	19,2	13,2	12,9	▼
Kontsumo-bazterkeria	1,8	2,4	1,5	▼
Politika-bazterkeria	7,5	10,3	11,9	▲
Hezkuntza-bazterkeria	2,6	1,6	1,1	▼
Bizitegi-bazterkeria	24,2	26,5	27,6	▲
Osasun-bazterkeria	6,2	5,7	6,5	▲
Gizarte-gatazka	3,9	3,9	4,1	▲
Gizarte-isolamendua	0,8	0,8	2,0	▲

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Dimentsio bakoitzean era banatuan jasotako gizarte-bazterkeriaren eraginaz kanpo, azken bost urteotan, hazi egin al da askotariko dimentsioek kaltetutako biztanleria?

Ondoko grafikoa azaltzen denez, bazterkeria-egoerek kaltetu gabekoen biztanleriaren ehunekoa berean mantendu da, eta dimentsio horietako baten eragina duen biztanleriaren ehunekoa arinki murriztu. 2014 urtetik, bi edo bazterkeria-egoera gehiagok kaltetutako biztanleen portzentajea biztanleria osoaren %13 izatetik, %15,8 izatera pasa da. Ez da hazkuntza handia, baina dimentsio anitzeko izaerako kalteak jasandako biztanleen zenbatekoa arinki hazi dela erakusten du. Horretaz gain, nolana ere, hazkuntza horren eragin gehiena bazterkeriaren bi dimentsioek eragindako biztanleriaren artean gertatu da gehienbat -%7,9 izatetik %9,9 izatera pasa dena-, eta bazterkeria-egoera batek baino gehiagok kaltetutako kolektiboaren artean talde nagusia osatzen du.

6. Grafikoa. Gizarte-bazterketaren dimentsio desberdinei buruzko arazoaren presentziaren ehunekoa banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

12. Taula. Gizarte-bazterketari buruzko adierazle nagusien bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

		Pertsonak					Etxebizitzak				
		2012	2014	2018	Bilakaera 2014-2018		2012	2014	2018	Bilakaera 2014-2018	
					Aldea	Bilak.				Aldea	Bilak.
FOESSA adierazleak	Erabateko gizarteratzea	58,4	56,8	56,9	0,1	=	57,7	57,5	58,0	0,5	▲
	Gizarteratze prekarioa	29,7	29,7	29,3	-0,4	▼	29,9	28,9	28,6	-0,3	▼
	Bazterkeria moderatua	7,0	8,3	9,1	0,8	▲	7,1	8,3	8,1	-0,2	▼
	Bazterkeria larria	4,8	5,1	4,7	-0,4	▼	5,3	5,3	5,3	0,0	=
	Gutzizkoa	100,0	100,0	100,0			100,0	100,0	100,0		
	<i>Bazterkeria moderatua edo larria</i>	<i>11,8</i>	<i>13,4</i>	<i>13,8</i>			<i>12,4</i>	<i>13,6</i>	<i>13,4</i>		

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Aurreko datuak aintzat hartuta, ezin da baieztatu gizarte-bazterketa eta gizarteratzearen arteko eskalan aldaketa handirik gertatu denik gipuzkoar biztanleen eta/edo haien etxebizitzaren artean. Biztanleak ardatz hartuz gero, 2014 eta 2018 urteen bitartean, ez da ia aldatu erabateko gizarteratzea eta gizarteratze prekarioaren maila, hau da, 2012 urtean biztanleriaren %88,1 ordezkatetik, 2018 urtean %86,2 izatera pasa da, oro har. Oso murrizketa apala izan da, inkesta honetako errore-marjina baino pixka bat altuagoa dena. Aldi berean, muturreko bazterketa-egoeren hein bateko murrizketa gertatu da, %4,8tik %4,7 izatera pasa dena. Alderik nabarmenena gizarteratze prekarioko biztanleriaren hazkuntzean gertatzen da, bai biztanleriaren bai etxebizitzaren ikuspegitik.

Gizarteratzetik erabateko bazterkeriara daraman eskalan izandako biztanleriaren banaketaren bilakaeraz gain, 13. Taulan prebalentziaren bilakaera azaltzen da, bai biztanleria osorako, bai bazterkeria-indize sintetikoa lortzeko adierazle guztietarako. Taulan bildutako datuen arabera, 2012 eta 2018 urteen bitartean, era erlatiboki nabarmen batean murriztu da urtebete baino gehiagoko langabezia pairatu izandako erreferentziako pertsonen ehunekoa, lanerako prestakuntza gabeko etxebizitzaren

ehunekoa, ikasketa gabeko 16-64 urte bitarteko pertsonen etxebizitzaren ehunekoa eta arkitektura-oztopoak dituzten etxeak. Aitzitik, Gipuzkoan gehien hazi izandako gabezia-egoerak ondokoak izan dira: etxebizitzako pertsona nagusiak kontraturik ez dutenen kasuak -%0,3 izatetik %1,8 izatera pasa da, ziurrenik enpleguaren hazkundeagatik, baita kalitate txarrekoagatik ere-, komunitarioa ez den nazionalitateko pertsonak bizi diren etxebizitzak, hezetasan-arazoak dituztenak eta gehiegizko gastua egiten dutenak.

Azkenik, 14. Taulan gizarteratze- eta bazterkeria-egoeren bilakaera zehazten da, azterlan honetarako erabili izandako oinarriko adierazle soziodemografi-koen arabera. Taula honetako datuek erakusten dutenez, gizarte-bazterketa hein handiagoan hazi da ondoko talde hauetan: gizonezko bat edo 45 urtez azpiko pertsona bat buru duten etxebizitzetan, 18 urtez azpiko adingabeko pertsonetan eta lan-merkatuan aktibo dauden pertsonen osatutako etxebizitzetan. Gizarte-bazterketako egoeran dagoen kolektiboaren osakerari dagokionez, hein handiagoko garrantzia hartu duten profilak ondoko hauek dira: 18 urtez azpiko adingabeak, 64 urte baino gehiagoko pertsona nagusiak dituzten etxebizitzak, landunak dituzten etxebizitzak eta aktibo ez dauden pertsonak bakarrik bizi diren etxebizitzak.

13. Taula. Gizarte-bazterketari buruzko FOESSA adierazleen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018
(Biztanleria osoaren araberrako ehunekoak)

	2012	2014	2018		2012	2014	2018
1. Pertsona nagusia urtebete edo gehiagoko langabezia	5,4	3,4	2,4	19. Ingurune eskastuan dauden etxebizitzak	1,5	1,7	0,5
2. Kontraturik gabeko enplegua duen pertsona nagusia	0,3	0,3	1,8	20. Oztopo arkitektonikoak dituzten etxebizitzak	8,9	5,0	7,4
3. Gizarte-segurantzarik gabeko enplegua duen pertsona nagusia	1,3	0,7	0,7	21. Gehiegizko gastuko etxebizitzak	5,6	5,7	6,7
4. Pertsona landunik eta kotizatutako pentsiorik ez duten pertsonarik gabeko etxebizitzak	2,9	3,8	3,2	22. Osasun-estaldurarik gabeko kideren bat duten etxebizitzak	0,5	0,1	0,0
5. Lanerako prestakuntzarik gabeko langabetuak bizi diren etxebizitzak	15,9	9,7	8,9	23. Goseak egoten dira edo egon dira	0,9	1,1	0,4
6. Pertsona aktibo guztiak langabezia dauden pertsonen etxebizitzak	1,0	1,6	0,8	24. Kide guztiak ezgaitasun-, gaixotasun- edo mendekotasun-egoeran	1,3	1,2	2,0
7. Muturreko pobrezia-egoera bizi duten etxebizitzak (%30)	1,7	2,4	1,4	25. Laguntzarik jaso gabeko mendekotasun-egoeran dauden pertsonak dituzten etxebizitzak	0,1	0,2	0,3
8. Oinarriko ondasunen baten gabezia duten etxebizitzak	0,3	0,0	0,1	26. Medikura joaten ez diren pertsonak dauzkaten etxebizitzak	0,6	0,4	0,2
9. +18ko atzerritar ez komunitarioak bizi diren etxebizitzak	4,2	4,1	8,1	27. Farmaziako/elikadurarako gastua murriztu behar izan duten etxebizitzak	3,9	3,6	4,2
10. Hauteskundeetan/elkarteetan parte-hartzen zuten etxebizitzak	3,4	6,6	4,3	28. Norbaitek tratu txarrak jasotzen ditu edo jaso ditu	1,2	0,7	1,3
11. Eskolatu gabeko 3-15 urte bitarteko pertsonak bizi diren etxebizitzak	0,1	0,3	0,1	29. Kideen arteko harreman txarrak dauzkaten etxebizitzak	0,7	1,5	0,8
12. Ikasketa gabeko 16-64 urte bitarteko pertsonak bizi diren etxebizitzak	2,0	0,9	0,7	30. Adikzio-arazoak dituzten etxebizitzak	2,0	1,9	2,1
13. +65eko pertsona analfabeto bat bizi den etxebizitzak	0,5	0,5	0,3	31. Bikoterik gabeko ama nerabea bizi den etxebizitzak	0,0	0,3	0,2
14. Infraerretako etxebizitzak	--	--	--	32. Epaitegiekin arazoak dituzten etxebizitzak	0,8	0,4	0,6
15. Gabezia larriak dituzten etxebizitzak	2,9	2,8	2,4	33. Sostengu gabeko pertsonak bizi diren etxebizitzak	0,5	0,5	0,8
16. Hezetasan-arazoak dituzten etxebizitzak	9,1	13,2	13,3	34. Bizilagunekin oso harreman txarra duten etxebizitzak	0,3	0,4	1,2
17. Pilaleta larria (<15 m ² erabilgarri pertsona bakoitzeko).	5,1	4,9	4,7	35. Instituzioetan hartutako pertsonak dauden etxebizitzak	--	--	--
18. Etxebizitza-edukitze prekarioa	0,1	0,2	0,7	Gutzizkoa	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

14. Taula. Gizarteratze-mailaren banaketa-bilakaera, pertsonen eta etxebizitzien ezaugarri desberdinen arabera. Gipuzkoa 2012-2018

		Erabateko gizarteratzea			Gizarteratze prekarioa			Bazterkeria moderatua eta larria			Gutzizkoa		
		2012	2014	2018	2012	2014	2018	2012	2014	2018	2012	2014	2018
Banaketa horizontala (%)													
Sexua	Gizonezkoa	57,2	56,6	56,9	30,5	30,1	30,2	12,3	13,2	13,0	100,0	100,0	100,0
	Emakumezkoa	59,6	57,0	57,0	29,0	29,4	28,5	11,4	13,6	14,5	100,0	100,0	100,0
Pertsona nagusiarren sexua	Gizonezkoa	60,3	56,8	59,3	30,3	30,3	28,0	9,4	13,0	12,7	100,0	100,0	100,0
	Emakumezkoa	52,0	57,0	49,5	27,7	28,1	33,3	20,3	14,9	17,2	100,0	100,0	100,0
Adina	<18	63,9	54,5	50,3	24,8	32,1	32,2	11,3	13,5	17,4	100,0	100,0	100,0
	18-44	52,8	51,6	53,8	33,9	32,1	32,6	13,2	16,2	13,6	100,0	100,0	100,0
	45-64	57,6	58,1	58,2	31,0	28,4	27,8	11,4	13,5	14,0	100,0	100,0	100,0
	65 eta gehiago	64,4	65,5	65,1	25,1	25,8	24,2	10,5	8,7	10,8	100,0	100,0	100,0
Pertsona nagusiarren adina	<45	56,8	49,9	46,9	30,6	33,7	33,2	12,6	16,4	19,9	100,0	100,0	100,0
	45-64	58,2	58,1	59,6	30,4	29,0	29,7	11,4	13,0	10,8	100,0	100,0	100,0
	65 eta gehiago	60,9	62,8	63,2	27,5	26,5	24,6	11,6	10,7	12,1	100,0	100,0	100,0
Nazionalitatea	Espainiarra	61,8	59,2	62,4	29,4	29,6	27,9	8,8	11,1	9,7	100,0	100,0	100,0
	Atzerritarra	13,1	22,1	15,3	34,1	31,5	39,7	52,8	46,4	44,9	100,0	100,0	100,0
	EAE	63,1	58,9	62,6	29,3	29,9	28,2	7,6	11,2	9,2	100,0	100,0	100,0
Jaioterrria	Estatuko beste lekuak	55,8	60,1	57,3	29,6	28,3	26,7	14,6	11,6	15,9	100,0	100,0	100,0
	Estatutik kanpokoa	15,5	27,2	16,6	34,8	31,0	40,5	49,6	41,8	42,9	100,0	100,0	100,0
Familia multzoa	Pertsona bakarra	55,0	58,1	56,0	28,5	24,5	29,9	16,6	17,4	14,1	100,0	100,0	100,0
	Seme-alaba gabeko bikotea	61,6	66,3	64,5	28,2	24,9	25,7	10,3	8,8	9,8	100,0	100,0	100,0
	Seme-alabaren bat duen bikotea	60,8	55,2	58,7	30,2	32,0	30,1	9,1	12,7	11,2	100,0	100,0	100,0
	Gurasobakarra	47,4	50,3	37,4	27,0	30,2	30,2	25,6	19,5	32,4	100,0	100,0	100,0
Jarduera-araberrako erlazioa	Aktibo guztiak landunak	73,1	67,0	63,6	20,8	25,4	27,6	6,2	7,5	8,8	100,0	100,0	100,0
	Bi edo pertsona aktibo gehiagoko etxean behintzat aktiboa den batek lana izatea	17,8	19,7	8,2	63,4	56,4	61,6	18,8	23,9	30,2	100,0	100,0	100,0
	Ez dago lana duen pertsona aktiborik	5,9	4,0	4,6	45,1	36,6	29,8	49,0	59,4	65,6	100,0	100,0	100,0
	Ez dago pertsona aktiborik	67,6	65,8	65,9	22,9	24,7	20,7	9,4	9,5	13,4	100,0	100,0	100,0
Gutzizkoa		58,4	56,8	56,9	29,7	29,7	29,3	11,8	13,4	13,8	100,0	100,0	100,0
Banaketa bertikala (%)													
Sexua	Gizonezkoa	47,7	48,7	48,9	50,0	49,5	50,5	50,8	48,1	46,2	48,7	48,8	49,0
	Emakumezkoa	52,3	51,3	51,1	50,0	50,5	49,5	49,2	51,9	53,8	51,3	51,2	51,0
Pertsona nagusiarren sexua	Gizonezkoa	80,0	76,8	78,9	79,1	78,1	72,4	61,4	74,3	69,7	77,5	76,8	75,7
	Emakumezkoa	20,0	23,2	21,1	20,9	21,9	27,6	38,6	25,7	30,3	22,5	23,2	24,3
Adina	<18	19,3	16,6	15,4	14,7	18,7	19,2	16,8	17,4	22,1	17,6	17,4	17,5
	18-44	31,5	30,9	29,8	39,8	36,8	35,2	39,1	41,2	31,2	34,9	34,0	31,6
	45-64	26,9	28,2	29,6	28,5	26,3	27,5	26,3	27,7	29,4	27,3	27,6	28,9
	65 eta gehiago	22,3	24,2	25,1	17,1	18,2	18,1	17,8	13,6	17,2	20,2	21,0	22,0
Pertsona nagusiarren adina	<45	31,1	27,4	23,4	32,9	35,4	32,2	34,0	38,3	41,3	31,9	31,3	28,5
	45-64	42,5	41,8	46,4	43,7	39,8	44,9	41,2	39,5	34,7	42,7	40,9	44,3
65 eta gehiago	26,4	30,8	30,2	23,5	24,8	22,8	24,8	22,2	24,0	25,4	27,9	27,2	
Nazionalitatea	Espainiarra	98,4	97,5	96,9	92,0	93,2	84,4	68,9	77,7	62,4	93,0	93,5	88,5
	Atzerritarra	1,6	2,5	3,1	8,0	6,8	15,6	31,1	22,3	37,6	7,0	6,5	11,5
	EAE	82,3	82,0	83,3	75,0	79,5	72,8	48,9	66,3	50,8	76,2	79,1	75,7
Jaioterrria	Estatuko beste lekuak	15,8	14,7	13,6	16,5	13,2	12,3	20,4	12,0	15,7	16,5	13,9	13,5
	Estatutik kanpokoa	1,9	3,3	3,1	8,6	7,3	14,9	30,7	21,7	33,5	7,3	7,0	10,7
Familia multzoa	Pertsona bakarra	7,1	9,1	11,1	7,2	7,3	11,5	10,5	11,5	11,6	7,5	8,9	11,3
	Seme-alaba gabeko bikotea	20,1	22,7	23,6	18,1	16,3	18,3	16,6	12,8	14,9	19,1	19,5	20,9
	Seme-alabaren bat duen bikotea	61,8	54,7	56,7	60,3	60,6	56,4	45,7	53,5	44,8	59,5	56,3	55,0
	Gurasobakarra	6,8	9,6	5,7	7,7	11,1	9,0	18,3	15,8	20,6	8,4	10,9	8,7
Jarduera-araberrako erlazioa	Aktibo guztiak landunak	74,7	74,6	76,7	41,7	54,1	64,6	31,1	35,6	43,9	59,7	63,3	68,7
	Bi edo pertsona aktibo gehiagoko etxean behintzat aktiboa den batek lana izatea	4,9	4,1	1,2	34,2	22,6	18,1	25,4	21,2	18,8	16,0	11,9	8,6
	Ez dago lana duen pertsona aktiborik	0,7	0,5	0,3	11,0	8,5	4,0	29,9	30,5	19,0	7,2	6,9	4,0
	Ez dago pertsona aktiborik	19,7	20,8	21,7	13,1	14,9	13,3	13,6	12,7	18,3	17,0	17,9	18,8
Gutzizkoa		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

3. ATALA

GIPUZKOAKO POBREZIA, GIZARTE BAZTERKETA ETA
BIZI BALDINTZAK

3. Gipuzkoako pobrezia, bazterketa eta bizi-baldintzak

Atal honetako helburu nagusia biztanleria gipuzkoar osoaren bizi-baldintzak eta ongizatea aztertzea da gizartearen dimentsio edo eremu desberdinetan. Hori lortzeko, ongizatearen eremu nagusiekin harremana duten zenbait adierazle hautatu dira, adibidez: hezkuntza, osasuna, lan-merkatua, etxebizitza, etxeko ekonomia, gizarte-harremanak, eta hiritar- eta gizarte-partaidetza.

Bildutako informazio guztia oinarri hartuta, atal honetako helburuak bi dira. Alde batetik, herritar gipuzkoarrek arlo horietako bakoitzean bizi duten egoera aztertu nahi da, oinarritzko ezaugarri soziodemografiko desberdinen arabera dauden gizarte-desberdintasunak identifikatzen diren bitartean, adibidez, funtsezko diren ondoko hauek: sexua, adina, nazionalitatea edo jaioterria. Bestalde, aurretiko atalean pobrezia monetarioa eta gizarte-bazterketa neurtzeko erabili izandako adierazleak erreferentzia gisara hartuta, aldagai horiek biztanleria gipuzkoarraren bizi-baldintzekin zein neurriraino harremana duten ezagutu nahi da. Beste modu batean esanda, pobrezia- eta bazterkeria-egoerek biztanleriaren bizi-baldintzetan eta ongizatean zenbaterainoko eragina duten ezagutu nahi da.

Pobrezia monetarioko eta gizarte-bazterketako prozesuak aztertzeko erabili izan diren aldagai nagusiak ondoko hauek izan dira:

- pobrezia erlatiboko edo diru-sarrera apalei buruzko tasa, hau da, errenta medianaren baliokidearen %60tik beherako errenta duten etxebizitzetako pertsonen proportzioa. Gehigarri gisara, pobrezia larraren tasa erabili da (<%40), baita diru-sarrera baliokideen kintilen arabera banaketa ere.
- gizarte-bazterketaren tasa, FOESSA Fundazioak garatutako bazterkeria-indizetik hartutakoa, eta lau maila hartzen dituena: erabateko gizarteratzea, gizarteratze prekarioa, bazterkeria moderatua eta bazterkeria larria.

Bi muga metodologiko garrantzitsu aintzat hartu behar dira emaitzak interpretatzerakoan. Alde batetik, Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta (GPGBI) ez da atal honetan aztertzen diren osagaietan berariaz zehaztutako operazio bat, beraz, ezin da oso zehatz aztertu atal honetan analizatutako zenbait alderdi.

Halaber, aztergai hartutako gaien artean nolabaiteko alborapenaren presentzia kontuan hartu behar da, izan ere, GPGBI pobrezia- eta bazterkeria-egoeretan zentratutako operazioa baita eta, gehienbat, egoera horiekin aurretiko zerikusia duten gaiak aztertzen dira. Are gehiago, adierazle horiek osatzeko aintzat hartu izandako gaiak dira kasu batzuetan. Bestetik, laginaren tamainarengatik eta pobrezia- eta bazterkeria-egoeren presentzia mugatuagatik, azterlanak dituen mugak berriz ere nabarmendu behar dira, zeinak ez baitu uzten oso zehatzak diren problematikak aztertzean lortutako emaitzen azterketa xeheagoa eta zehatzagoa lortzea.

3.1. Hezkuntza-maila, prestakuntza eta hizkuntzen ezagutza

3.1.1. Hezkuntza-maila

GPGBI erakusten duenez, 2018 urteko 25 eta urte gehiagoko biztanleria gipuzkoarrak lortutako hezkuntza-maila ondoko moduan banatzen da: %43,1k lehen-mailako ikasketak bakarrik lortu ditu, %32k bigarren-mailako ikasketak, eta %24,9k unibertsitate-ikasketak ditu⁷. Bilakaera-ikuspegi batetik oso datu baikorrak izan arren (orain dela 30 urte, ikasketak gabeko edo lehen-mailako ikasketak zituen pertsonen proportzioa %74koa zen⁸), baina ikuspegi konparatibo batetik ezkorragoa da EB-28k osotasunean azaldutakoaren aldean⁹, non 18 urte eta gehiagoko ikasketak gabeko edo lehen-mailako ikasketak dituen pertsonen ehunekoa %29,3koa eta bigarren-mailako ikasketak dituztenen ehunekoa %44,9 izatera heltzen baita. Edonola ere, unibertsitate-ikasketetan oreka moduko bat gertatzen dela nabarmendu behar da (%25,8 EB-28ko lurraldeen artean).

⁷ Eustaten Hezkuntzaren udal-estatistikaren 2016 urteko datuen arabera, Gipuzkoak jasotako datuak tankerakoak izan ziren. Operazio honen arabera, 25 urte eta gehiagoko pertsona guztietatik %39,1k lehen-mailako ikasketak ditu, %36,3k bigarren-mailakoak eta profesionalak, eta %24,6k unibertsitate-ikasketak ditu.

⁸ Eustat (1986) Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda. 25 urte eta gehiagoko biztanleen datuak.

⁹ Eurostat (2018) [EU-SILC](#).

15. Taula. 25 urte eta gehiagoko biztanleriaren ikasmilaren banaketa, adierazle desberdinen arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)			Banaketa bertikala (%)			Gutzizkoa
		Ikasketa gabea edo lehen-mailako ikasketak	Bigarren-mailako ikasketak	Unibertsitate-ikasketak	Ikasketa gabea edo lehen-mailako ikasketak	Bigarren-mailako ikasketak	Unibertsitate-ikasketak	
Adina*	25-34	21,3	37,3	41,4	6,5	15,4	21,9	13,2
	35-44	24,0	41,8	34,2	11,3	26,4	27,8	20,2
	45-54	32,0	42,2	25,8	15,1	26,8	21,1	20,3
	55-64	40,8	33,1	26,1	16,6	18,1	18,4	17,5
	65-74	65,6	22,3	12,1	22,9	10,5	7,3	15,0
	75 eta gehiago	87,1	6,6	6,3	27,7	2,8	3,5	13,7
Sexua eta adina*	Gizonezkoa 25-54	29,2	44,9	26,0	56,4	56,0	40,4	51,0
	Emakumezkoa 25-54	23,4	36,6	39,9	43,6	44,0	59,6	49,0
	Gizonezkoa 55 eta gehiago	54,3	28,3	17,5	39,4	59,3	50,7	45,5
	Emakumezkoa 55 eta gehiago	69,6	16,2	14,2	60,6	40,7	49,3	54,5
Nazionalitatea*	Espainiarra 25-54	20,7	42,0	37,3	65,3	85,6	94,5	83,2
	Atzerritarra 25-54	54,4	34,9	10,7	34,7	14,4	5,5	16,8
Etxebizitzako diru-sarrera balioak kintiletan*	1. kintila	64,8	26,9	8,3	27,3	15,3	6,1	18,2
	2. kintila	58,0	32,4	9,6	26,7	20,1	7,6	19,8
	3. kintila	49,4	34,1	16,5	23,3	21,7	13,5	20,4
	4. kintila	28,6	38,5	32,9	13,0	23,6	25,9	19,6
	5. kintila	19,0	28,0	53,1	9,7	19,2	46,8	22,0
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	66,3	25,6	8,0	22,6	11,8	4,7	14,7
	Gabezia	39,1	33,1	27,8	77,4	88,2	95,3	85,3
Gizarteratze-maila*	Bazterkeria larria	64,8	26,8	8,4	7,2	4,0	1,6	4,8
	Bazterkeria moderatua	56,9	32,5	10,7	10,8	8,3	3,5	8,2
	Gizarteratze prekariora	45,0	31,5	23,5	30,0	28,3	27,2	28,7
	Erabateko gizarteratzea	38,5	32,6	28,9	52,1	59,4	67,7	58,3
Gutzizkoa		43,1	32,0	24,9	100,0	100,0	100,0	100,0

*p<0.01 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Hezkuntza-maila adinarekin eta sexuarekin modu berezi batean erlazionatua dago. Hain zuzen ere, adina baka-rrik aintzat hartuz gero, adinean gora egiten den heinean hazi egiten da ikasketa-maila apaleko biztanleria; unibertsitate-ikasketak dituen, berriz, beheratu egiten da. Hala ere, adina eta sexua elkarrekin kontuan hartuz gero, genero-desberdintasunak gehitzen zaizkie belau-naldien arteko aldeei. Era honetan, 55 urte eta gehiagoko pertsonen artean ikasketa-maila apalagoa hein handiagoan emakumeak izaten dute (%69,6k lehen-mailako ikasketak ditu, gizonen %54,3ko ehunekoaren aldean), baina 25 eta 54 urte bitarteko emakumeen artean ikasketa unibertsitarioak dituztenen proportzioa (%39,9) gizonena baino askoz altuagoa da (%26).

Orokorki, atzerritar nazionalitatea duten pertsonen konparazioan apalagoa den ikasketa-maila izaten dute. 25 eta 54 urte bitarteko biztanleria aintzat hartzean¹⁰, gehienez ere lehen-mailako ikasketak dituen pertsona atzerritarren proportzioa %54,4koa da; eta atzerritar ez den biztanleriaren artean, berriz, hamar biztanletik bik dute prestakuntza-maila baxua. Bigarren-mailako eta ikasketak profesionalei dagokienez, ikasketak betetako biztanle atzerritarren proportzioa apalagoa da atzerritar ez diren biztanleen aldean (%34,9koa da, %42aren aldean).

¹⁰ Adin handieneko biztanleria alboratu egiten da, atzerritar nazionalitateko biztanle oso gutxi baitira, era honetan, atzerritar ez diren ikasmilla apaleko biztanleek duten berriazko garrantziak zerikusirik izan ez dezan.

Hezkuntza-mailaren eta sexua eta adinaren arteko erlazio argia nabarmentzeaz gain, biztanleriaren prestakuntza-maila hertsiki lotzen da diru-sarreraren mailarekin, pobreziarekin eta gizarteratze-mailarekin. Enplegurako lehiakortasuna mugatu dezake prestakuntza desegoki bat izateak, eta horren ondorioz, lan-bazterkeria bizitzeko arriskua hazi egiten da. GPGBIko datuen arabera, ikasketa gabeko edo lehen-mailako ikasketak dituen biztanleriaren proportzioa gradualki hazten da etxebizitzako diru-sarrera balioak kintiletan maila beheratzen den heinean. Aitzitik, goi-mailako ikasketak dituen pertsonen proportzioa hazi egiten da etxebizitzako diru-sarreraren maila hazten den heinean. Berez, ikasketa unibertsitarioak dituen biztanleriaren ia erdia etxebizitza aberatsenei dagokien kintilean kokatzen da (5. Kintila); aldiz, lehen-mailako edo ikasketarik ez duen biztanleriaren %54 etxebizitza pobreenetako bi kintiletan kokatzen da (1 eta 2. Kintilak).

Pobrezia erlatiboko egoeran dagoen Gipuzkoako biztanleen artean, %66,3k lehen-mailako edo apalagoak diren ikasketak ditu, biztanleria orokorraren datu hori %43,1 den bitartean. Bazterkeria-egoera batean dauden pertsonen kasuan (bai moderatua bai larria) biztanleria orokorraren arabera aldeak nabarmentzen dira. Hain zuzen ere, bazterkeria larriko egoera pairatzen duen biztanleriaren %64,8k oinarritzko hezkuntza-maila du edo ez du ikasketarik osatu. Ehuneko hori altua da bazterkeria moderatuko egoera pairatzen duen biztanleriaren kasuan, egoera horretan aurkitzen den biztanleriaren %56,9ra iristen dena.

3.1.2. Uneko ikasketak eta prestakuntza-jardueretako parte-hartzea

25 urte edo gehiagoko biztanleriaren gehieneko ikasketak-maila neurri erabilgarria gertatzen da ikasle ez den biztanleriaren gaitasun edo egokitasun profesionala aztertzeko. Gaur egun, hala ere, lan-bizitza profesionalan zeharreko prestakuntza-prozesuek garrantzia nabarmena hartu dute. Horren ondorioz, atal honetan gai hori neurtzen saiatzen diren emaitzak aurkezten dira.

¡Error! No se encuentra el origen de la referencia..

Taulan ikasketa motaren bat (formala edo ez) edota gaitasun profesionala hobetzeko prestakuntza-jardueraren bat egiten duten 24 urtetik gorako pertsona guztiak identifikatzen saiatzen den adierazlearen emaitzak aurkezten dira.

2018 urterako GPGBIk azaltzen duenez, Gipuzkoako 25 urte eta gehiagoko hamar pertsonetatik batek ikasketa motaren bat edo prestakuntza-jardueraren bat bete du 2018/2018ko ikasturte akademikoan (%10,6). Proporzio hori beheratu egin da 2014ko boladan jasotakoaren aldean (%15,0). Ondoren ikus daitekeen bezala, lan-egoera oso lotuta dago prestakuntza-jardueretako parte-hartzearekin, bereziki langabezia dagoen biztanleriaren artean. Azken urteotako egoera ekonomikoaren hobekuntzak eta langabezia-tasetan

ezagututako beherakadek azal dezakete antzeman izandako beherapena.

25 urte baino gehiago izanda prestakuntzan aritzen diren lagunetatik %48k –58.000 pertsona inguru– enpresak sustatutako prestakuntza-ikastaroak egin ditu; %9,7k Lanbidek, Enplegu Tailerrek edo tankerakoek langabezia dauden pertsonen bideratutakoak. Gainera, %21,3k bestelako ikastaroren bat egin du (oposaketak prestatu, hizkuntzak, informatika, etab.) 2017/2018 ikasturtean prestakuntza profesionala hobetzeko; eta %32,2k hezkuntzako maila desberdinak bete ditu eta masterrak edo unibertsitate-doktorego programak osatu ditu.

¡Error! No se encuentra el origen de la referencia..

Taulan ikus daitekeen bezala, eta hori pentsatzea logikoa denez, prestakuntza-jarduerak betetzen dituzten pertsonetatik asko gazteak dira (haietatik %64,2k 45 urte baino gutxiago ditu). Aurretik aipatu den bezala, prestakuntza-jarduerak betetzen dituen biztanleria langabeziaren proportzioa nabarmen altuagoa da. Izan ere, 2018 urtean, langabezia egondako lau lagunetik batek prestakuntza-jarduerak bete baititu (% 25,7).

Ikasketa motaren batean ari diren pertsonak gehiago izaten dira pertsona landunen artean (%14,), biztanleria osoaren proportzioan erregistratutakoaren aldean (%10,6). Halaber, proportzio hori 25 urtetik 54 urtera bitarteko espainiar nazionalitate dutenen artean ere altuagoa da (%18,4). Gai hau aztertzean ez da ageri sexuaren arabera alde estatistiko nabarmenik; ezta pobrezia- nahiz bazterkeria-mailari dagokienik ere.

16. Taula. Ikasketa motaren bat edo prestakuntza-jardueretan ari den 25 urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, aldagai desberdinen arabera. Gipuzkoa 2018


		Banaketa horizontala (%)			Banaketa bertikala (%)		
		Prestakuntza-jarduerak betetzen ditu	Ez du betetzen prestakuntza-jarduerarik	Gutzikoa	Prestakuntza-jarduerak betetzen ditu	Ez du betetzen prestakuntza-jarduerarik	Gutzikoa
Sexua	Gizonezkoa	10,0	90,0	100,0	45,4	48,8	48,5
	Emakumezkoa	11,2	88,8	100,0	54,6	51,2	51,5
Adina*	25-34	24,5	75,5	100,0	30,4	11,1	13,2
	35-44	17,7	82,3	100,0	33,8	18,6	20,2
	45-54	11,9	88,1	100,0	22,8	20,0	20,3
	55-64	6,5	93,5	100,0	10,8	18,3	17,5
	65 eta gehiago	0,8	99,2	100,0	2,3	31,9	28,8
Nazionalitatea*	Espainiarra 25-54	18,4	81,6	100,0	89,1	81,9	83,2
	Atzerritarra 25-54	11,1	88,9	100,0	10,9	18,1	16,8
Jarduera ordainduaren araberrako erlazioa*	Landuna	14,3	85,7	100,0	74,8	53,1	55,4
	Langabea	25,7	74,3	100,0	14,4	5,0	6,0
	Ikaslea	100,0	0,0	100,0	6,6	0,0	0,7
	Ez aktiboa	1,2	98,8	100,0	4,2	41,9	37,9
Pobrezia erlatiboa	Presentzia	10,9	89,1	100,0	15,1	14,6	14,7
	Gabezia	10,6	89,4	100,0	84,9	85,4	85,3
Gizarteratze-maila	Erabateko gizarteratzea	11,4	88,6	100,0	5,1	4,7	4,8
	Gizarteratze prekariora	11,2	88,8	100,0	8,7	8,1	8,2
	Bazterkeria moderatua	8,7	91,3	100,0	23,5	29,4	28,7
	Bazterkeria larria	11,4	88,6	100,0	62,7	57,8	58,3
Gutzikoa		10,6	89,4	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

GPGBIren datuen arabera, 2018 urtean 15 eta 29 urte bitarteko 9.000 gazte langabezian zeuden eta ez zuten inolako prestakuntza-jarduerarik betetzen. Egoera horren eraginak adin-bitarte horretako gazteetatik %9,0k pairatzen ditu. Bilakaera-datuek beherako joera azaltzen dute, izan ere, egoera horretan dauden gazteen tasa 2012 urtean %13,6 izatetik, 2014 urtean %12,1 eta 2018 urtean %9,0 izatera pasa baita.

7. Grafikoa. Ikasi edo lanik egiten ez duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen tasaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Ezaugarri pertsonalei dagokienean, 2018 urteko emaitzen arabera, langabezia-egoeran eta prestakuntza-jarduerarik ez duten gazteen prebalentzia pixka bat altuagoa da emakumeen artean, atzeritar nazionalitatea dutenen pertsonetan eta lehen-mailako ikasketak dituztenen artean. Egiaz, egoera horretan dauden atzeritar nazionalitateko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehuneko altua nabarmendu behar da 2018 urtean (%25,5), berezi deigarri gertatzen dena espainiar nazionalitatea duten gazteen biztanleria jasotakoarekin (%6,2) eta adin bereko biztanleria osoarekin alderatuta (%9,0). Gai hau aztertzean ez da ageri sexuaren edo hezkuntza-mailaren araberrako alde estatistiko nabarmenik, aitzitik.

Pobrezia erlatiboko egoeran dauden gazteen artean, ikasketarik eta lanik betetzen ez duten gazteen proportzioa altuagoa da (%19,8), baita bazterkeria-egoeran dauden artean ere (%22,3). Horrela da, izan ere, erlazio estuena pobrezia- eta bazterkeria-aldagaietan antzematen baita. Egoera horrek eragindako 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztietatik %37,6k pobrezia erlatiboa bizi du (adin-bitarte horretako biztanleriaren pobrezia-prebalentzia %17,2koa denean) eta %31,8k gizarte-bazterketa.

17. Taula. Ikasi edo lanik egiten ez duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen tasa, aldagai desberdinen arabera. Gipuzkoa 2018


		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)		Kaltetutakoen zenbatekoa
			"nini"ak	Gutzizkoa	
Sexua	Gizonezkoa	8,7	51,4	53,3	4.626
	Emakumezkoa	9,4	48,6	46,7	4.376
Nazionalitatea*	Espainiarra	6,2	59,0	85,4	5.315
	Atzeritarra	25,5	41,0	14,6	3.687
Lortutako ikasmaila	Lehen-maila	13,2	48,3	33,0	4.348
	Bigarren-maila	6,6	31,1	42,8	2.797
	Goi-maila	7,7	20,6	24,2	1.856
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	19,8	37,6	17,2	3.388
	Gabezia	6,8	62,4	82,8	5.614
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	22,3	31,8	12,9	2.859
	Gabezia	7,1	68,2	87,1	6.143
Gutzizkoa		9,0	100,0	100,0	9.002

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Azkenik, ikuspegi konparatibo bati jarraituz, fenomeno horrek Gipuzkoan izandako eragina, nini-en fenomeno gisara ezaguna dena (ikasi, lana edo prestakuntzarik egiten ez duten gazteak), europar mailako datua baino apalagoa da (%13,4); baita Estatu osoko datuaren aldean ere, izan ere, egoera hori %16,4ra iristen baita. Berez, ikasi edo lanik egiten ez duten Espainiako gazteen tasak altuenak dira (%16tik gorakoa), Italia, Grezia, Bulgaria, Kroazia, Errumania edo Ziperren tankerako maila batean.

8. Grafikoa. Ikasi edo lanik egiten ez duten 15 eta 29 urte bitarteko tasa. Lurraldeen arteko konparazioa. 2018




Iturriak: Eurostat (2018) EU-SILC; Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.1.3. Ama-hizkuntza eta hizkuntza-ezagutza

Hizkuntza-transmisioa Eusko Jaurlaritzak egiten duen Inkesta Soziolinguistikoak berriaz bost urtean behin aztertu ohi duen gaia da, eta Eustatek hamar urtean behin egindako Zentsuaren eta Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikak aztertzen du. Operazio horiek gure lurraldeko hizkuntza-transmisioari buruzko oso panorama xehatua eskaintzen dute, baita bizi-zikloan zehar azken hamarkadetako jabetze-prozesuei buruzko informazioa ere. GPGBIk arlo honetan eskaintako balio erantsi nagusia gure lurraldeko pobrezia- eta bazterkeria-egoerekin hizkuntza-gaitasunak duen garrantzia aztertzea da, dela familia-ingurunean, dela eskolan edo prestakuntzan eskuratutako gaitasunetan.

Ikuspegi orokor batetik, GPGBIk 2018 urterako eskaintako datuen arabera, 3 eta urte gehiagoko biztanle gipuzkoarretatik %27,4k euskara du ama-hizkuntza¹¹, %51,3k gaztelania, %13,9k biak ditu eta aipatutakoez bestelako hizkuntzak %7,3k.

9. Grafikoa. Ama-hizkuntzaren arabera 3 eta urte gehiagoko biztanleriaren banaketa. Gipuzkoa 2012-2018




Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

9. Grafikoan ikus daitekeen bezala, azken bost urtetan ama-hizkuntzaren arabera banaketan aldaketa batzuk gertatu dira. Lehenik, euskara ama-hizkuntza duen biztanleriaren beherakada bat nabarmentzen da, zeina 2012 urtean %36,1 izatetik, 2014 urtean %32,8 eta 2018an %27,4 izatera pasa dena. GPGBIk antzemandako gutxikako beherakada hori beste operazio estatistikotikoz batzuen bilakaera-eraketekin bat dator¹². Aurreko boladaren aldean, inkestaren emaitzek azaltzen dutenez, haurtzaroen gurasoen aldetik gaztelaniaz bakarrik hitz egindakoen biztanleria-proportzioak ere behera egin du –2014 urtean %53,4 izatetik, 2018an %51,3

pasa dena–. Ama-hizkuntza gisara hizkuntza bakarra izandakoen proportzioaren beherakada hori (dela euskara nahiz gaztelania) elebidunen proportzioan izandako hazkuntzak indargabetzen du –2012 urtean biztanleriaren %7,3 izatetik, 2012 urtean %9,2 eta 2018 urtean %13,9 izatera pasa dena–; baita umetatik beste hizkuntza batzuek jabetutakoen proportzioa ere.

Ama-hizkuntza gisara euskara duen biztanleriaren beherakada gertatu arren, antzemandako bilakaera-eraketek ez dute azaltzen euskara ama-hizkuntza gisara beheratu denik. Berez, GPGBIn lortutako lehen hizkuntzen arabera biztanleria-banaketa emaitzak beste bi inkestekin konparatuz gero, 2016ko Eustaten Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikan, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoan (ikus 10. Grafikoa) eta GPGBIn biztanleriaren %40 inguruk euskara haurtzarotik ezagutu duela –dela ama-hizkuntza, dela gaztelaniarekin aldi bereko ama-hizkuntza– nabarmentzen da hiru inkestetan: %40,7 (Eustat, 2016), %40,8 (Eusko Jaurlaritza, 2016) eta %39,8 (GPGBI, 2018).

10. Grafikoa. Ama-hizkuntzaren arabera 16 eta urte gehiagoko biztanleriaren banaketa*, operazio desberdinen arabera. Gipuzkoa 2016-2018



*Eustateko datuek 15 urte eta gehiagoko biztanleria hartzen dute aintzat, baina beste datuak 16 urte eta gehiagorako kalkulatu dira. Iturriak: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren buruzko Inkesta; Eusko Jaurlaritza. VI. Inkesta Soziolinguistikoak; Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Gipuzkoako 3 eta urte gehiagoko biztanleriaren ama-hizkuntzari buruzko emaitzak ezaugarri soziodemografiaren arabera aztertzean, adinaren arabera alde nabarmenak ikus daitezke: 24 urte azpiko biztanleen %40aren ama-hizkuntza bakarra gaztelania da, baina 65 eta urte gehiagoko biztanleen kasuan, %58,1 izatera iristen da.

¹¹ Ama-hizkuntza gisara, haurtzaroen gurasoen transmitituta haurrek jasotako hizkuntza edo hizkuntzak ulertzen dira.

¹² Eustaten Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, euskara ama-hizkuntza dutenen 2 urte eta gehiagoko biztanle gipuzkoarren proportzioa 2001 urtean %37,7 izatetik 2016 urtean %34,2 izatera beheratu da. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Inkesta Soziolinguistikoak ere beherakada berbera antzeman du, non hamarkada batean euskara ama-hizkuntza dutenen proportzioa 2006 urtean %35,8 izatetik 2016 urtean %32,9 izatera pasa da.

18. Taula. Ama-hizkuntzaren arabera 3 urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, adierazle desberdinen arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				
		Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat edo batzuk	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat edo batzuk	Guztizkoa
Sexua	Gizonezkoa	27,7	13,3	50,6	8,4	49,7	47,1	48,4	56,1	49,2
	Emakumezkoa	27,1	14,5	52,1	6,3	50,3	52,9	51,6	43,9	50,8
Adina*	<24	25,7	23,1	40,0	11,2	20,5	36,4	17,0	33,3	21,9
	25-44	26,0	13,8	48,6	11,6	24,8	25,9	24,7	41,2	26,1
	45-64	26,8	11,2	57,0	5,0	28,9	23,7	32,9	20,1	29,6
	65 eta gehiago	31,5	8,6	58,1	1,8	25,9	13,9	25,4	5,4	22,5
Nazionalitatea*	Espainiarra	30,9	15,5	52,2	1,4	99,9	98,9	90,0	17,3	88,6
	Atzerritarra	0,2	1,3	45,0	53,5	0,1	1,1	10,0	82,7	11,4
Etxebizitzako diru-sarreraren mailak	1. kintila	16,9	7,8	53,3	22,1	12,2	11,1	20,5	59,3	19,7
	2. kintila	22,2	14,7	55,1	7,9	16,2	21,2	21,5	21,5	20,0
	3. kintila	31,5	14,5	51,0	3,1	23,1	20,9	20,0	8,6	20,1
	4. kintila	34,7	15,2	48,0	2,1	25,1	21,7	18,6	5,8	19,9
	5. kintila	31,6	17,2	49,4	1,8	23,4	25,1	19,5	4,8	20,3
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	14,2	6,2	53,2	26,4	8,4	7,2	16,8	58,2	16,2
	Gabezia	30,0	15,4	51,0	3,7	91,6	92,8	83,2	41,8	83,8
Gizarteratze-maila*	Bazterkeria larria	11,3	3,3	66,5	18,9	2,0	1,1	6,1	12,2	4,7
	Bazterkeria moderatua	15,3	4,8	56,1	23,7	5,0	3,1	9,7	28,5	8,9
	Gizarteratze prekariora	23,3	13,5	51,2	11,9	24,7	28,3	29,0	47,1	29,1
	Erabateko gizarteratzea	32,7	16,4	49,4	1,6	68,3	67,5	55,2	12,2	57,4
Guztizkoa		27,4	13,9	51,3	7,3	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak. Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Logikoki, elkarrizketatutako pertsonen nazionalitatea hartzerakoan aldeak oso nabarmenak dira. Izan ere, erdiak baino gehiagok euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzaren bat (%53,5) ezagutzen baitu. Sexuari dagokionean, ez da nabarmentzen ia inolako alderik gizonen eta emakumeen artean.

Etxebizitzetako diru-sarreretan, pobrezia- eta gizarteratze-mailaren arabera alde nabarmenak agertzen dira. Ama-hizkuntza euskara duten pertsonen etxebizitzetako proportzioa diru-sarrera mailarik altuena duten kintiletan altuagoa da. Izan ere, haurtzarotik euskara gurasoek transmititu izandako biztanleriaren ia erdia diru-sarrera altueneko etxebizitzetan bi kintiletan kokatzen da (%48,5 4 eta 5. kintiletan). Era berean, alderantzizko gradiente bat ere antzematen da, euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuk lehen hizkuntza gisa dituen biztanleriaren kasuan. 18. Taulan ikus daitekeen bezala, kolektibo horren proportzioa hazi egiten da etxebizitzako diru-sarreraren maila beheratzen den heinean. Era berean, banaketa-datuaren arabera, beste ama-hizkuntzaren bat duen ia-ia %60 diru-sarrera pobreena duen biztanleria-kintilean kokatzen da (%59,3).

Azkenik, emaitzek erakusten dutenez, pobrezia nahiz gizarte-bazterketa aztertzean, konparazioan, lehen-hizkuntza euskara duten pertsonen artean gutxiagotan gertatzen dira; bereziki, haurtzarotik elebidun direnen artean. Euskara ama-hizkuntza duten 3 urte eta gehiagoko pertsonetatik %8,4k eta elebidun direnietatik %7,2k soilik pairatzen du pobrezia monetarioko egoeraren bat (adin-bitarte horretako biztanleria osotik %16,2ren aldean). Era berean, euskara ama-hizkuntza duen biztanleriatik %7,0k eta euskara eta gaztelania haurtzarotik ikasitakoaren artean %4,2k bakarrik bizi du bazterkeria-egoeraren bat (dela moderatua, dela larria); guztizkoaren %13,6ren aldean.

11. Grafikoa. Ama-hizkuntza euskara duen 3 eta urte gehiagoko biztanleriaren banaketa*, diru-sarreraren eta gizarteratze-mailaren kintiletan. Gipuzkoa 2018



*Ama-hizkuntza euskara eskuliboki edo gaztelaniarekin bat duten pertsonak batzen dira. Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Bestetik, 11. Grafikoan oso emaitza adierazgarriak lortu dira, izan ere, ama-hizkuntza euskara duen biztanleriaren banaketa biztanleriaren diru-sarreraren eta gizarteratze-mailaren arabera azaltzen baitira emaitzak; dela ama-hizkuntzaren nahiz ama-hizkuntzaren eta gaztelaniaren arabera. Zentzu honetan, gradiente argia erakusten dute emaitzek: euskara ama-hizkuntza duten pertsonen proportzioa hazi egiten da etxebizitzako diru-sarreraren maila eta gizarteratze-maila hazten diren heinean. Kintilik pobreeneko biztanleriaren %24,7k bakarrik ama-hizkuntza euskara duen bitartean, 4 (%49,9) eta 5 kintiletako (%48,8) biztanleriaren erdia izatera

iristen da proportzioa, hau da, diru-sarrera mailarik altueneko kintilak. Are eta nabariagoa da gizarteratzearen gradientea, izan ere, lehen urtetatik euskaraz jabetutako 3 eta urte gehiagoko biztanleriaren proportzioa %14,6 hazten baita bazterkeria-egoera larrian dagoen biztanleriaren artean, eta %20,2 bazterkeria-egoera moderatuan daudenen artean, %36,9 gizarteratze-egoera prekarioan eta %49,0 erabateko integrazioan.

Gurasoek transmititutako biztanleriaren ama-hizkuntzaren garrantziaz gain, atzerriko beste hizkuntzak bizitzan zehar ezagutu eta ikastea gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari da. Prospekzio Soziologikoko Kabinetearen¹³ azken txostenaren arabera, 2018 urteko ia euskal biztanle guztiek atzerriko hizkuntzen ezagutza oso garrantzitsua (%73) edo nahiko garrantzitsua (%22) dela adierazten du. Hizkuntzak ikasteko askotariko arrazoen artean, lana edo ikasketak bide izatetik, afizioagatik, bidaiatzeko edo lekualdaketatik ikasten dela adierazten dute.

18. Taulan bestelako hizkuntzen arabera emaitzak aurkezten dira. Lehenik, 16 eta urte gehiagoko Gipuzkoako biztanleriaren %55,4 elebiduna dela uler daiteke, izan ere, dela euskaraz dela gaztelaniaz hitz egiteko gai dela adierazten baitu ehuneko horrek. Halaber, horietatik %38,3k bi hizkuntzen jabetza du, baina besteek –%17,1k zehazki– hirugarren hizkuntza bat ezagutzen dute; ofizial diren bestelako bat.

Bestetik, 16 eta urte gehiagoko biztanleriaren %31,6aren esanaren arabera, gaztelaniaz bakarrik hitz egiteko gai da, eta beste %10,7a gaztelaniadun izan arren (dela ama-hizkuntza edo ez), gaztelania ez den beste hizkuntza batean jarduteko gaitasuna izango omen luke (baina ez euskaraz).

Biztanleriaren ezaugarri soziodemografiko nagusiak kontuan hartzean, emaitzek alde garrantzitsuak eskaintzen dituzte. Gaitasun linguistiko murriztagoa duten pertsonen kasuan, hau da, gaztelaniaz hitz egiteko gaitasuna soilik duten pertsonen artean, adin handieneko pertsonak (%43,4) eta ez aktibo diren pertsonak (%43,6) nabarmentzen dira. Euskararen, gaztelaniaren eta hirugarren hizkuntza baten jabetza duten pertsonak beste muturreko lekuan daude. Gipuzkoako 16 eta urte gehiagoko biztanleriaren %17,1k egoera hori bizi du, eta askoz maizago gertatzen da biztanle gazteen (16 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren %35,3) eta ikasleen artean (%44,9). Nazionalitateari dagokionez, Gipuzkoan bizi den atzeritar biztanleetatik %3,5k euskaraz hitz egiten du soilik.

Azkenik, egoera monetarioari eta gizarte-bazterketari buruzko emaitzen arabera, gaztelania besterik ez hitz egitea pobrezia- eta bazterkeria-egoerekin asoziatzen da beste eragin guztien gainetik. Izan ere, pobrezia erlatiboko egoeran dauden pertsonen artean, gaztelaniaz hitz egin eta euskaraz ez dakiten pertsonen proportzioa %64,2koa da, eta bazterkeria-egoerak pairatzen dituzten lagunen artean %66,6koa da; eta 16 eta urte gehiagoko biztanleria guztiaren arabera, %42,3 izatera iristen da, soilik.

19. Taula. Hizkuntzen ezagutzaren arabera 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, aldagai desberdinen arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)					Banaketa bertikala (%)					
		1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	Gutzit- koa
Sexua	Gizonezkoa	30,2	39,1	17,3	11,0	2,3	46,6	49,8	49,2	50,5	49,0	48,8
	Emakumezkoa	32,9	37,5	17,0	10,3	2,3	53,4	50,2	50,8	49,5	51,0	51,2
Adina*	16-34	13,7	35,5	35,3	13,3	2,2	9,3	19,9	44,1	26,8	20,3	21,4
	35-54	28,6	37,5	17,5	13,0	3,4	33,3	35,9	37,5	44,8	53,9	36,7
	55 eta gehiago	43,4	40,4	7,6	7,2	1,4	57,5	44,2	18,5	28,4	25,8	41,9
Nazionalitatea*	Espainiarra	30,3	42,7	19,1	6,3	1,7	85,4	99,3	99,4	52,5	66,8	89,2
	Atzeritarra	42,6	2,5	1,0	46,9	7,0	14,6	0,7	0,6	47,5	33,2	10,8
Jarduera ordain- duaren arabe- rako erlazioa*	Landuna	26,7	38,4	21,6	11,2	2,1	44,2	52,4	65,7	54,7	48,0	52,2
	Langabea	34,1	25,9	10,4	23,8	5,7	6,4	4,0	3,6	13,2	14,8	5,9
	Ikaslea	7,8	39,6	44,9	6,9	0,9	1,8	7,6	19,4	4,8	2,8	7,4
	Ez aktiboa	43,6	40,0	5,6	8,5	2,3	47,6	36,0	11,3	27,4	34,5	34,5
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	41,6	24,7	6,8	22,6	4,3	20,2	9,9	6,1	32,4	29,0	15,3
	Gabezia	29,8	40,8	19,0	8,5	1,9	79,8	90,1	93,9	67,6	71,0	84,7
Gizarte- bazterketa*	Presentzia	48,4	24,1	6,7	18,2	2,7	20,2	8,3	5,2	22,5	15,4	13,2
	Gabezia	29,1	40,5	18,7	9,5	2,2	79,8	91,7	94,8	77,5	84,6	86,8
Gutzit- koa		31,6	38,3	17,1	10,7	2,3	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharrak: (1) Gaztelania bakarrik; (2) Euskara eta gaztelania bakarrik; (3) Euskara, gaztelania eta beste hizkuntza bat gutxienez; (4) Gaztelania eta euskara ez den beste hizkuntzaren bat gutxienez; (5) Beste gaitasun linguistikoak.

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

¹³ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea Jaurilaritza (2018) [Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa](#). Eusko Jaurilaritza.

3.2. Osasun-egoera, mendekotasun-egoerak eta ariketa fisikoa


Zorionez, pobrezia eta gizarte-bazterketa termino ekonomikoetan ulertzeari aspaldi utzi zitzaien, izan ere, faktore desberdinek eragindako fenomenotzat ulertzen baitira, eta diru-sarreren faktorea horietako bat da. Horren ondorioz, osasun-gaiak kontuan hartzen dituzten pobrezia buruzko azterlanak gero eta maizago egiten dira ikuspegi zabalago bat hartuta: zeina ongizate-egoera lortzeko ondasun eta zerbitzu batzuek jabetzeko pertsonen gabezia edo eskuragarritasunik ezean oinarritzen baita ikuspegi lantzeko.

Osasunaren kasuan, gaiaren inguruko literatura ugariaren arabera, pobrezia, desberdintasun sozioekonomikoen eta osasun-desberdintasunen arteko erlazio estuaz gain, osasunaren eta pobrezia arteko kausalitatea bi noranzkoko da.

3.2.1. Osasun-egoera

2018 urtean, biztanleria gipuzkoarraren %84,6k osasun oso ona (%22,1) edo ona (%62,5) duela adierazten du. Baina hamar lagunetik batek erdipurdikoko osasuna duela adierazten du; %4,5k txarra eta %1k oso txarra¹⁴.

12. Grafikoa. Osasunaren pertzepzio propioaren arabera biztanleriaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Bilakaera-ikuspegi batetik, ez da ia aldaketarik eman 2014 urtetik (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** 2. Grafikoa). Osasun ona edo oso ona adierazitako pertsonen proportzioa arinki hazi da, %81,7tik %84,6 izatera pasa da; eta erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela adierazten dutenen artean, %18,3tik %15,4ra pasa da.

¹⁴ Datu horiek bat datoz Euskadiko Osasun Inkestak Gipuzkoarako 2018 urtean jasotako datuekin. Operazio horren arabera, 15 urtez gorako biztanle gipuzkoarren %24k oso osasun ona duela adierazten du, %61,2k ona duela, %11,4k erdipurdikoa, %3k txarra eta %0,5k oso txarra.

Azterlan honetako aurreko boladetan nabarmendu izan den bezala, osasunaren hautemateak adinarekin eta generoarekin harreman estua du: osasunaren pertzepzioa adinean aurrera eginda eskatu egiten da -65 urte eta gehiago pertsonen artean, osasun txarra dutela adierazten dutenen arteko ehunekoa (%16) biztanleria orokorraren aldean hiru aldiz biderkatzen da, eta, orokorrean, emakumeen artean okerragoa izaten da gizonen pertzepzioaren aldean¹⁵. Bestetik, emaitzen arabera, nazionalitatearen arabera osasunaren autobalorazioan alde nabarmenak aurkitu dira. Atzeritar nazionalitate duen pertsonetatik %2,7k osasun txarra edo oso txarra dutela adierazten du; eta espainiar nazionalitateko biztanleen artean, %5,8k. Hala eta guztiz ere, biztanle immigranteei buruz egin izandako azterlanen artean nabarmendu denez, bertako biztanleriaren aldean osasun-adierazle hobeak omen ditu kolektibo honek lurraldera iristean, baina, denboraren poderioz, haien osasun eskatzeko joera hartzen omen du, besteak beste, prekaritate-egoeretik baldintza sozioekonomikoen ondorioz; iritsitako herrialdean oso maiz pairatzen dituztenak.

Azterlan honek eskaini ditzakeen ekarpenetatik nagusienetako batek biztanleriaren baldintza sozioekonomikoei osasun-egoerak izan dezakeen garrantzia aztertzea da (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula). Beste ikerketa batzuetan deskribatu izan den moduan¹⁶, biztanleriaren kokapen sozioekonomikoak behera egiten duen heinean, osasunari buruz eginiko balorazioa ere eskatu egiten da. Hain zuzen ere, Gipuzkoan pobrezia erlatiboko egoeran dagoen biztanleriaren %6,7k osasun txarra edo oso txarra dela hautematen du; pobrezia ekonomikoko egoerarik bizi ez duen biztanleen %5,2aren aldean. Hala ere, biztanleria-egitura duen garrantziagatik, ezin dira pobrezia hartu ikuspegi monetario batetik osasun txarra edo oso txarra (%79,8) dutela adierazitako pertsonetatik gehien-gehiak.

Gizarteratze-mailari dagokionez, bazterkeria-egoera larria pairatzen duen biztanleriaren %16,9k osasun txarra edo oso txarra duela adierazten du. Portzentaje hori, erabat integratutako biztanleriarena (%3,9) baino 4,3 bider altuagoa da, gizarteratze-egoera prekarioan (%5,8) dagoen biztanleriaren aldean ia-ia hiru bider handiagoa da, eta bazterkeria-egoera moderatuan dagoen biztanleriaren aldean (%8,1) bi bider handiagoa. Beraz, nabarmen daitekeen bezala, faktore indibidual harago, ingurune sozialak, kulturalak eta ekonomikoak biztanleriaren osasunari eragiten dio, eta aldi berean, eskualde bakoitzak dituen gizarte-, ekonomia- eta osasun-baliabideekin zerikusia du¹⁷.

¹⁵ Genero-desberdintasun handienak 65 urtez gehiagoko pertsonen artean antzeman dira. Adin-talde honetan, emakumezkoen artean %45,9k osasun txarra edo oso txarra duela %45,9k adierazten du, gizonen %35,8aren aldean. Alde horiek ulertzeko, gizonen bizi-estiloaren ondoriozko gaixotasunek heriotza goiztiarren arrisku altuagoa dutela argudiau daiteke, eta emakumezkoen kasuan gaixotasun horiek ez direla hilgarri edo gaitasun nabarmen urritzen dituztenak.

¹⁶ Aldabe et al. (2011) Contribution of material, occupational, and psychosocial factors in the explanation of social inequalities in health in 28 countries in Europe. J Epidemiol Community Health 65(12): 1123-1131. <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC3678208/>

¹⁷ Espainiako osasunaren gizarte-desberdintasunak murrizteko politika-eta eskuarte-proposamena.

20. Taula. Osasunaren pertzepzio propioaren arabera biztanleriaren banaketa, zenbait adierazleren arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)			Banaketa bertikala (%)			
		Ona edo oso ona	Erdipurdikoa	Txarra edo oso txarra	Ona edo oso ona	Erdipurdikoa	Txarra edo oso txarra	Gutzizkoa
Sexua*	Gizonezkoa	87,2	8,2	4,5	50,5	40,4	40,8	49,0
	Emakumezkoa	82,0	11,7	6,3	49,5	59,6	59,2	51,0
	<18	97,6	2,3	0,1	20,2	4,0	0,3	17,5
Adina*	18-34	95,2	4,5	0,2	18,2	7,3	0,7	16,1
	35-49	92,2	4,8	3,0	25,0	11,0	12,6	22,9
	50-64	84,6	9,9	5,5	21,5	21,4	21,7	21,5
	65 eta gehiago	58,5	25,5	16,0	15,2	56,3	64,7	22,0
Nazionalitatea*	Espainiarra	83,8	10,4	5,8	87,7	92,0	94,3	88,5
	Atzerritarra	90,4	7,0	2,7	12,3	8,0	5,7	11,5
	1. kintila	79,3	13,1	7,6	18,7	26,3	27,8	20,0
Etxebizitzako diru-sarrera balioak kintiletan*	2. kintila	80,1	12,6	7,4	18,9	25,1	27,1	20,0
	3. kintila	83,9	10,3	5,8	20,1	20,8	21,6	20,2
	4. kintila	89,1	7,1	3,8	20,9	14,1	13,8	19,8
	5. kintila	90,5	6,8	2,7	21,4	13,7	9,8	20,0
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	81,7	11,6	6,7	15,9	19,2	20,2	16,4
	Gabezia	85,1	9,7	5,2	84,1	80,8	79,8	83,6
Gizarteratze-maila*	Erabateko gizarteratzea	86,3	9,8	3,9	58,1	56,0	40,9	56,9
	Gizarteratze prekariora	85,4	8,8	5,8	29,6	25,9	31,1	29,3
	Bazterkeria moderatua	80,8	11,1	8,1	8,7	10,1	13,6	9,1
	Bazterkeria larria	66,0	17,1	16,9	3,6	8,0	14,5	4,7
Gutzizkoa		84,6	10,0	5,4	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.2.2. Mendekotasuna eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza


GPGBI pobrezia eta gizarte-bazterketa egoerak neurtzeko eta jarraipena egitera bideratutako operazio estatistikoa izan arren, bi fenomenoaren dimentsio anitzeko ikuspegi batetik inolako laguntzarik jasotzen ez duten autonomia-arazoak dituzten pertsonak detektatzeaz gain, kalteberatasun- edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen oro har dituzten premiak ezagutzea ere, eta haiei eskaintako zaintzaren berri izatea, dela forma dela informala.

2018 urtean jasotako datuen arabera, Gipuzkoak 34.600¹⁸ bat pertsonen nolabaiteko ezgaitasuna, gaixotasun kronikoa edo osasun-arazo larriren bat dute, eta eguneroko bizimoduko jarduerak ezin bete edo muga nabarmenak dituzte. Termino erlatiboetan, zifra horren arabera, Gipuzkoako biztanleriaren %4,8 inguruk nolabaiteko mendekotasuna edo autonomia pertsonalean mugak bizi dituela iradokiko luke. Datu hauek orain bi urtekoekin alderatuz gero, mendekotasun-egoerak hazi egin direla ikus daiteke, 2014 urtean %4,2 izatetik 2018 urtean %4,8 izatera pasa baita. Ehuneko horri instituzioetan dagoen biztanleriari dagokion ehuneko gehitu beharko litzaiok, lurraldeko mendekotasunari buruzko guztizko tasa kalkulatzeko.

¹⁸ 2018 urteko abenduan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, gure lurraldean 37.036 biztanlek Mendekotasunaren Balorazio Baremoa pasa dute. Horietatik 29.099 lagunek (%78,6) I, II edo III. Graduko mendekotasuna zuten, eta besteei ez zitzaion onartu mendekotasun-gradurik. Horietatik 5.678 foru-egoitzetan artatzen zizutela zehatz daiteke, eta horren ondorioz, mendekotasuna balioztatutako 31.358 bat lagun etxebizitza propioan bizi zirela, beraz, kalteberatasun- edo mendekotasun-egoeran daudela gizarte-zerbitzuen ezagueran.

Emaitza horiek abiapuntu gisara hartuz gero, kaltebera- edo mendekotasun-egoeran etxebizitzetan bizi diren pertsonen premiei buruzko egokitze-maila eta jasotzen duten arretari buruzko analisi bat eskaintzen da.

13. Grafikoa. Eguneroko bizimoduko oinarrizko jardueretako mugak dituen biztanleriaren banaketa, mendekotasun-egoeraren baloraziorako eskakizunaren arabera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

GPGBIren bilakaera-emaitzetatik ageri den alde positibo baten arabera, eguneroko bizimoduko jarduerak betetzeko mugak izanda mendekotasun-balorazioa egin izandako pertsonen proportzioak gora egin du denboraren poderioz. 2012 urtean, ez zuen eskaera hori bideratu haieetatik guztietatik ia heren batek; 2018 urtean mugak zituzten hamar lagunetik bi baino pixka bat gehiagoko proportzioan murriztu egin zen.

Hurrengo taulak, mendekotasun-balorazioaz gain, eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko gaur egun mugak dituzten pertsonen ezaugarri nagusiak jasotzen ditu. Ikus daitekeen bezala, horrelako egoeren prebalentzia emakumeen artean altuagoa da (%5,7) gizonezkoen artean aldean (%3,9), eta adinaren arabera nabarmen hazten da; eta gehienbat, adin handieneko taldeetan elkar-tzen dira.

21. Taula. Eguneko bizimoduko oinarrizko jarduerak egiteko mugaketa-egoeren prebalentzia, adierazle desberdinen arabera. Gipuzkoa 2018

		Prebalentzia (%)	Banaketa (%)	Kaltetutako pertsonen zenbatekoa
Sexua	Gizonezkoak	3,9	39,6	13.683
	Emakumezkoak	5,7	60,4	20.894
Adina*	<18	1,0	3,7	1.279
	18-34	0,5	1,6	565
	35-49	1,9	9,0	3.113
	50-64	3,7	16,6	5.733
	65-79	7,3	22,6	7.816
	80 eta gehiago	32,6	46,5	16.070
Jaioterrria*	EAE	4,2	65,5	22.643
	Estatu barrukoak	11,5	32,1	11.111
	Estatutik kanpokoak	1,1	2,4	823
Guztizkoa		4,8	100,0	34.576

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Beraz, oinarrizko jarduerak betetzeko mugak dituen biztanlerian erdiak praktikoki (%46,5) 80 edo urte gehiago ditu¹⁹ eta, generoari kontu hartuz gero, %60,4 emakumeak dira²⁰. Bestetik, jatorri atzerriko biztanleria- ren mendekotasun-arazoan ia erabatekoa den gabezia, eta, hein handi batean, oraindik ere gure lurraldean Estatutik kanpo jaiotako adin handiko biztanleen pre- sentzia oso eskasagatik gertatzen da²¹.

GPGBIren arabera, autonomia pertsonaleko mugak ageri dituzten pertsona guztietatik (34.576 pertsona), praktikoki 10etik 9k (%87,2) laguntza edo zainketa mo- taren bat behar dute eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak egiteko (ikus 22. Taula). Beraz, Gipuzkoan mugak izan, etxebizitzan bizi eta intentsitate-maila al- tuagoko edo apalagoko laguntza motaren baten beha- rra duten 30.100 pertsona daude (biztanleria osoaren %4,2)

Zein neurritan erantzuten zaie premia horiei? 2018 urterako GPGBIren emaitzen arabera, eguneroko bizi- moduko oinarrizko jarduerak egiteko mugak izan eta nolabaiteko laguntza behar duten lagun guztietatik (30.100) gehienek jasotzen dute (%95,9). Horren ara- bera, hala ere, mugak eta zaintza-premiak dituen per- tsonetatik %4,1 inguru -1.200 bat pertsona-, arrazoi desberdinengatik, etxean bizi da inolako laguntzarik jaso gabe. Emaitzen arabera, bestetik, mugak eta laguntza jasotzeko premia duten biztanleetatik %18,4 inguruk -5.500 bat pertsona- ez omen zuen mendeko- tasun-eskakizunik izapidetu.

Eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak egiteko laguntzaren bat jasotzen dutela adierazitako biztanleen artean (ikus 14. Grafikoa), lehenik, zaintza informala jasotzen duten pertsonen garrantzi erlatiboa nabar- mentzen da. Etxebizitzaren eremuan zaintza jasotzen duten hamar lagunetik zazpi baino gehiagok etxebizi- tza berean bizi den kideren batek artatzen ditu (%55,8), eta/edo beste etxe batean bizi eta zaintzeko mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren etxebizi- tzara joaten den senideren batek eskaintzen dio arreta (%22,2). Zaintza informalean atzetik, ohiko bigarren baliabidea zaintzarako pertsonen kontratu partikula- rrak egitea da. 2018 urtean, zaintza-premiak dituzten 10 lagunetik 3k baino pixka bat gehiagok (%31,2) zerbitzu hori erabiltzen du.

Sistema publikoko zerbitzu eta prestazio sozialei da- gokionean, 2018 urtean bildutako datuen arabera, laguntza jasotakotik %16,1k etxeko laguntza- zerbitzuaren onuradunak dira eta %7,9k eguneko zentro batera jotzen du edo haien etxebizitzan telela- guntza-zerbitzua jasotzen du. Hala ere, zerbitzu eta prestazio horien artean, gehien erabiliak mendekota- sunaren artarako prestazio ekonomikoak dira. Egune- roko bizimoduko oinarrizko jarduerak gauzatzeko mu- gak eta zaintza-premiak dituzten pertsonetatik %58k (GPGBIren arabera, 16.700 lagun) dela familia- inguruneko zaintzarako prestazioa dela laguntza per- tsonalerako prestazio ekonomikoa jasoko luke.

Laburbilduz, eta aipatutako prestazio eta zerbitzu guztiak aintzat hartuz, 2018 urteko emaitzek erakusten dutenez, laguntza jasotzeko premia duten eta laguntza ematen zaien hamar lagunetik 3k (%1,5) zaintza infor- malean eta/edo partikulari kontratatutako pertsonen eskaintakoa dute oinarrizko laguntza, hau da, ez dute prestazio ekonomikorik jasotzen, ez dira EELZko, eguneroko zentroetako edo telelaguntzako erabiltzaile (ikus 14. Grafikoa). Horietatik %8,5, berriz, eskusiboki izaera publikoko zerbitzuen edo prestazioen jasotzaile izango liriteke, baina gehienak, hau da, %59,9k izaera mistoko arta jasoko luke; zaintza informala eta/edo izaera publikoko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen bitartez era partikularrean kontratatutakoa.

¹⁹ Gipuzkoako Gizarte Behatokiaren arabera <Behagi.eus>, 2018 urteko abenduaren 31ko mendekotasunaren balorazioa jasotako lagun guztie- tatik (37.036 pertsona) %56,6k, hau da, 20.946 pertsonak, 80 eta urte gehiago dituztela.

²⁰ Balorazioa jasotako pertsonen buruzko datuen tankerakoa da zifra hori. 2018 urteko abenduan, Gipuzkoan balorazioa jasotakoetatik %63 (23.256 pertsona) emakumeak ziren.


²¹ Atzerrian jaiotako biztanleria gipuzkoarra zahartzen hasteko agertokia oraindik ere urruti egon eta haien mendekotasunaren zaintza- eta arreta-premiarik oraindik ez eduki arren, etorkizunean gai honi kontu hartu beharko zaiola aurreikusitako behar da. Zenbait herrialdeetan osasun- eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko desberdintasun nabarmenak antze- man dira 'migratzailearen' eta pertsona adinduen estatusa batzen direnean.

22. Taula. Eguneko bizimoduko oinarrizko jarduerak (EBOJ) betetzeko mugak dituzten pertsonen banaketa. Gipuzkoa 2018

	% EBOJerako mugak dituzten pertsonen %	EBOJerako mugak eta laguntza-premia duten pertsonen %	Biztanleria osoaren arabera %	Pertsonen zenbatekoa
EBOJerako mugak dauzkaten pertsonak	100,0	--	4,85	34.576
* Ez du beste pertsonen laguntza-premiarik	12,8	--	0,62	4.428
* Beste pertsonen laguntza-premia dauka	87,2	100,0	4,23	30.148
+ <i>Mendekotasunaren balorazio-eskakizuna</i>				
- Ez du eskatu	16,0	18,4	0,78	5.533
- Eskatu du	71,2	81,6	3,45	24.615
+ <i>Laguntza jasotzea</i>				
- Ez du jasotzen laguntzarik	3,6	4,1	0,17	1.242
- Laguntza jasotzen du	83,6	95,9	4,05	28.906

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

14. Grafikoa. EBOJerako mugak eta laguntza-premia duten pertsonen banaketa, jasotako zaintzen edo zerbitzuen arabera. Gipuzkoa 2012-2018



Jasotako zerbitzuen eta prestazioen tipologia: [1] Pribatua bakarrik: laguntza-premia dauzen pertsonak etxe baten, etxean bizi ez den baten edo enplegatutako langileen zaintzak jasotzen dituzten kasuak batzen ditu. [2] Publikoa bakarrik: laguntza-premia dauzen pertsonak EELZ, telelaguntza, eguneko zentroa edo prestazio ekonomikoa jasotzen duten kasuak batzen dira. [3] Mistoa: prestazio eta/edo zerbitzu publiko eta pribatuak konbinatzen dituzten beste kasu guztiak batzen dira.

Oharra: zerbitzu desberdinen arteko batura ez da %100, izan ere, pertsona batek zerbitzu edo prestazio bat baino gehiago jaso baititzake.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

2018 urteko emaitzak bilakaera-ikuspegi batean aztertuz gero, azken bost urteotan zehar antzeman daitekeen joera nagusietako batek etxebizitza berean bizi den pertsonaren baten bitartez zaintza informala jasotzen duten pertsonen murrizketa progresibo erlatiboa da. Ikus daitekeen bezala, 2012 urtean %65 izatetik, 2018 urtean %56 izatera pasa da horrelako zaintza jasotako pertsonen proportzioa, baina, hein batean, etxe berean bizi ez diren senideen artaren bitartez osatu omen da; beraz, zaintza informalaren garrantzia praktikoki konstante mantendu da %75ean azken urte hauetan zehar.


Azkenik, eta modu baikor batean, laguntza-premia duten lagunen artean zaintzaile informal bat edo zaintzaile izateko pertsona bat kontratatzen duten lagunen proportzioa ere murriztu egin da, hau da, erabat pribatu diren prestazioak: 2012 urtean %38 ziren, eta 2018 urtean %31.5. Edonola ere, datu horietatik uler daiteke gizarte zerbitzu publikoetako gutzitiko eskaintza –prestazio ekonomikoak barne– 10.000 plazetan handitu beharko litzatekeela laguntzarik jaso ez edo laguntza pribatua bakarrik jasotzen dutenak artatzeko.

3.2.3. Jarduera eta ariketa fisikoak

Ariketa fisikoak eta kirol-jarduerak duten ahalmenaren eragina ez da mugatzen osasun-arlorra edo ongizate pertsonalera. Horrek dituen eraginaren artetik, gizarte-harremanen garapena gerta daiteke eta, oro har, konexio, baliabide eta abantaila gama zabal bat, guztiok gizarte-kapital bezala ezagutzen duguna. Guztiarekin ere, eta balizko eragin onuragarriez gain, zientzia-literaturaren arabera, jarduera fisikoak eta/edo kirol-jarduera hertsiki dator lotuta adina, generoa edo pobrezia bezalako zenbait faktorekin. Ildo horretatik, azken urteotan egin izandako ikerketen arabera, laurogeigarren hamarkadatik ariketa fisikoari eta kirol-jarduerari dagokion interesa oso modu garrantzitsuan hazi dela erakusten dute, baina ariketa fisikoaren mailak apalagoa izaten jarraitzen du desabantaila sozioekonomikoan dauden kolektiboetan²².

GPGBIk erakusten duenez²³, 2018 urtean, 15 eta urte gehiagoko hiru pertsonetatik bik ariketa fisikoaren gutxienezko maiztasuna astean behingoa omen da, dela egunero (%24,3) edo ez (%42,4 astean aldi batzuetan). Aitzitik, hamarretik ia hiru lagun (%28,9) sedentario gisara sailka daitezke, izan ere, ez baitute egiten sekula ariketa fisikorik. Orokorrean, datu hauek, adibidez, osasun-inkestek eskainitakoekin bat etortzen dira, eta, zehazki, EAEko Osasun Inkestarekin, zeinak, 2018 urterako, osasuntsua den ariketa fisikoak egiten duen pertsonen proportzioa %67,9an zehazten baitu.

15. Grafikoa. Aisialdiko jarduera fisikoaren maiztasunaren araberrako biztanleriaren banaketa. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoak aztertzean, nabarmendutako alderik garrantzitsuenek adinarekin dute zerikusia (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula). Aldagai hori aztertzean, 'u minuskula' batean irudika daiteke ariketa fisikoak: biztanleria nerabe eta gaztearen artean ematen da maiztasunik altuena, eta gradualki beheratzen da gero, eta gutxieneko maila 45 eta 54 urteen bitartean ematen da. Hartatik aurrera, adin aktiboan atzean uzten duten adin-bitartean berriz ere hazi egiten da (65-74 urte), eta horren ondoren, gutxieneko mailara beheratzen da, 75 eta urte gehiagoko pertsonen artean.

23. Taula. Aisialdiko jarduera fisikoaren maiztasunaren araberrako 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, pertsonen eta etxebizitzaren zenbait ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)			Banaketa bertikala (%)			
		Egunero edo astean aldi batzuetan	Hilabetean aldi batzuetan	Inoiz ez edo oso noizik behin	Egunero edo astean aldi batzuetan	Hilabetean aldi batzuetan	Inoiz ez edo oso noizik behin	Guztizkoa
Sexua	Gizonezkoa	68,7	4,2	27,2	50,1	46,3	45,7	48,7
	Emakumezkoa	64,9	4,6	30,6	49,9	53,7	54,3	51,3
Adina*	15-24	83,5	3,2	13,3	12,8	7,4	4,7	10,2
	25-34	67,8	5,0	27,2	12,0	13,4	11,1	11,8
	35-44	62,1	6,7	31,2	16,9	27,9	19,6	18,2
	45-54	61,3	6,6	32,2	16,8	27,5	20,3	18,3
	55-64	67,7	4,3	27,9	16,0	15,5	15,2	15,7
	65-74	78,4	1,7	19,9	15,8	5,4	9,3	13,5
Nazionalitatea*	75 eta gehiago	52,5	1,0	46,5	9,7	2,9	19,8	12,3
	Espainiarra	68,9	4,4	26,7	92,2	89,8	82,4	89,3
Etxebizitzako diru-sarrera baldiokideak kintiletan*	Atzerritarra	48,4	4,1	47,4	7,8	10,2	17,6	10,7
	1. kintila	56,4	4,9	38,7	16,1	21,2	25,5	19,0
	2. kintila	62,8	3,1	34,1	18,9	14,2	23,8	20,1
	3. kintila	65,7	4,1	30,1	19,9	19,2	21,1	20,2
	4. kintila	69,0	5,1	25,9	19,8	22,6	17,2	19,2
Pobrezia erlatiboa*	5. kintila	78,5	4,6	16,9	25,2	22,8	12,5	21,4
	Presentzia	55,3	4,9	39,7	12,7	17,4	21,1	15,3
	Gabezia	68,8	4,3	27,0	87,3	82,6	78,9	84,7
	Bazterkeria larria	48,9	4,0	47,1	3,5	4,4	7,8	4,8
Gizarteratze-maila*	Bazterkeria moderatua	62,5	6,0	31,4	7,8	11,6	9,1	8,4
	Gizarteratze prekariora	61,5	3,9	34,6	26,4	25,8	34,2	28,6
	Erabateko gizarteratzea	71,3	4,4	24,3	62,3	58,2	49,0	58,3
Guztizkoa		66,7	4,4	28,9	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.


Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

²² García Ferrando, M. (2006) "Veinticinco años de análisis del comportamiento deportivo de la población española (1980-2005)", *Revista Internacional de Sociología*, 64. b., 44. zkia., 15-38 or.

²³ Galdetegian lehen aldiz jasotako galdera ondokoa izan zen: "Etxebizitzako kide bakoitzari buruz, esango al zenidake aisialdian gutxienez ordu erdi korrika egin, bizikletan ibili, kirola egin eta abar zein maiztasunez jarduera edo ariketa fisikoak egiten duten?"

Gainera, adinaz gain, nazionalitatea da desberdintasun gehien nabarmentzen diren beste ezaugarrietako bat. Atzerritar nazionalitatearen arabera pertsona sedentarioen proportzioa –hau da, aisialdian ariketa fisikoa sekula egin ez edo egitea oso arraroa dela diotenak– ia-ia kolektibo horren pertsonen erdiak osatzen du (%47,4); eta atzerritar nazionalitatearik ez duen biztanleriaren artekoa soilik %26,7ra heltzen da.

16. Grafikoa. Inoiz ez edo oso noizik behin ariketa fisikoa egiten duen 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, diru-sarreraren kintilen eta gizarteratze-mailaren arabera. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Beste azterlan batzuen tankeran, GPGBik ariketa fisikoa egiteko bai maila sozioekonomikoak (diru-sarreraren bitartez neurtua) bai gizarteratze-mailak zenbaterainoko garrantzia duen erakusten du. 16. Grafikoan ikus daitekeen bezala, diru-sarrera mailaren eta sedentarioak diren pertsonen proportzioaren artean erlazio nabarmena gerta-

tzen da, eta pertsona aberatsenen %20aren artean %16,9 sedentarioak dira, baina %38,7 izatera heltzen da diru-sarrera apalenak dituzten taldean.

Nahi beste ariketa fisiko egiten al du gipuzkoar biztanleriak? Galdera honi nagusiki baietz erantzuten diote, baina 15 urte eta gehiagoko hamar lagunetik 4k egiten dutena baino ariketa gehiago nahiko luke egin. Zalantzarik gabe, egindako ariketa fisikoarekin gogobetetze-mailari baxuena sedentario diren artean antzeman da. Guztien artean, ariketa fisiko handiagoa egin nahi lukeen %68,7 inguru –hau da, 120.000 bat lagun– pertsona sedentarioak dira.

Nahi bezain beste ariketa fisikorik egiten ez duten pertsonen –15 eta urte gehiagoko 242.700 lagun– aipatu izandako arrazoi nagusiak lanagatik astirik eza, familia eta etxeko lanak (%62,1 arentzat lehen arrazoiak), osasun-arazoak (%19,4), borondate eza edo nagikeria direla adierazten dute (%15,8). Azkenik, %2,6k beste arrazoi batzuk nabarmentzen ditu, eta haien artean, ekonomia-arlokoak (eta zehazki, baliabide ekonomikoaren gabezia) ez dira %0,7tik pasatzen.

Aipatutako arrazoi horiek oinarri hartuta, nahi beste ariketa fisikorik egiten ez duten pertsonen hiru talde oso argi bereiz daitezke:

- Adin aktiboko 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen artean ez izatea adierazten dute arrazoi nagusitzat, ziur aski, lanagatik eta adingabeak zaintzeagatik.
- Adin handieneko pertsonen gehienbat osasunari lotutako arazoei buruzko eragozpenak aipatzen dituzte.
- Azkenik, adin txikiaren pertsonen eta bazterkeria-egoera larria edo oso diru-sarrera apalak dituzten pertsonen besteek baino gehiago aipatzen dute borondate eza edo nagikeria.

24. Taula. Nahi bezain beste ariketa fisiko ezin egiteko adierazitako arrazoiaren arabera 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, pertsonen eta etxebizitzaren zenbait ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)						
		Egunero edo astean aldi batzuetan jarduerak fisikoa egiten du	Ez dute nahi bezain beste ariketa egiten*	Nahi bezain beste ariketa fisiko ez egiteko arrazoiak *				
				Astirik eza	Osasun-arazoak	Borondate eza	Beste arrazoi batzuk	Guztizkoa
Sexua*	Gizonezkoa	68,7	38,9	67,8	14,5	15,5	2,2	100,0
	Emakumezkoa	64,9	40,9	57,0	23,8	16,1	3,0	100,0
	15-24	83,5	16,7	64,8	4,5	27,2	3,5	100,0
	25-34	67,8	35,2	76,5	2,6	20,0	0,9	100,0
	35-44	62,1	57,9	79,3	3,6	14,2	2,9	100,0
	45-64	64,3	44,4	65,8	15,7	15,5	3,1	100,0
	65 eta gehiago	66,0	32,8	26,8	56,9	14,2	2,2	100,0
Nazionalitatea**	Espainiarra	68,9	38,3	61,2	20,9	15,7	2,2	100,0
	Atzerritarra	48,4	53,5	67,6	10,5	16,7	5,2	100,0
Etxebizitzako diru-sarrera balioak kintiletan**	1. kintila	56,4	41,0	49,5	23,8	19,8	6,9	100,0
	2. kintila	62,8	39,5	53,7	26,1	17,8	2,4	100,0
	3. kintila	65,7	36,2	68,3	17,4	14,0	0,3	100,0
	4. kintila	69,0	45,5	69,6	17,3	10,5	2,6	100,0
	5. kintila	78,5	37,8	68,9	12,7	17,6	0,8	100,0
Gizarteratze-maila*	Bazterkeria larria	48,9	35,0	35,4	38,7	22,8	3,0	100,0
	Bazterkeria moderatua	62,5	42,0	56,0	28,3	10,2	5,5	100,0
	Gizarteratze prekarioa	61,5	42,6	60,1	20,2	15,5	4,2	100,0
	Erabateko gizarteratzea	71,3	38,7	66,2	16,2	16,4	1,3	100,0
Guztizkoa	66,7	39,9	62,1	19,4	15,8	2,6	100,0	

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak, 'nahi den ariketa fisikoan' [+] eta 'arrazoietan' [*].

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.3. Jarduera eta laneko baldintzak

3.3.1. Okupazioa eta lan-intentsitatea

GPGBIren argitalpen honetako emaitzek erakusten duteenez, inkesta egindako unean Gipuzkoako 315.000 lagunek lan egiten zutela adierazi zuten, eta langabezia zeudela ia 35.500 lagunek. Azken horien artean ia %14k enplegu-bilaketa aktiborik ez zuela egiten adierazi zuen, eta horren ondorioz, teknikoki, 30.700 pertsona langabetu izango lirake. Datu horien ondorioz, lurralde osorako langabezia-tasa %8,9koa izango litzateke, beraz, Eustaten Biztanleria Jardueraren arabera sailkatzeko Inkestarekin kointzidentzia-maila oso altua izango luke; zeinak 2017 urteko azken hiruhilekoaren tasa %8,4koa dela baitio, eta 2017 urtean zeharreko batezbestekoa %8,9. Bilakaera-ikuspegi batetik, GPGBIk bildutako datuen arabera, bestetik, biztanleria aktiboari buruzko berriarazko operazioen kasuan bezala, 2012 eta 2017 urteen artean enplegu-berreskuratzeko garrantzitsua gertatu omen da –biztanle okupatuaren zenbatekoa %6,2 hazi da aldi horretan– eta langabezia-tasa oso nabarmen murriztu da 2014 urtetik.

Parametro handi horietaz kanpo, nahikoa ezagun direnak Euskadin egindako Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta zehatz eta aldizkakoaren bitartez, eta Estatu osoan Biztanleria Aktiboaren Inkestaren bitartez, GPGBIko datuek aparteak aukera eskaintzen dute enpleguak –pobreziaren aurka onik irtezeko osagai izateari utzi dionak– eta haren baldintzek (lan-intentsitatea, soldata-mila, kontratazio mota, etab.), edo enpleguaren gabeziak, azterlan honetan aztertzen diren prekaritate- eta bazterkeria-egoerekin duten zerikusia aztertzeko.

Hurrengo taulan, etxebizitzetako lan-intentsitatearen arabera 60 urtez azpiko biztanleriaren banaketa agertzen da. Adierazle honek etxebizitza baten okupazio-mailaren arabera banatzen du biztanleria, etxebizitzan potentzialki aktibo diren pertsonen arabera osatzen da: bakoitzak urtean zehar lan egindako hilabete-kopuruaren eta betetako lanaldiaren arabera.

Adierazle hori egoki ulertzeko, haren gutxieneko eta gehieneko balioak 0 (ez du pertsona aktibo batek lan egin) eta 1 (erabateko okupazioa) bitartean daudela azaltzea garrantzitsua da; eta etxebizitza osoa ezaugarritzen duen neurria dela.

2018 urtean lortutako emaitzek (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula), lehenik, 60 urtez azpiko pertsonetatik %13,6 lan-intentsitate maila ertain edo baxuko (%5,8) edo oso baxuko (%7,9) etxebizitzetan bizi da. Lan-intentsitate bereziki baxuak bizi dituzten pertsonen artean (lan-potentzialaren %20aren azpitik), pertsona nagusia atzeritar nazionalitatekoa edo emakumea denean gertatzen da gehienik. Horretaz gain, baina neurri apalagoan, 45 urtez azpiko pertsona nagusia duten etxebizitzetara nabarmen eragiten die.

Espero zitekeen bezala, bestetik, etxebizitzako lan-intentsitate mailaren eta pobrezia monetarioko eta gizarte-bazterketako egoeren artean oso erlazio argia dago. Pobrezia edo pobrezia erlatiboko egoerei dagokienez, egoera horretan dauden hamar lagunetik ia hiru oso baxua den lan-intentsitateko etxebizitzetan bizi dira, eta %8,3 oso lan-intentsitate maila baxuko etxebizitzetan (lan-potentzialaren %80 baino gehiago). Halaber, **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taulako banaketa bertikaleko ehunekoei kontu hartuz gero, oso lan-intentsitate apala duten etxebizitzetako pertsona guztietatik %30,5ak ez du bizi pobrezia-egoerarik; eta hein batean behintzat gizarte-transferentziengatik gertatzen da hori; etxebizitza horietako diru-sarreretan pentsio-sistemaren, langabezia-prestazioen eta gutxieneko errenten eraginagatik. Pobrezia monetarioko egoerekin gertatzen den bezala, gizarte-bazterketaren kasuan ere bereziki altua izaten da oso lan-intentsitate baxuko egoeren prebalentzia etxebizitza horietan. Kasu honetako datuen arabera, gizarte-bazterketa egoeran dagoela uler daitekeen biztanleriaren heren bat inguru bizi da %20 azpiko lan-intentsitatea duten etxebizitzetan.

25. Taula. Etxebizitzako lan-intentsitatearen arabera 60 urtez azpiko biztanleriaren banaketa, erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera.. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				
		Oso baxua <0.2	Ertain-baxua 0.2-0.5	Ertain-altua 0.5-0.8	Oso altua 0.8-1	Oso baxua <0.2	Ertain-baxua 0.2-0.5	Ertain-altua 0.5-0.8	Oso altua 0.8-1	Gutzizkoa
Sexua*	Gizonezkoa	6,5	5,3	36,3	51,8	63,4	71,5	82,5	76,3	77,1
	Emakumezkoa	12,6	7,2	25,9	54,3	36,6	28,5	17,5	23,7	22,9
Adina*	<45	9,3	4,2	32,2	54,3	68,7	33,1	40,8	45,5	44,6
	45-59	3,4	6,8	37,5	52,3	31,3	66,9	59,2	54,5	55,4
Nazionalitatea*	Espainiarra	6,0	5,3	32,5	56,1	68,2	82,8	85,4	95,5	89,2
	Atzeritarra	23,2	9,2	45,9	21,7	31,8	17,2	14,6	4,5	10,8
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	30,4	14,7	46,5	8,3	69,5	46,1	24,6	2,8	18,0
	Gabezia	2,9	3,8	31,2	62,1	30,5	53,9	75,4	97,2	82,0
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	32,0	14,1	37,5	16,5	60,7	36,6	16,5	4,7	15,0
	Gabezia	3,6	4,3	33,3	58,7	39,3	63,4	83,5	95,3	85,0
Gutzizkoa		7,9	5,7	33,9	52,3	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Langabeziarekin batera (atal honetako 3.3.4. epigrafean xeheki aztertzen den gaia), enpleguaren izaera partziala langileen, eta haien etxebizitzaren, lan-intentsitate maila baxuko egoerak zehazten dituen faktore nagusia da. GPGBIk azaleratzen duenez, 2018 urtean, lan-merkatuko biztanleria okupatuaren %12,9k astean 30 orduz azpiko lanaldia betetzen du. Proporzio horrekin 2014 urtean jasotako ehunekoaren (%16,4) murrizketa erlatibo bat gertatu da; eta lanaldi partzialean lan egiten duten 40.700 bat pertsona landun daudela esan nahiko luke.

Enpleguaren izaera partzial hori, jakinekoa den bezala, ez da banatzen biztanleria okupatua modu homogeneo batean. Ildo horretatik, emakumeen artean ematen da izaera partzialeko ehunekorik altuena –lanaldi partziala duten hamar lagunetik 8 emakumeak dira– eta gazteen artean –25 urtez azpiko 4 biztanlerik ia 1ek lanaldi partziala betetzen du–. Bestetik, atzerritar nazionalitatea duten pertsonen arteko lanaldi partzialeko enplegua (%21,5) nabarmen altuagoa da, baita guraso-bakarrek osatutako langileen etxebizitzetan ere (%20).

26. Taula. Denbora partzialeko dedikazioko biztanleria landunaren ehunekoak (<30 ordu/astean) eta zenbait aldagaien arabeko banaketa. Gipuzkoa 2018

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)	
			Lanaldi partziala	Biztanleria landun osoa
Sexua*	Gizonezkoa	4,1	17,4	54,2
	Emakumezkoa	23,3	82,6	45,8
Adina	<25	25,6	8,0	4,0
	25-34	12,5	16,5	17,1
	35-49	13,0	44,1	43,7
	50 eta gehiago	11,6	31,4	35,2
Nazionalitatea*	Espainiarra	11,8	79,8	87,8
	Atzerritarra	21,5	20,2	12,2
Guraso-bakarra	Bai	20,0	10,5	6,8
	Ez	12,4	89,5	93,2
<15 urte etxebizitzan	Bai	15,5	38,8	32,3
	Ez	11,7	61,2	67,7
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	33,3	25,8	10,0
	Gabezia	10,7	74,2	90,0
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	19,0	12,9	8,8
	Gabezia	12,4	87,1	91,2
Guztizkoa		12,9	100,0	100,0


* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Gehienbat 2016 urtetik aurrera Gipuzkoan izandako enplegu-mailaren errekupeazioa gertatu arren, denbora partzialeko dedikazioko enpleguak erlazio hertsia mantentzen du pobrezia-egoerekin eta, neurri apalagoan, bazterkeria-egoerekin. GPGBIko datuek erakusten dutenez, pobrezia-egoeran dauden lagunen enplegu partzialeko tasa %33,3koa da, eta %19koa bazterkeria-egoeran dauden tasa.

Ezin da alboratu, ildo horretatik, hein handi batean denbora partzialeko lanak nahi gabeko egoerekin duen zerikusi altua (lanaldi partziala duten pertsona guztietatik %44,6k arrazoi nagusi gisara, lanaldi osoko lan bat ez topatu izana adierazten dute), baita familia-bizitzarako eta lan-arlorako kontziliazio-premiengatik ere (%23,5k adingabekoen edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza argudiatzen du). Edonola ere, oso alderdi baikor gisara, argi eta garbi egoera hori haien gogoz bizi ez dutela adierazten duten pertsonen proportzioan izandako murrizketa nabarmendu behar da.

17. Grafikoa. Denbora partzialeko lanaldia duen biztanleria adierazitako arrazoi nagusiaren arabeko banaketa. Gipuzkoa 2014-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

3.3.2. Soldaten maila

2018 urtean, Gipuzkoako soldatapeko biztanleriaren hilabeteko batez besteko soldata garbia²⁴ 1.648 euro-tan kokatu zen.


Azken aldiko bilakaerari dagokionez, eta 2012 eta 2014 urteen artean ezagututako paralisi erlatiboaren ondoren, aldi horretako batez besteko soldata aldagaitz mantendu zena, 2018 urteari dagozkion datuek orain hiru urtekoen aldean %6 hazi dela erakusten dute. Beraz, termino konstanteetan, Gipuzkoako pertsona landunen 2014 urteko batez besteko soldata 1.552 euro/hilabeteko izatetik, 2018 urtean 1.648 euro izatera pasa da.

Bestalde, batez bestekoa aztertu orde medianan²⁵ aztertzen denean, lortutako emaitzak ordainsari medianaren tankerako hazkuntza agertzen du: 1.418tik 1.516 euro konstantera.

²⁴ Kalkulu honek kontuan ditu egoera profesional guztiak, enpresari eta enplegatzaileak izan ezik, eta barneratzen ditu bai ohiko soldata eta aparteko ordainsarien hainbanaketa, baita autonomoen kasu espeziikoan autoenplegu erregimenetik eratorritako diru sarrerak ere. Langile hauek biztanle landunen ia %97a suposatzen du.

²⁵ Neurri horrek soldata jasotzen duen biztanleria tamaina bereko bi zatitan banatzen dute, soldata gutxieta eta gehiena jasotzen dutenen artekoa.

18. Grafikoa. Hilabeteko soldata garbiaren arabera (euro konstanteetan) soldatapeko biztanleriaren banaketa. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.


Biztanleria landunaren batez besteko soldatan ezagutu-tako hazkundera nabarmenago ikus daiteke erdiguneko joerei kontu hartu ordez, adibidez, batez bestekoa edo mediana, soldata-tartearen banaketa aintzat hartzen denean.

Aurretiko aldiak ikus zitezkeen egoeraren aldean (gehien eta gutxien jasotzen zutenen garrantzia erlatiboak gora egiten zuen), 2018 urteko datuek oso baxuak diren soldatak jasotako biztanleen kopurua beheratu egin izana iradokitzen dute, baita batez besteko soldatetik gora jasotako langileen berariazko garrantziaren hazkundera ere. Izan ere, 2014 eta 2018 urteen bitartean, 800 euro baino gutxiagoko soldatak dituen jendearen proportzioa %15,2 izatetik %10,5 izatera pasa baita; eta 1.600 euro baino gehiagoko soldatak jasotzen dituen, 2014 urtean %41,3 izatetik, egungo %47,7ra pasa baita.

2018 urtean jasotako datuek, beraz, 2014 urtearen aldean soldata-desberdintasunak murriztu egin direla iradokitzen dute. Gertakari hori argi ikus daiteke 19. Grafikoan, zeinak kintilen bitartez soldataren medianak izandako bilakaera azaltzen baitu. Grafiko horren arabera, 2014 eta 2018 urteen bitartean, gehien hazitako soldata-tarteak, ordena horretan jarrita, 1. kintilari (soldatarik apalena duen biztanleriaren %20a hartzen duena), 2 eta 3. kintilei dagozkie; eta neurri apalagoan azken kintilari, zeinak ezagutu izandako hazkundera %1,4koa izan baita.

Aurretik aipatutakoren ondorio, soldatarik altuena jasotzen duten %20aren eta soldatarik baxuena jasotzen duten %20aren ratioa (Q5/Q1) 2014 urtean 4,2 izatetik 2018 urtean 3,2 izatera pasa da. Halaber, bitarteko taldearen (3. kintila) eta lehen kintilaren (Q3/Q1) 2014 urtean 2,3 izatetik 2018 urtean 1,9 izatera pasa da.

19. Grafikoa. Soldatapeko biztanleriaren hilabeteko soldata mediana garbiaren bilakaera (euro konstanteetan) kintiletan eta azken eta lehen kintilen arteko ratioa. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

27. Taula. Jasotako soldata garbiaren arabera soldatapeko biztanleriaren banaketa, zenbait adierazleren arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				
		<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	Gutzizkoa
Sexua*	Gizonezkoa	11,1	27,5	28,9	32,6	34,1	50,7	60,9	61,7	53,5
	Emakumezkoa	24,6	30,7	21,3	23,3	65,9	49,3	39,1	38,3	46,5
Adina*	<25	45,8	31,4	19,0	3,8	9,9	4,1	2,8	0,5	3,8
	25-34	21,8	33,9	28,4	15,8	21,4	19,9	19,1	9,5	17,0
	35-49	14,7	31,1	28,1	26,1	37,7	47,8	49,4	41,2	44,6
	50 eta gehiago	15,6	23,6	21,1	39,7	31,0	28,2	28,8	48,7	34,6
Nazionalitatea*	Espainiarra	14,8	27,0	26,9	31,4	74,5	81,4	92,9	97,2	87,6
	Atzerritarra	35,7	43,4	14,6	6,3	25,5	18,6	7,1	2,8	12,4
Ikasmaita*	Lehen-maila	31,1	35,9	20,5	12,5	44,0	30,4	19,9	10,8	24,6
	Bigarren-maila	15,9	34,1	31,1	19,0	37,1	47,7	49,8	27,4	40,6
	Goi-maila	9,4	18,2	22,1	50,2	18,9	21,8	30,3	61,8	34,8
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	56,4	29,2	13,0	1,5	32,3	10,0	5,1	0,5	9,9
	Gabezia	13,1	29,0	26,7	31,2	67,7	90,0	94,9	99,5	90,1
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	38,7	31,1	21,3	8,9	19,2	9,2	7,2	2,7	8,6
	Gabezia	15,4	28,8	25,7	30,1	80,8	90,8	92,8	97,3	91,4
Gutzizkoa		17,4	29,0	25,4	28,3	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Diru-sarrera garbien banaketa nabarmen aldatzen da biztanleriaren aldagai soziodemografiko nagusiak aztertzerakoan. Sexua, adina, nazionalitatea eta lortutako ikasmaita altuenak lan-desberdintasunari oso sarri lotutako aldagaiak izaten dira. Kasu honetan (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula), maizena 1.000 euro baino gutxiagoko soldata bat jasotzen duten talde horiek lan-merkatu berriki batutako langileak (25 urtez azpiko biztanleen ia %46k ez du hilabeteko 1.000 euro baino gehiagoko soldatarik jasotzen), atzerritar nazionalitateko pertsonak (%35,7) eta lehen ikasketak bakarrik lortu dituzten lagunak izaten dira (%31,1). Genero-desberdintasunek ere garrantzia handia dute: 4 emakumetik ia 1ek 1.000 euro azpiko soldata jasotzen du; eta gizonen artean, 10etik 1ek.

Soldata-mailaren eta pobrezia monetarioaren arteko erlazio argia nabarmentzen da, noski, eta bazterketa-egoeren artekoa neurri apalagoan. Pobrezia erlatiboko egoera bizi duten soldatapeko langileen erdiak baino gehiagok (%56,4) eta bazterkeria-egoeran bizi denetik %40 inguruk 1.000 euroz azpiko soldata jasotzen du.

Jasotako emaitzek, bestetik, soldata-mailari enplegu-ezaugarri batzuk nola eragiten dioten aztertzea ahalbidetzen dute (kontratu, lanaldi edo jarduera-sektore mota).

Gehien eragiten duen faktorea, nabarmen, enpleguaren izaera partziala da. Lanaldi partziala duten langileen bi herenen soldata (<30 ordu/asteko) ez da iristen 1.000 eurotara. Are gehiago, banaketa bertikala aztertuz gero, 1.000 euro baino gutxiago jasotzen duten lagunetatik erdia lanaldi partziala duten soldatapeko langileak dira. Izaera partzialaz gain, aldi baterako kontratazioak oso nabarmen hazten du diru-sarrera apalak jasotzeko probabilitatea: aldi baterako kontratua duten langileen bi herenek 1.500 euroz azpiko soldatak jasotzen ditu; eta lan-kontratu mugagabeak dituztenen arteko proportzio hori %40,5ekoa da. Azkenik, zerbitzuetako sektorean lan egiten duten langileen egoera eta industrian lan egiten duten egoerarekin konparatuz gero: industriaren sektoreko langileetatik %7,2k bakarrik jasotzen du 1.000 euroz azpiko soldata bat, baina zerbitzuen sektoreko proportzio hori %22,3 izatera iristen da.

28. Taula. Jasotako hileko soldata garbiaren arabera soldatapeko biztanleriaren banaketa. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				
		<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	Gutzizkoa
Kontratu mota*	Mugagabea	13,3	27,2	27,6	31,9	56,4	72,1	81,0	86,5	75,6
	Aldi batekoa eta beste batzuk	31,8	32,6	20,1	15,5	43,6	27,9	19,0	13,5	24,4
Lanaldi mota*	Partziala (<30 ordu/asteko)	67,9	16,4	11,5	4,2	50,1	7,3	5,8	1,9	12,8
	Osoa (>=35 ordu/asteko)	9,3	30,0	29,7	31,0	44,3	83,3	93,6	94,4	82,2
Sektore ekonomikoa*	Industria	7,2	21,7	34,8	36,2	8,9	16,2	29,7	27,7	21,6
	Zerbitzuak	22,3	30,1	22,4	25,3	90,9	73,6	62,6	63,6	71,0
	Besteak	0,3	39,9	26,5	33,4	0,1	10,1	7,7	8,7	7,4
Gutzizkoa		17,4	29,0	25,4	28,3	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.3.3. Bestelako laneko baldintza batzuk

2018 urteari dagozkion GPGBIko datuen arabera, 2018ko biztanleria landunen gehiengoak Gizarte Segurantzari kotizatzen dio; eta ez du kotizatzen %1,6k. Bestetik, soldatapeko lana duten biztanleetatik %21k aldi baterako kontratua du; eta %3,8k kontraturik gabe lan egiten du. Bestalde, jasotako informazioaren arabera, gaur egun lan egiten duten 10 lagunetatik ia batek azken urtean, gehienez ere, zortzi hilabetetan egin du lan; eta %3,3k lau hilabete baino gutxiago.

2014 urteari dagokionez, GPGBIko aldi honetako datuen arabera, kotizatzen ez duten langileen proportzioa

oso maila baxuetan mantentzen da (2014 urtean %1,9 eta 2018 urtean %1,6), eta kontraturik gabeko soldatapeko langileen proportzioan hazkunde bat gertatu da (2014 urteko %1,1etik 2018 urteko %3,8ra), Eustaten Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko Inkestak egiaztatzen ez duena. Bestetik, enpleguaren suspertzea ageri duten adierazleen antzera, oso lan-intentsitate maila apaleko landunen proportzioa beheratu izana nabarmendu behar da (2014 urtean %5,5 eta 2018 urtean %3,3).

¡Error! No se encuentra el origen de la referencia..
Taulako datuen arabera, laneko prekaritate handiena biztanle gazteez gain (egoerak konparatuz gero, okerren dagoen biztanle-taldea), atzerriko nazionalitateko pertsonak, ikasmaita apalena duten biztanleak eta emakumeak izaten dira.

29. Taula. Biztanleria landunaren banaketa, zenbait aldagaien arabera. Gipuzkoa 2018
Banaketa horizontala (%)

		Gizarte Segurantzari kotizazioa			Kontratu mota (soilik soldatapeko pertsonak)			Azken urteko enpleguaren iraunkortasuna (hilabeteak)		
		Beste norbaitentzat	Norberarentzat (autonomoa)	Kotizaziorik gabea	Mugagabea	Aldi batekoa eta beste batzuk	Kontratu gabea	3 edo gutxiago	4-8	9 edo gehiago
Sexua	Gizonezkoa	81,4	17,8	0,8	75,8	19,8	4,4	3,6	4,7	91,8
	Emakumezkoa	86,3	11,1	2,6	75,4	21,5	3,1	3,0	8,1	88,9
	<25	96,1	0,0	3,9	33,9	60,5	5,6	19,5	21,3	59,2
Adina	25-34	89,7	8,3	1,9	61,2	34,6	4,3	5,8	9,7	84,6
	35-49	83,2	16,0	0,8	77,9	19,0	3,1	2,3	6,0	91,7
	50 eta gehiago	79,8	18,0	2,2	86,7	9,2	4,1	1,0	2,7	96,3
		83,2	15,5	1,3	78,8	17,7	3,4	2,5	5,9	91,5
Nazionalitatea	Espainiarra	86,8	9,0	4,2	55,2	38,7	6,1	8,7	8,6	82,7
	Atzerritarra	76,9	19,0	4,1	67,7	26,3	6,0	4,0	6,8	89,2
	Lehen-maila	85,3	13,8	0,8	80,9	14,7	4,4	3,0	6,6	90,4
Ikasmaita	Bigarren-maila	86,4	12,8	0,8	74,8	23,6	1,5	3,1	5,5	91,4
	Goi-maila	79,8	9,9	10,3	56,6	30,7	12,6	6,0	7,3	86,7
Pobrezia erlatiboa	Presentzia	84,0	15,3	0,7	77,8	19,4	2,7	3,0	6,1	90,9
	Gabezia	83,6	14,7	1,6	75,6	20,6	3,8	3,3	6,3	90,4

* Oso kasu gutxi daudenez, taula honetako emaitzak oso kontuz interpretatu behar dira, gehienbat, biztanleria-talde batzuen gizarte-segurantzari ez kotizatzeagatik eta kontratu gabeko soldatapeko langileen intzidentziari dagokionean.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.3.4. Langabezia


Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren arabera, inkesta egindako unean, Gipuzkoako 35.000 biztanle langabezia-egoeran zeudela adierazi zuten. Aurreko zenbatekoa aktibo dauden gipuzkoar biztanleen %10 da, eta gipuzkoar biztanleria osoaren %5. Langabezian egotea adierazitako pertsonetatik ia %14k ez du aipatzen lan-bilaketa aktiboko egoerarik, beraz, lan egiten dutenak soilik aintzat hartuz gero, hasierako kopurua 30.700 lagunera murriztuko litzateke, hau da, biztanleria aktiboaren %8,9. Azken hiru urtetako adierazle horren bilakaera positiboa izan da, izan ere, 2014 urtean, langabezian zeudela edo lan-bila ari zirela adierazitako pertsonen zenbatekoa biztanleria aktiboaren %12koa omen zen.

Bestelako inkestek eta berriazko erregistroek langabezian dagoen biztanleriaren ezaugarriak egoki deskribatu arren –Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta edo Lanbiden jasotako langabezia-datuak–,

ondoren, Gipuzkoako langabetuei buruzko zenbait datu aurkezten dira, dela langabezian igarotako denboraldiari buruz, dela lan-bilaketa aktiboa eta prestakuntzari edo talde horren baitako pobrezia- eta bazterketa-prebalentziari dagozkionak.


2018 urteko enplegu-bilaketa aktiboan dauden langabetu guztiei buruzko datuen arabera, langabezian 10 edo hilabete gutxiago darama %43,k eta 13 eta 24 hilabete bitartean %21,1k; eta egoera horretan bi urte baino gehiago darama heren batek. Datu hauek orain dela hiru urtekoekin konparatuz gero, oso epe luzeko langabezia arinki beheratu dela ikus daiteke: 2014 urtean egoera hori bizi zuen hamar langabetutik ia 4k; eta 2018 urtean %35,1 dira. Aitzitik, urtebete edo gutxiago daramaten lagunetatik ia %44 2018 urtean; 2014 urtean jasotako %37,2aren aldean.

20. Grafikoa. Biztanleria langabetuaren bilakaera, enplegu bila daramaten denboraren arabera. Gipuzkoa 2014-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

21. Grafikoa. Biztanleria langabetuaren bilakaera, azken urtean betetako prestakuntza-jarduera desberdinen arabera. Gipuzkoa 2014-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Datuak testuinguruan egoki ulertzeko, Gipuzkoako eta, orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasak beste autonomia-erkidegoen aldean askoz ere baxuagoak izatea dute ezaugarri; baita iraunaldi luzeko tasa erlatibo altuagoak ere, prestakuntza baxuko pertsonak eta/edo jubilatzeko gertu daudenak protagonista dituzten egiturazko langabeziari oso erlaxionatuak.

Langabezia 2 urte baino gehiago daraman biztanle-taldearen ezaugarri dagokionean: %52,2 gizonak dira; eta lehen ikasketak ditu, gehienaz ere, %50,9k. Gainera, %33,7 berrogeita hamar urte edo gehiagoko biztanleak dira; eta %34,6k atzeritar nazionalitatea du. Talde honetako pobrezia erlatiboaren prebalentzia %70,4koa da, eta %62,7 gizarte-bazterketarena.

Prestakuntzari dagokionez, GPGBiko datuek erakusten dutenez, 10 langabetuetatik 2k prestakuntza-ikastaroren bat egin du azken urtean, dela Lanbidekoa (%13,3) edo beste mota batekoa, adibidez, hizkuntza-edo informatika-ikastaro bat (%8,2); trebakuntza profesionala hobetzear egindakoa. 2014 eta 2018 urte bitarteko bilakaera-datuen arabera, prestakuntza-ikastaroren bat egindako langabetuen proportzioa %34,4 izatetik %20 izatera beheratu dela iradokitzen dute. Bestetik, azken urtean prestakuntza-ikastarorik egin gabeko langabetuen artean, atzeritar nazionalitateko pertsonak (%87,4), 35 urtez azpiko pertsonak (%86,9) eta lehen ikasketak bakarrik dituzten biztanleak (%86,8) nabarmentzen dira. Bestetik, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean prestakuntza ohikoagoa dela nabarmentzen daiteke, baita bitarteko adin-taldeetako pertsonen artekoa ere.

30. Taula. Biztanleria langabetuaren banaketa, pertsonen eta etxebizitzien zenbait ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2018

		Langabeziaren iraupena				Azken urteko prestakuntza				Pertsona langabeen guztizkoa (%)
		<=12 hilabete		+24 hilabete		Ikastaroak egin ditu		Ez du egin ikastarorik		
		% horizontala	% bertikala	% horizontala	% bertikala	% Horizontala	% bertikala	% horizontala	% bertikala	
Sexua	Gizonezkoa	35,8	36,6	40,9	52,2	18,5	41,3	81,5	45,6	44,8
	Emakumezkoa	50,3	63,4	30,3	47,8	21,2	58,7	78,8	54,4	55,2
Adina	<35	54,6	46,0	23,3	24,5	13,1	24,2	86,9	40,1	36,9
	35-49	41,1	35,4	38,8	41,8	30,6	57,7	69,4	32,7	37,7
	50 eta gehiago	32,2	18,6	46,6	33,7	14,3	18,1	85,7	27,2	25,4
Nazionalitatea	Espainiarra	42,5	68,1	32,7	65,4	23,1	81,2	76,9	67,4	70,2
	Atzeritarra	46,9	31,9	40,7	34,6	12,6	18,8	87,4	32,6	29,8
Gehienezko ikasmaila	Lehen-maila	36,8	33,6	44,6	50,9	13,2	26,4	86,8	43,4	40,0
	Bigarren-maila	39,8	35,0	37,4	41,0	19,3	37,1	80,7	38,9	38,5
	Goi-maila	64,0	31,4	13,2	8,1	34,0	36,5	66,0	17,7	21,5
Pobrezia erlatiboa	Presentzia	33,6	42,7	44,4	70,4	23,6	65,9	76,4	53,1	55,7
	Gabezia	56,6	57,3	23,4	29,6	15,4	34,1	84,6	46,9	44,3
Gizarte-bazterketa	Presentzia	33,5	40,0	42,0	62,7	16,9	44,1	83,1	54,4	52,3
	Gabezia	55,2	60,0	27,5	37,3	23,4	55,9	76,6	45,6	47,7
Guztizkoa		43,8	100,0	35,1	100,0	20,0	100,0	80,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Langabezian daudela adierazitako pertsonen buruzko datuek, bestetik, enplegu-bilaketan ari direla adierazi edo ez (2018 urtean 35.000 lagun), langabezian daudela adierazitako lagun guztietatik %35,2 (12.500 bat pertsona) etxebizitzako pertsona nagusiak dira, edo beste modu batean esanda, etxebizitza guztietatik %4,2k pertsona nagusia langabezia-egoeran du. 2014 urtearen aldean, bi adierazleek ere beherakada garrantzitsuak izan dituzte, izan ere, urte hartako langabetuen arteko etxebizitzako pertsona nagusien ehunekoa %41,3koa baitzen, eta etxeko erreferentziako pertsona langabetua zen kasuak etxebizitza guztietatik %7,7 izan ziren. Langabezian dauden pertsonen araberrako etxebizitzaren egoerak ere hobera egin du. 2014 urteko datuen arabera, etxebizitzetatik %16,4k langabezian zegoen kidearen bat zuen, eta 2018 urteko proportzio hori hamar etxebizitzetatik batekoa besterik ez da.

Etxebizitzako erreferentziako pertsona langabetua izaten den berariazko egoerei dagokionez, GPGBIko emaitzek pobrezia- eta prekarietate-egoerak zerbateraino hedatzen diren ezagutzera ematen dute. Izan ere, 31. Taulan ikus daitekeen bezala, etxebizitza hauetako pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera baxuen tasek laukoiztu egiten dute gipuzkoar etxebizitza guztien araberrako tasa. Hori azaltzeko, etxebizitza horietako errenta medianaren baliokidea (825 euro), praktikan, etxebizitza guztien errentaren erdia dela argitu behar da.

Bestalde, izaera larrireneko gabezia material eta gizarte-bazterketa egoerak kontuan hartuz gero, etxebizitza erreferente langabetua den hamar etxebizitzetatik lauk bizi omen du horrelako problematikaren bat.

31. Taula. Pertsona nagusia langabetua den etxebizitzetako pobrezia-, kalteberatasun- eta bazterketa-egoerak. Gipuzkoa 2018

	Pertsona nagusia langabetua duten etxebizitzak	Etxebizitzaren guztizkoa
Pobrezia erlatiboa	72,9	16,3
Pobrezia larria	31,6	4,3
Gabezia material larria	41,8	6,4
Gizarte-bazterketa larria	43,6	5,3
Errentaren mediana baliokidea	825	1.517
Etxebizitza guztien %	4,2	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Zein ezaugarri dituzte etxebizitza horiek? Lortutako emaitzen arabera, kasu horietatik %42,4 pertsona bakarrek osatutako etxebizitzak izaten dira, eta %31,8k erreferentziako pertsona atzeritarrak du. Bestetik, pertsona gurasobakarrek osatutako etxebizitzaren garrantzia ere oso nabarmena da (%17, baina berez, etxebizitza guztien %7,7 besterik ez dira), baita emakumeak buru dituzten etxebizitzena ere.


3.4. Gastua eta zorpetzea

3.4.1. Etxebizitza-gastua eta hilabete bukaerara iristeko zailtasunak

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren arabera, 2018 urteko etxebizitza gipuzkoarren hilabete bategi besteko gastua 1.679 eurotara iritsi zen²⁶. Zenbateko hori etxebizitza bakoitzaren hilabete bategi bategi bestekoarekin erlazionatuz gero, emaitza hilabete bategi bategi besteko araberrako %70eko gastua da.

22. Grafikoan ikus daitekeen bezala, etxebizitzetatik %18,3k, gehienaz ere, diru-sarreraren %50 gastu-maila du; eta %38,3k %51 eta %75 bitarteko gastua egingo luke. Beste alde batetik, gastu-maila %76 eta %100 bitartekoa den biztanleen proportzioa tankerakoa da, %38,7koa. Azkenik, etxebizitzetatik %5ak diru-sarrera mailaz gorako gastu-maila mantenduko luke, eta ez luke izango, horren ondorioz, inolako aurrezki-gaitasunik; eta zorrei aurre egin beharra izango luke. 2014 urtetik ezagutu izandako hobekuntza ere nabarmena izan da, izan ere, diru-sarbidetaren araberrako gastu-mailarik altueneko etxebizitzaren berariazko garrantzia asko beheratu baita.

22. Grafikoa. Hilabete bategi bategi besteko araberrako etxebizitzaren banaketa. Gipuzkoa 2014-18 (Diru-sarreraren araberrako gastuaren %)



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.


Orain dela hiru urte baino egungo egoera konparazioan hobea izan arren, gai hori ikuspegi subjektibo batetik aztertzen dela baieztatzen da, eta kasu honetan, hilabete bategi bategi besteko bukaerara iristeko zailtasunari buruz etxebizitza propioetako pertzepzioan oinarritzen dira.

2018ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestako emaitzen arabera, gaur eguneko etxebizitzetako diru-sarreraren mailarekin hilabete bukaerara iristeko etxebizitzetatik %11,9k zailtasun garrantzitsuak dituela adierazten du. Zehazki, zailtasunak dituzte hilabete bukaerara iristeko %8,3k, eta zailtasun handiak %3,5k (ikus 23. Grafikoa).

²⁶ 2018 urteko etxebizitzetako gastuaren mediana –gastu-maila oso altuetatik bategi bestekoaren eragina ezabatzen duen neurria– 1.500 eurokoa izan zen.

Bilakaera-ikuspegi batetik, etxebizitzetako pertzepzio subjektiboa nabarmen hobetu da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, zailtasunak dituztela adierazitako lagunen proportzioa 2012 urtean %43,1 izatetik, 2014 urtean %39,4 eta 2018 urtean %31,4 izatera pasa da.

23. Grafikoa. Hilabete bukaerara iristeko hauteman izandako zailtasun-mailaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Ehuneko hori Estatu osorako Bizi Kalitateari buruzko Inkestak eskainitakoa baino baxuagoa da, eta Europakoa baino baxuagoa. Espainian eta EB-28an hilabete bukaerara iristeko zailtasun garrantzitsuak ditu %25,1k eta %21,6k, hurrenez hurren, baina Gipuzkoako proportzioa nekez heltzen da %10,8 izatera. Zalantzarik gabe, etxebizitzaren arteko aldeek garrantzia dute, baina etxebizitzek aurkeztutako ezaugarri desberdinak aintzat hartzen direnean.

33. Taula. Hilabete bukaerara iristeko hauteman izandako zailtasun-mailaren arabeko banaketa, erreferentziak pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018**

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				Guztizkoa
		Zailtasun handia [1]+[2]	Nolabaiteko zailtasuna [3]	Nolabaiteko erraztasuna [4]	Erraztasun handia [5]+[6]	Zailtasun handia [1]+[2]	Nolabaiteko zailtasuna [3]	Nolabaiteko erraztasuna [4]	Erraztasun handia [5]+[6]	
Sexua*	Gizonezkoa	9,7	18,1	36,4	35,8	55,6	63,3	70,0	73,8	68,2
	Emakumezkoa	16,6	22,6	33,4	27,4	44,4	36,7	30,0	26,2	31,8
Adina*	<45	16,3	21,5	35,3	26,9	37,0	29,7	26,9	21,9	27,0
	45-64	11,7	17,8	34,1	36,4	38,4	35,3	37,3	42,6	38,8
	65 eta gehiago	8,5	20,0	37,1	34,4	24,7	35,0	35,8	35,5	34,3
Nazionalitatea*	Espainiarra	10,1	18,7	36,2	35,0	79,4	89,0	95,2	98,2	93,1
	Atzerritarra	35,5	31,1	24,7	8,6	20,6	11,0	4,8	1,8	6,9
Familia multzoa*	Pertsona bakarra	17,1	21,5	34,0	27,4	43,9	33,6	29,2	25,2	30,5
	Seme-alaba gabeko bikotea	6,0	16,8	40,4	36,9	12,1	20,6	27,4	26,7	24,0
	Seme-alabaren bat duen bikotea	7,9	17,9	34,7	39,5	23,6	32,8	35,0	42,5	35,7
	Gurasobakarra	27,1	25,8	30,8	16,3	17,6	10,1	6,7	3,8	7,7
Pobrezia erlatiboa*	Beste batzuk	15,8	26,1	29,3	28,8	2,8	2,8	1,7	1,8	2,1
	Presentzia	36,6	39,0	19,4	5,1	50,1	32,4	8,9	2,5	16,3
Gabezia material larria*	Gabezia	7,1	15,8	38,5	38,6	49,9	67,6	91,1	97,5	83,7
	Presentzia	53,4	41,6	4,1	0,9	28,8	13,6	0,7	0,2	6,4
Gizarte-bazterketa*	Gabezia	9,0	18,0	37,6	35,4	71,2	86,4	99,3	99,8	93,6
	Presentzia	36,8	34,6	18,7	9,9	41,6	23,8	7,1	4,0	13,4
Guztizkoa	Gabezia	8,0	17,2	38,0	36,8	58,4	76,2	92,9	96,0	86,6
		11,9	19,5	35,4	33,2	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

[1] Zailtasun handiz; [2] zailtasunaz; [3] nolabaiteko zailtasunaz; [4] nolabaiteko erraztasunaz; [5] erraztasunaz; [6] erraztasun handiz.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

32. Taula. Hilabete bukaerara iristeko hauteman izandako zailtasun-mailaren banaketa. Gipuzkoa, Espainia y EB-28

	Gipuzkoa	Espainia	EB-28
Zailtasun handia	3,4	9,5	7,7
Zailtasuna	7,4	15,6	13,9
Nolabaiteko zailtasuna	19,3	28,1	29,5
Nolabaiteko erraztasuna	34,6	32,5	28,2
Erraztasuna	31,7	13,3	15,4
Erraztasun handia	3,6	0,9	5,3
Guztizkoa	100,0	100,0	100,0
Pobrezia erlatiboko tasa	16,4	21,6	16,9
Pobrezia erlatiboko egoeran dagoen biztanleria osoaren arabeko zailtasun handia adierazten duten pertsonen %	14,3	23,7	21,8

Iturriak: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta; INE, Bizi Baldintzei buruzko Inkesta 2018; Eurostat, EU-SILC.

33. Taulan ikus daitekeen bezala, erreferentziak pertsona emakumea den kasuetan (%16,6), eta nagusiki, atzerritar nazionalitatea buru duten kasuetan (%35,5), besteek baino askoz gehiago adierazten dute hilabete bukaerara iristeko zailtasunak dituztela. Era berean, familia gurasobakarren artean ere maizago errepikatzen da egoera hori (%27,1), baita pertsona bakarrek osatutako etxebizitzetan ere (%17,1).

Bestalde, hilabete bukaerara iristeko hauteman izandako egoeren eta gizarte-bazterketaren, pobrezia monetarioaren eta gabezia materialaren arteko erlazioa nabarmena da. Etxebizitza gipuzkoarren artean zailtasun garrantzitsuak dituztela adierazitakoen ehuneko %11,9 den bitartean, pobrezia erlatiboko eta gizarte-bazterketako egoerak pairatzen dituztenen artean ia %37 izatera pasatzen da, eta gabezia material larriko egoeran dauden etxebizitzetan %50a nabarmen pasatzen du.


3.4.2. Etxebizitza-gastuak

Etxebizitzako gastu-egituraren baitan, ohiko etxebizitza mantentzeko gastuak (alokairu- eta hipoteka-gastuak aintzat hartuta, eta hala badagokio, hornidura energetikoei buruzkoak) etxebizitzetako guztizko gastuaren batezbestekoaren %21 hartzen dute 2018 urtean. Hila-beteko hipoteka- edo alokairu-kuotei aurre egin beharreko etxebizitzaren kasuan, proportzio hori %39ra igoko litzateke.

Gastu energetikoa kanpo utziz gero²⁷, 2018 urteari dagozkion Gipuzkoako datuen arabera, hilabete oro hipoteka- (%24,9) edo alokairu-ordainketa (%17,7) bati aurre egiten die etxebizitzetatik %46k. Beraz, gipuzkoar etxebizitzetatik %57,4 horrelako gastuetatik –ohiko etxebizitzakoak, behintzat– salbuetsita egongo lirarteke. Banaketa hori ez da ia aldatu aurretiko inkesta-boladetatik, baina kontzeptuaren zenbaterkoei buruzko bilakaera desberdin bat nabarmentzen da. 2014 eta 2018 urteen bitartean hipoteka gisara ordaindutako batezbesteko zenbatekoa murriztu egin da (hilabeteko 537 euro izatetik 528 eurora); eta alokairu gisara ordaindutakoa hazi egin da, eta hilabeteko 492 eurotik 532 eurora pasa da.

Bestalde, etxebizitzako diru-sarrera arrunten eta hipoteka- edo alokairu-ordainketen arteko erlazioa aintzat hartuz gero, %43,6k %20 eta %40 bitartekoa bideratu behar du; eta beste %11,5ak etxebizitzako diru-sarreraren %40 baino gehiago bideratu behar du. Bilakera-ikuspegi batetik, datuek etxebizitza-mailako diru-sarrerak hobekuntza ezagutu dutela nabarmentzen da, eta gastu horri aurre egiteko etxebizitzaren kaudimenari ere eragin onuragarriak ekarri dizkio.

24. Grafikoa. Hipoteka- edo alokairu-ordainketak dituzten etxebizitzaren banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2014-18 (Diru-sarreraren arabera hipoteka- edo alokairu-gastuen %)



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

²⁷ Gai hori eta pobrezia energetikoarekin lotutako beste batzuk *Gipuzkoako pobrezia energetikoari buruzko 2018ko azterlanak* era sakonean aztertzen ditu. GPGBIko datuak oinarri hartuta SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak landutakoa.

Aurretik aipatu den bezala, hipoteka- edo alokairu-gastuei Gipuzkoako etxebizitzetatik %42,6k hileroko aurre egin behar die.

Baina betekizun ekonomiko horiek zenbateko erlazioa dute aztertutako pobrezia-, prekaritate- eta bazterkeria-desberdin horiekin? Ondorioztatu daitekeen lehen emaitza (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula) alokairu-erregimeneko etxebizitzak direla gabezia material eta bazterkeria handiena bizitzeko gizarte-kalteberatasun gehiena dutenak. Etxebizitza horien artean, aintzat hartutako pobrezia- eta bazterkeria-intzidentzia etxebizitza ordaindua duten etxebizitzaren aldean askoz ere altuagoa da. Etxebizitza ordaindua dutenen aldean, alokairu bat ordaindu behar duten etxebizitzetan pobrezia erlatiboko tasa hirukoiztu egiten da. Bestetik, alokairu bat ordaindu behar duten etxebizitzaren arteko gabezia materialeko egoerak ere asko izaten dira: etxebizitza horietatik %24k horrelako egoerak bizi ditu, hipotekarik edo alokairurik ordaindu beharrik ez duten %2,5ekoaren aldean.

34. Taula. Pobrezia- eta bazterkeria-egoeren arabera etxebizitzaren banaketa, etxebizitzari lotutako ordainketen presentziaren arabera. Gipuzkoa 2018 Banaketa bertikala (%)

		Hipoteka	Alokairua	Batere ez
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	7,1	39,6	13,0
	Gabezia	92,9	60,4	87,0
Gabezia material larria*	Presentzia	3,2	23,8	2,5
	Gabezia	96,8	76,2	97,5
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	6,6	30,1	11,2
	Gabezia	93,4	69,9	88,8
Etxebizitzako diru-sarrera baliokideak kintiletan*	1. kintila	9,9	43,3	17,1
	2. kintila	17,1	19,3	22,5
	3. kintila	21,8	17,4	20,9
	4. kintila	24,7	11,2	17,7
	5. kintila	26,5	8,8	21,9
Guztizkoa		100,0	100,0	100,0
Etxebizitzaren arabera %		24,9	17,7	57,4

* $p < 0.05$ Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Hala eta guztiz, paradoxikoa eman arren (gabezia materialari dagokiona salbu), hipoteka ordaindu behar dutenen artean gertatu ordez, desabantailarik handiena bizi dute alokairu- edo hipoteka-ordainketarik egin beharrik ez dutenek. Ikuspegi monetario batetik, hein handi batean, hipoteka bat duen etxebizitza gipuzkoarren laurden horren egoera konparatuz gero, dagoeneko ordaindutakoa edo hirugarrenek utzitako etxebizitzetan bizi den %57,4k baino egoera hobea bizi du. Era argigarri batean, dirurik gehien duten etxebizitzaren artean (diru-sarreraren arabera 4 eta 5. kintiletan kokatzen direnak) %51,2k hipoteka ordaintzen du, eta ordainik zor ez dutenak %39,6 dira.

Pobrezia neurtzean etxebizitza bateko diru-sarrerren maila bakarrik aztertzeak zenbait pobrezia errealeko egoera ezkuta ditzake etxebizitzako diru-sarrerren zati garrantzitsu bat erabili behar denean gastu horri aurre egiteko. Horretarako, etxebizitza-gastuak kendutako pobrezia-atalasea berriz kalkulatzeko adierazle bat erabiltzen da, eta atalase berri horren arabera berriz banatzen ditu etxebizitzak²⁸.


Adierazle horren arabera (ikus 35. Taula), 2018 urtean, 9.500 bat etxebizitzetan –18.200 pertsona inguru– pobrezia erlatiboko egoera batera pasako lirateke, gehienbat, etxebizitza-gastuen ondorioz. Beste era batean esanda, mota horretako gastuei aurre egiteko diru-sarrerren galera aintzat hartuz gero, etxebizitzetako pobrezia erlatiboko tasa hori %16,3 izatetik %19,5 izatera pasako litzateke. Adierazle horren bitartez, pobrezia-atalasetik gorako diru-sarrerren maila eskuratu arren, atalase berri horren azpitik –etxebizitza-gastuak ordaindu ondoren– geratuko litzatekeen kolektiboa identifikatu eta zenbatzea ahalbidetuko litzateke.

35. Taula. Etxebizitza-gastuak kendu aurretiko eta ondorengo pobrezia erlatiboko eta pobrezia larriko tasa. Gipuzkoa 2018

		Etxebizitzak	
		Tasa (%)	N
Pobrezia erlatiboko tasa	Guztizkoa	16,3	48.024
	Etxebizitza-gastuak kendu ondoren	19,5	57.516
	Bariazioa (%) eta zenbatekoa	%20	9.492
Pobrezia larriko datua	Guztizkoa	4,3	12.599
	Etxebizitza-gastuak kendu ondoren	8,4	24.937
	Bariazioa (%) eta zenbatekoa	%98	12.338

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

25. Grafikoa. Etxebizitza-gastuak kendu aurretiko eta ondorengo etxebizitzaren pobrezia erlatiboko tasa. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Datu hauek aurreko bi boladetako datuekin konparatuz gero (ikus 25. Grafikoa), 2014 urtearen aldean pobrezia erlatiboko tasaren hazkunde arin bat gertatu arren, etxebizitza-gastuak aintzat hartu ondorengo 2018 urtean ematen den pobrezia erlatiboaren hazkundera (%20 hazi da) orain dela hiru urtekoa baino arinki baxuagoa izan da (%29ko hazkundera gertatu zen).

Zailtasun ekonomikoaren ondorioz, etxebizitza-mantentzeari loturiko zenbait ordainketei aurre egiteko atzerapena etxebizitza horietako ahultasunari buruzko beste adierazle bat da. Aldi honetako inkestaren arabera, 2018 urtean hipoteka- edo alokairu-ordainketan izandako atzerapen-maila erlatiboki baxua izan da. 6.800 bat etxebizitza izango lirateke, hau da, ozta-ozta %1. Halaber, etxebizitza guztietatik %1,6k atzerapenen bat izango zukeen hornidura energetikoei loturiko ordainagiriak (ura, gasa, elektrizitatea, etab.) eta/edo komunitateko kuota ordaintzean. Oro har, aldizkako ordainsari horiek ordaintzean etxebizitza gipuzkoarretatik %4,6k –13.600 familia inguru– atzerapenen bat eduki izana adierazten du.

Bilakaera-ikuspegi batetik egoera horien presentzia izandako murrizketa bat beha daiteke, dela hipoteka- edo alokairu-ordainketei dagokienean (2012 urtean %4,3koa zen kaltetutako etxebizitzaren ehuneko), dela faktura energetikoari dagokionean (2012 urtean %4,1 eta 2018 urtean %1,6).

36. Taula. Hipoteka, alokairua, hornidura- edo komunitate-ordainagiriak ordaintzean atzerapena izandako etxebizitza-proporzioaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012		2014		2018	
	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
Hipoteka	1,0	2.608	0,8	2.291	0,3	1.960
Alokairua	3,3	8.838	1,0	2.911	0,7	4.865
Hornidura- edo komunitate-ordainagiriak	4,1	10.899	3,0	8.572	1,6	11.375
Hiruetatik bat	6,0	16.008	4,1	11.731	4,6	13.563
Atzerapenen bat adierazitako pobrezia-egoera erlatiboko etxebizitzaren %	16,2	--	12,0	--	15,8	--

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Horrelako ordainketa-atzerapenen eta etxebizitzetako egoera ekonomikoaren arteko erlazioa nabarmena da. 36. Taulan agertzen den bezala, oinarritzko zerbitzu- eta hornidura-atzerapenei erlazionatutako egoeren presentzia (bizitegia eta energia hala dira), zeina gipuzkoar etxebizitza guztien artekoa ez dena iristen apenas %4,6 izatera, diru-sarrera maila baxuko edo pobrezia erlatiboko egoeran dauden etxebizitzaren kasuan %15,8 izatera iristen da. Izan ere, 2014 urtearen aldean ehuneko hori hazi egin baita (%12), 2012 urtean jasotako mailatik oso gertu (%16,2).

²⁸ Ondoren aurkezten den adierazlearen lanketarako, etxebizitza-gastutzat ondokoak hartu dira. Hipoteka-mailegu bati edo beste bati lotutako jabetza-erregimeneko etxebizitzaren kasuan, interes- eta amortizazio-ordainketan hartzen dira aintzat, eta alokairuan hartua bada, alokairu-ordainagiriak. Gehigarri moduan, elektrizitatearen, gasaren edo bestelako erregai baten kontsumo energetikoa aintzat hartu da.


3.4.3. Aurrezki-gaitasuna eta kredituen erabilera

Gipuzkoako etxebizitza guztietatik %66,8k 2018 urtean nolabaiteko aurrezki-maila bat dauka. Aitzitik, hamar etxebizitzetatik hiruk (%30,4) ezetz erantzuten du gordekin ekonomikoren bat ote duen galdetzen zaionean. Gainerako etxebizitzaren aldean, haien egoera ondokoa da. Etxebizitza gipuzkoaren %42,5k beste diru-sarrerarik izan ezean, egungo gastu-maila hilabete bat eta hamabi hilabete bitartean mantentzeko aurrezkiak gordeta ditu. Era berean, aurreztutako diruaz baliatuz, %12,8k urtebete eta bi urte bitartean aurrera egiteko modua izango omen luke; eta %11,5k bi edo urte gehiagotan diru-sarrerarik gabe bizitzeko erlatiboki ugari diren aurrezkiak izango lituzke (ikus 35. Taulako azken lerroa).

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, azken bost urtetan, ez da gertatu aldaketa nabarmenik egoera horretan, izan ere, aurrezki gabeko etxebizitzaren proportzioak arinki behera egin arren (2012 urtean %35 eta egun %30,4), aurrezki-maila garrantzitsu bat duen etxebizitza-proportzioak (12 edo hilabete baino gehiagoko diru-sareren baliokidea) 2014 urtekoaren tankerakoa da. Horren arabera ondoriozta daitekeen bezala, azken hiru urteotan antzeman izandako diru-sareren mailako hobekuntzak ez du eragin nabarmenik izan etxebizitzaren aurrezki-gaitasunari dagokionean.

Espero zitekeen moduan, aurrezki-eskuragarritasunak aztertutako aldagai soziodemografiko guztiekin lotura estua du, eta bereziki nazionalitatearen kasuan.

26. Grafikoa. Bestelako diru-sarrerarik izan ezean, egungo gastu-maila hilabete-kopuruan neurtutako aurrezki-erabilgarritasunaren arabera etxebizitzaren banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2014-18



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Etxebizitzetako gordekin ekonomikoen gabezia, bestetik, pobrezia erlatiboko, gizarte-bazterketako eta, oso era nabarmenean, gabezia materialeko kasuekin erlazionatzen da.

Ustekabeko egoerei aurre egiteko aurrezki-gabeziaren arabera kalteberatasun handiena duten etxebizitzak aztertuz gero, gordekin ekonomikoen gabeziarik handienak pertsona gurasobakarrek (%53,6k ez du aurrezkerik) eta pertsona nagusi gisara atzerritar nazionalitatea dutenek (%82,7) osatutako etxebizitzetara dagokiela antzeman daiteke.

37. Taula. Beste diru-sarrerarik izan ezean, egungo gastu-maila hilabete-kopuruan neurtutako aurrezki-erabilgarritasunaren arabera etxebizitzaren proportzioa, erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018

		0 hilabete	1 eta 6 hilabeteren artean	7 eta 12 hilabeteren artean	13 eta 24 hilabeteren artean	25 edo gehiago	Daturik gabe	Guztizkoa
Sexua*	Gizonezkoa	29,0	19,6	23,0	13,4	12,4	2,5	100,0
	Emakumezkoa	33,3	22,1	20,1	11,6	9,5	3,4	100,0
Adina*	<45	38,9	24,9	20,1	6,9	8,0	1,2	100,0
	45-64	31,3	21,1	22,7	12,8	10,1	2,0	100,0
	65 eta gehiago	22,6	16,2	22,9	17,6	15,8	5,0	100,0
Nazionalitatea*	Espainiarra	26,5	21,1	23,2	13,8	12,3	3,0	100,0
	Atzerritarra	82,7	10,8	6,5	0,0	0,0	0,0	100,0
Jardueraren arabera erlazioa*	Landuna	33,1	24,3	22,5	10,8	7,5	1,8	100,0
	Langabea	70,3	11,4	9,8	4,6	3,9	0,0	100,0
	Ez aktiboa	22,1	16,2	22,8	16,6	17,7	4,5	100,0
Familia multzoa*	Pertsona bakarra	34,4	19,0	20,9	11,4	12,1	2,2	100,0
	Seme-alaba gabeko bikotea	20,9	19,3	24,2	16,0	16,8	2,7	100,0
	Seme-alabaren bat duen bikotea	27,2	23,8	23,1	13,6	9,0	3,2	100,0
	Gurasobakarra	53,6	17,1	14,8	7,1	4,7	2,6	100,0
	Beste batzuk	47,5	8,8	24,2	5,0	7,9	6,6	100,0
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	64,9	13,9	11,0	3,9	5,7	0,7	100,0
	Gabezia	23,7	21,7	24,2	14,6	12,6	3,2	100,0
Gabezia material larria*	Presentzia	97,8	2,2	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gabezia	25,8	21,7	23,6	13,7	12,2	3,0	100,0
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	59,2	17,9	10,1	6,8	5,6	0,4	100,0
	Gabezia	25,9	20,8	24,0	13,8	12,4	3,2	100,0
Guztizkoa		30,4	20,4	22,1	12,8	11,5	2,8	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak. Aurrezkiaren aldagaian hiru talde identifikatu dira: [a] aurrezki gabea; [b] 1 eta 12 hilabeterako aurrezkiak; eta [c] urtebete baino gehiagorako aurrezkiak.


Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Horretaz gain, emakume bat edo pertsona gazte buru duten etxebizitzetako intzidentzia ere altuagoa da (gizona buru duten %29aren aldean, %33,3koa) Zalantzarik gabe, eta espero zitekeen moduan, adina zuzenean lotzen da aurrezkiekin: 65 urte edo gehiagoko pertsona bat buru duten etxebizitzetatik %22,6k aurrezki ez duela adierazten duen bitartean, 45 urtez azpiko pertsona bat buru duten etxebizitza-proportzioa %38,9 izatera iristen da.

Aurrezki-eskuragarritasuna pobrezia erlatiboko atalasearen goitik edo behetik kokatzen diren etxebizitzaren arabera eginez gero, 37. Taulan eskainitako datuen arabera, oinarrizko bi ideia ondoriozta daitezke. Alde batetik, pobrezia erlatiboan bizi den biztanleriaren artean aurrezki gabezia hori askoz ere altuagoa da dagokion ehunekoaren aldean. Lortutako emaitzetatik uler daitekeen bezala, pobrezia-atalasearen azpitik dauden etxebizitzaren kasuan (%64,9), ia %65ak ez du aurrezki; diru-sarreraren arabera pobre ez diren aldean. Azken datu horren inguruan, hala ere, pobrezia-egoeretatik kanpo uzten dituzten diru-sarrerak izan arren, pobre ez direla ulertzen den etxebizitzetatik %24k ez du inolako aurrezki, beraz, haien diru-sarreraren maila eskas-tuko balitz, biziko luketen kalteberatasun ekonomiko altua izan daiteke.

2018 urteari buruzko datuen arabera, 2012 eta 2014 urteetan gertatu bezala, etxebizitza pobreen aurrezki eta diru-sarreraren gabeziak ez dira konpontzen ari etxebizitza erosteko ez diren kreditu pertsonalak eskatuta.

27. Grafikoa. Kreditu pertsonalak dituzten eta azken urtean finantzazio-bide desberdinak zailtasun ekonomikoengatik erabili behar izan dituzten etxebizitza-proportzioaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Ikus daitekeen bezala, diru-sarrera baliokide altuagoak dituzten etxebizitzetan horrelako kredituak eskuratzeko baliabidea askoz maizago erabili ohi da. Aitzitik, hilabete bukaerara iritsi ahal izateko txartelaren kreditua erabiltzea ohikoagoa izaten da etxebizitza pobreetan. Azken urtean, pobrezia monetarioko egoeran dauden etxebizitzetatik %3,5k bitan baino gehiagotan erabili du finantzazio-iturri hori; etxebizitza guztien tasa %2,2koa da, berriz. Finantzen prekarietateari lotutako beste egoera batzuk aintzat hartzean, pobre eta pobre ez diren etxebizitzetako aldeak are gehiago hazten dira, adibidez, kontu korronteko zenbaki gorrien presentzia edo hilabete bukaerara iristeko aurrezkiak erabiltzeko baliabide sarria.

38. Taula. Kreditu pertsonalak izanda azken urtean zailtasun ekonomikoari aurre egiteko finantzazio-bide desberdinez baliatu behar izan duten etxebizitzaren proportzioa. Gipuzkoa 2018

		Kreditu pertsonalen bat du [1]	Kontu korronteko zorpekoen bat du [2]	Kreditu-txartelaren baliabidea bitan baino gehiago erabiltzea [3]	Aurrezkiak erabiltzeko ohiko baliabidea [4]
Sexua	Gizonezkoa	11,7	4,3	1,6	9,2
	Emakumezkoa	10,5	4,9	3,5	13,9
Adina	<45	13,3	8,4	3,7	10,6
	45-64	15,8	3,9	2,0	10,7
	65 eta gehiago	4,7	2,1	1,1	10,7
Nazionalitatea	Espainiarra	11,4	3,9	2,2	10,6
	Atzerritarra	10,2	12,5	1,6	12,3
Etxebizitzako diru-sarrera baliokideak kintiletan	1. kintila	5,7	12,8	2,9	21,3
	2. kintila	13,3	5,2	3,3	16,2
	3. kintila	11,3	2,4	2,9	8,3
	4. kintila	9,0	0,8	0,5	5,6
	5. kintila	16,9	1,1	1,1	1,9
Pobrezia erlatiboa	Presentzia	5,4	13,5	3,5	21,4
	Gabezia	12,5	2,7	1,9	8,6
Gizarte-bazterketa	Presentzia	14,5	11,6	4,7	24,8
	Gabezia	10,9	3,4	1,8	8,5
Guztizkoa		11,4	4,5	2,2	10,7

[1] Ohiko etxebizitza ez den ondasun desberdinak ordaintzeko gaur egun kreditu pertsonal bat duten etxebizitzak (autoak, bidaiak, obrak, etab.); [2] Etxebizitza-gastu nagusiak ordaintzeko erabilitako kontu korrontea azken 12 hilabetetan behin baino gehiagotan zorpekoa izan duten etxebizitzak; [3] Hilabete bukaerara iristeko azken 12 hilabetetan kreditu-txartelaren baliabidea bi alditan baino gehiago erabili behar izandako etxebizitzak; [4] Zailtasun ekonomikoari aurre egiteko aurrezki propioak azken urtean erabili behar izan dituzten etxebizitzak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.5. Bizi-baldintzetan eta pobrezia-eraketan zailtasun ekonomikoaren garrantzia

3.5.1. Etxebizitzetako bizi-baldintzetan zailtasun ekonomikoaren garrantzia

Krisialdi ekonomikoaren garairik kritikoa igaro ondoren, etxebizitza gipuzkoarretan gaur egun dituzten baliabideak banatu eta kudeatzeko estrategiak aztertzea interesgarria gertatzen da.

39. Taulan ikus daitezkeen bezala, sarrien garatu izandako estrategien artean, zenbait gastuen doitzeari eta murrizteari buruzkoak hein handiagoan erabili izan dira. Ildo horretatik, %28,4k adierazten duenez, ezin du joan etxetik kanpo oporretara, eta %26,4k aisialdiko gastuak murriztu behar izan ditu. Halaber, %19,7k etxebizitzako gastu energetikoak murriztu beharra aipatzen du (elektritzitatearen, uraren, gasaren, berokuntzaren eta abarren ordainagiriak); eta %16,2k gauza bera egin du oinarrizko arropa eta oinetakoaren gastuarekin. Azkenik, gipuzkoar etxebizitzaren %6,7k, 47.600 pertsona baino zerbait gehiagok, azken urtean oinarrizko elikadura-gastuak murriztu behar izan dituela adierazten du.

Oinarrizko izaerako gabetasun horrek elikadurari lotutako ondorioz, eta %2,1k ezin du jan, bi egunetik behin behintzat, haragia, oilaskoa edo arraina duen otordurik.

Estrategia horretaz gain, kanpoko laguntza-baliabideen bitartez zenbait premia-egoerei aurre egiteko estrategiak daude bestetik. Lortutako datuen arabera, %7,4k gizarte-erakunde publiko nahiz pribatuei laguntza ekonomikoa eskatu dietela adierazten du; eta etxebizitza gipuzkoarren %5,8k senideei edo lagunei laguntza ekonomikoa eskatu behar izan diela adierazten du.

Etxebizitzetan erabilitako estrategia desberdinez gain, hurrengo taulako datuen arabera, eta intzidentzia oso apala agertu arren, atzetik muturreko larritasuna duten zenbait egoera agertzen dituzte. Moduren batean, etxebizitzetatik %2,4k hornidura-mozketarako abisuren bat jaso izana adierazten du, eta %9,8k botikaren bat erosteari utzi izana edo tratamendu mediku bat eten izana nabarmentzen du. Bestalde, Gipuzkoan hilabeterik hotzenetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu ezinean dauden kasuen intzidentzia moderatua azpimarratu behar da (%9,0); edota egoera ekonomikoa eskatzearen ondorioz ohiko gizarte-harremanak galdu dituztenak (%9,6).

39. Taula. Zailtasun ekonomikoaren ondorioz zenbait arazo bizi izandako etxebizitzaren proportzioa, pobrezia-egoeraren arabera. Gipuzkoa 2018

	Arazo desberdinak bizi izandako etxebizitza-proportzioa %				Kaltetutako pertsonen zenbatekoa
	Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa, baina ez larria	Pobrezia gabezia	Guztizkoa	
Ezin dute joan oporretara, etxetik kanpora, gutxienez aste betez	81,9	67,0	20,2	28,4	200.823
Aisialdiko gastuak murriztu behar izan dituzte	75,0	58,8	19,3	26,4	191.458
Etxebizitzako gastu energetikoak murriztu behar izan dituzte	66,7	50,3	12,9	19,7	137.380
Arropetako eta oinetakoetako oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzte	58,1	37,6	11,0	16,2	115.992
Ohiko gizarte-harremanak galdu dituzte	38,9	25,2	5,9	9,6	66.608
Ezin dute mantendu etxebizitzako tenperatura egokia hilabete hotzetan	54,4	27,7	4,0	9,0	65.136
Gizarte-erakunde publikoari eta pribatuei laguntza eskatu behar izan diete	52,0	25,7	2,5	7,4	56.431
Oinarrizko elikadura-gastuak murriztu behar izan dituzte	37,7	20,9	3,0	6,7	47.632
Lagunei, bizilagunei edo senideei laguntza ekonomikoa eskatu behar izan diete	15,1	17,7	3,6	5,8	34.544
Ezin dute eraman elikadura-dieta egokirik	27,5	10,8	0,8	3,2	25.821
Argi-, ur-, gas- edo telefono-mozketen abisua jaso dituzte	15,4	7,6	1,0	2,4	19.846
Ezin dute jan haragia, oilaskoa edo arraina, behintzat, bi egunetik behin	26,3	7,0	0,2	2,1	18.211
Botikaren bat erosteari edo mediku-tratamenduren bati utzi egin behar izan diote	1,6	3,8	0,3	0,8	7.089
Etxebizitza utzi behar izateko mehatxu motaren bat, berehalakoa edo ez, jaso dute	0,5	0,2	0,0	0,0	569
<i>Etxebizitza guztien arabera %</i>	<i>4,3</i>	<i>12,0</i>	<i>83,7</i>	<i>100,0</i>	<i>--</i>

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.


Etxebizitzetako prekaritatea hazten den heinean, egoera horien intzidentzia altuagoa izaten da. 39. Taulan ikus daitekeen bezala, pobrezia larriko egoeran dauden etxebizitzetatik %65ak baino gehiagok – etxebizitza gipuzkoar guztietatik %4,3– aisialdirako gastuak (%75,0) eta elektrizitatea, ura edo berogailuaren ordainketei lotutako gastuak murriztu behar izan dituzte (%66,7). %60 inguruk arropa eta oinetakoak erosteko gastua murriztu behar izan du (%58,1) eta hamarretik lauk (%37,7) gauza bera egin du oinarritzko elikadura-gastuekin. Era berean, eta kanpoko laguntza-estrategiei dagokienez, %15,1k lagunei, bizilagunei edo senideei diruz laguntzeko eskatu diete eta erdiak baino gehiagok (%52,0) gizarte-erakunde desberdinetara jo du laguntza bila, publikoa nahiz pribatua.

Ikuspegi konparatzaile batetik 2018 urteko FOESSA Inkestak lortutakoekin bat etorri arren, aztertutako egoera horiek gure lurraldean duten intzidentzia nabarmen apalagoa da. Ildo horretatik, adibidez, FOESSAren VIII. Txostenak Estatu osoaren arabera argitaratutako datuek erakusten dutenez, etxebizitzetatik %36k arropa eta oinetakoak erosteko gastua murriztu egin du (Gipuzkoako %16,2aren aldean) eta, hurrenez hurren, %36,9k eta %22,2k aisialdiko eta etxebizitzako gastu finkoak (elektrizitatea, ura eta berokuntza) beharatu omen ditu; Gipuzkoako %26,4 eta %19,7aren aldean. Bestalde, oinarritzko elikadura-gastuen murrizketa, Gipuzkoako etxebizitzaren %6,7ri eragindakoa, Estatu osoan %19,7ko intzidentzia du; datu garrantzitsua dena, etxebizitza horietako ongizatean eta osasun-arloan dituen zerikusienatik.

Ikuspegi konparatu batetik, kanpoko laguntzaren baliabidea Estatu osoan handiagoa dela antzeman da bestetik. Horrela gertatzen da, nagusiki, laguntza informalar dagokionean. Era honetan, FOESSA Inkestaren azken boladak datuen arabera, etxebizitzetatik %17,6k azken urtean senide edo lagunei laguntza ekonomikoa eskatu behar izan dio (Gipuzkoako %5,8ren aldean). Hala ere, ez dago ia alderik gizarte-erakunde bitarteko laguntzari dagokionean. Mota horretako erakundeetara jo izana (dela publikoa dela pribatua) adierazten duten Espainiako etxebizitza-proportzioa %7,9 izatera iristen da, eta Gipuzkoako kasuan %7,4ra, hau da, etxebizitza gipuzkoarren egoera objektiboki hobea aintzat hartuz gero, Gipuzkoan biztanleria-estratu zabalago batek mota horretako zerbitzuen erabilera handiagoa egiten dela adierazten du.

Zein izan da egoera horietako bakoitzean azken bi urteetan gertatutako bilakaera? 28. Grafikoan ikus daitekeen bezala, arazo horien gehien intzidentzia beheratu egin da. Nagusiki, ondoko hauek nabarmentzen dira: aisialdi-gastuak murriztu behar izandako etxebizitza-proportzioaren beherakada (2014 urtetik 2018ra, %38,1 izatetik %26,4 izatera pasa dena), arropa eta oinetakoetarako oinarritzko gastuetako beherakada (2012 urtean %20,1, 2014 urtean %18,8 eta 2018 urtean %16,2 izatera pasa dena) eta etxebizitzako gastu energetikoak murriztu beharra izan dutenen proportzioa (2014 urtean %23,2 izatetik 2018 urtean %19,7 izatera pasa dena).

28. Grafikoa. Zailtasun ekonomikoaren ondorioz zenbait zailtasun bizi izandako etxebizitza-proportzioaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

3.5.2. Pobreziaren pertzepzio subjektiboa

Hurrengo taulan, ikuspegi sozioekonomikoaren etxebizitza-egoeraren balorazioaren arabera etxebizitza-banaketa (2012, 2014 eta 2018 urtetarako). 2018 urterako lortutako maiztasunen arabera egiaztatu daitekeen bezala, hamar etxebizitzetatik zortzik (%81,3) bi talde nagusietan batzeko joera hartzen du: batez bestekoaren aldean egoera erosoagoan bizi direla ulertzen du (etxebizitzetatik erdia baino gehiago –%51,2–) eta batez bestekoaren azpiko baldintzetan nolabait moldatzen direla irizten diote (beste %30,1). Bi muturretan, aberats edo oso aberats direla uste duten etxebizitzak daude (%10,8); eta pobre, oso pobre edo gehienbat pobre direla uste dutenak (%7,9).

40. Taula. Pobrezia-pertzepzio subjektiboaren banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012	2014	2018	2014-18 bitarteko aldea
[1] Oso pobrea	1,2	0,7	0,6	-0,6
[2] Pobrea	2,2	2,6	3,1	+0,9
[3] Gehienbat pobrea	4,3	5,2	4,2	-0,1
[4] Batezbestekoaren azpitik moldatzen dira	46,1	36,9	30,1	-16,0
[5] Batezbestekoaren goitik, eroso	41,3	45,9	51,2	+9,9
[6] Oparoa, diruduna	4,9	8,6	10,4	+5,5
[7] Aberatsa	0,0	0,1	0,4	+0,4
[8] Oso aberatsa	0,0	0,0	0,0	--
Guztizkoa	100,0	100,0	100,0	--

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Ikuspegi konparatzaile batetik hartuz gero, egoera erosa egindako nolabaiteko etxebizitza-transferentzia bat antzeman daiteke. Alde batetik, 2012 urtetik batez bestekoa baino gutxiagorekin moldatzen direla uste dutenen etxebizitzaren ehunekoa beheratu egin da, eta etxe guztien %46,1 izatetik %30,1 izatera pasa da. Aldi berean, batez besteko mailaz gora daudela uste dutenen proportzioa hazi egin da (2012 urtean %41,3 izatetik 2018 urtean %51,2 izatera pasa dena), baita aberats

direla uste dutenen proportzioa ere (2012 urtean %4,9 izatetik, 2014 urtean %8,7 eta 2018 urtean %10,8 izatera pasa dena). Maila desberdinean pobre direla uste duten etxebizitza-proportzioa nolabait mantendu dela ikus daiteke. Azkeneko bost urtetan, etxebizitza horien ehunekoa %8 eta %9 ingurukoa izan da, oso aldaketa apala.

Zein heinean erlazionatzen da pobreziaren pertzepzio subjektiboa azterlan honetan pobrezia monetarioko, gabeziako edo gizarte-bazterketako egoerak neurtzeko erabilitako adierazleekin? 41. Taulan ikus daitekeen bezala, diru-sarreraren arabera pobre diren etxebizitza askotan ez dute haiei buruzko pertzepzio bera. Era honetan, pobrezia erlatiboko egoerak bizi dituzten etxebizitzetatik erdiak moldatzen direla uste du, eta horren ondorioz, batez bestekoaren azpitik kokatzen dira (%50,7). Pobrezia larria pairatzen duten etxebizitzetan %36,8koa da. AROPE adierazleak eragindako etxebizitza-banaketak, bestalde, pobrezia erlatiboaren banaketaren tankerakoa azalduko luke.

Gabezia materialeko egoerekin erlazionatutako kasuetan –gehienbat oinarrizkoak diren ondasunekin erlazio duten 9 itemetako zerrenda batetik, zailtasun ekonomikoaren ondorioz, gutxienez 4 erosteko ahalmenik ez dutela adierazitako etxebizitzak batzen dira adierazle horren bitartez–, gabezia material larriko egoerak pairatzen dituzten etxebizitzetatik erdiak gertu (%46,3) pobre, oso pobre edo gehienbat pobre direla uste du; eta tankera ehuneko batek (%45,6) batez besteko mailatik behean daudela irizten dio.

Azkenik, bazterkeria-adierazleei dagokienean, eta zehazki FOESSA metodologia oinarri hartutako adierazleei dagokionean, eta aurretiko adierazleen aldean, ikuspegi subjektibo batetik ongizate sozioekonomikoa bizi dutela uler daitekeen egoera-kopuruak gora egin dela ematen du. Era honetan, bazterkeria-egoeran dauden lau etxebizitzetatik ia bat (%23,8) –dela orekatua nahiz moderatua– batez besteko mailatik gora kokatzen dela baieztatu daiteke.

41. Taula. Pobrezia-, gabezia- eta bazterkeria-egoerek kaltetutako etxebizitzaren banaketa, pobrezia-pertzepzio subjektiboaren arabera. Gipuzkoa 2018

	Pobrea [1] + [2] + [3]	Batez bestekotik behera [4]	Batez bestekotik gora [5]	Aberatsa [6] + [7] + [8]	Guztizkoa
Pobrezia erlatiboa	27,2	50,7	20,8	1,3	100,0
Pobrezia larria	50,1	36,8	13,2	0,0	100,0
Gabezia material larria	46,3	45,9	7,8	0,0	100,0
AROE	24,5	48,2	24,1	3,3	100,0
Bazterkeria	30,3	44,2	23,8	1,8	100,0
- Bazterkeria moderatua	22,4	45,6	29,1	2,9	100,0
- Bazterkeria larria	42,3	42,0	15,7	0,0	100,0
<i>Etxebizitzaren guztizkoa</i>	<i>7,9</i>	<i>30,1</i>	<i>51,2</i>	<i>10,9</i>	<i>100,0</i>

[1] Oso pobrea. [2] Pobrea. [3] Gehienbat pobrea. [4] Batez bestekotik behera moldatzen dira. [5] Batez bestekotik gora, eroso. [6] Oparoa, diruduna. [7] Aberatsa. [8] Oso aberatsa

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.6. Etxebizitza-eskuragarritasuna, ekipamendu-maila eta bizigarritasun-baldintzak

3.6.1. Etxebizitza-eskuragarritasuna

Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018 urteko Inkestaren arabera, jabetza-erregimenean bizi da etxebizitza gipuzkoarren %79, dela erabat ordaindutakoa (%51,1), dela ordainketak egin beharrekoa (etxebizitza guztietatik %24,9); eta etxebizitza alokairu-erregimenean %17k mantentzen du, izaera partikularra edo soziala dutenak. Bilakaera-datuaren arabera, 2014 urtetik jabetzan hartutako etxebizitzaren ehunekoa era erlatiboki garrantzitsu batean murrizten ari dela ikus daiteke –ordainketak egin behar dituzten jabetza-erregimeneko etxebizitzaren kasuan bereziki–; eta bereziki alokairu-erregimen pribatu bizi den jendearen ehunekoak hazten jarraitzen du.

42. Taula. Jabetza-erregimenearen arabera etxebizitzaren banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012	2014	2018
-Jabetza-erregimenean, erabat ordaindua	49,6	49,2	51,1
-Jabetza-erregimenean, ordainketak egin beharrean	31,5	29,9	24,9
-Herentzian edo donazioan jasotako jabetza	3,9	4,0	3,4
<i>Jabetza-erregimenean</i>	<i>85,0</i>	<i>83,0</i>	<i>79,4</i>
-Alokairu partikularra	11,5	12,0	15,6
-Alokairu soziala/BOE/Bizigune	1,6	1,9	2,0
<i>Alokairu-erregimenean</i>	<i>13,0</i>	<i>13,9</i>	<i>17,6</i>
-Doakoa, enpresak utzita	0,5	0,6	0,2
-Doakoa, senideek utzita	1,4	1,9	2,1
-Doakoa, beste norbaitek utzita	0,1	0,2	0,6
-Beste egoera batzuk	0,0	0,4	0,2
<i>Utzitakoak eta beste egoera batzuk</i>	<i>1,9</i>	<i>3,0</i>	<i>3,0</i>
Guztizkoa	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Izan ere, ordainketak egin beharra duten jabetzan hartutako etxebizitzak %26 murriztu dira; eta ehuneko be-rean hazi alokairu partikularreko etxebizitza-portzentaje hori. Bestetik, gizarte-alokairuko etxebizitzetan bizi den ehunekoa nabarmen hazi da, 2012 urtean %1,6 izatetik 2018 urtean %2,0 izatera pasa dena. Datu horiek bat datoz etxebizitza-erregimeneko beste iturri espezializatuekin – Etxebizitzaren Euskal Behatokiarekin, adibidez–, eta etxebizitza independente bat eskuratzen dutenen artean alokairuaren bitartez egiten dutela adierazten dute; ez jabetzan erositako etxebizitza bat eskuratzeko hipoteka-mailegu bitartez.

2018 urtean, alokairu-erregimeneko etxebizitzak, hein handiagoan, eskuratzen dituzten profil edo kolektiboak ondokoak dira: atzeritar nazionalitateko pertsona buru dituzte etxebizitzak (%87,6), 45 urtez azpiko pertsona buru dituztenak (%39,8), pobrezia-egoeran dauden pertsona buru dituzten etxebizitzak (%42,5) eta bazterkeria-egoeran dauden pertsona buru dituztenak (%39,0). Alokairu-erregimenean bizi diren etxebizitza-ehunekoa bereziki hazi da gizonak eta gazteak buru dituzten kasuetan, baita pobrezia-egoeran dauden etxebizitzak ere.

Bazterkeria eta/edo pobrezia-egoeran dauden kolektiboek alokairu-erregimenean etxebizitza hartzeko duten joera handiagoak –etxebizitzak eskuratzeko gero eta zailagoa izatearekin eta prezioaren hazkundearekin bat-biztanleriaren bizi-baldintzei zuzenean eragiten die; bereziki pobrezia- eta/edo bazterkeria-egoeran daudenei. Ildo horretatik, alokairu-erregimeneko etxebizitzetako pobrezia erlatiboko tasak nabari hazi dira –2014 urtean %41,2 izatetik, 2018 urtean %48,0 izatera pasa dena–; baina jabetza-erregimenean bizi den biztanleria %17,6 beheratu da, %11,9 izatetik 9,8 izatera.

43. Taula. Etxebizitzaren erregimenearen arabera etxebizitzaren banaketa, erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018

		Jabetza-erregimenean			Alokairuan	Utzita eta beste egoera batzuk	Guztizkoa
		Ordaindua	Ordaindu gabea	Guztizkoa	Guztizkoa	Guztizkoa	
Sexua*	Gizonezkoa	54,5	25,7	80,2	17,5	2,2	100,0
	Emakumezkoa	54,5	23,2	77,6	17,6	4,8	100,0
Adina*	<45	10,4	44,3	54,6	39,8	5,6	100,0
	45-64	55,0	29,3	84,3	13,4	2,2	100,0
	65 eta gehiago	88,6	4,7	93,3	4,8	1,9	100,0
Nazionalitatea*	Espainiarra	58,4	26,5	84,9	12,4	2,8	100,0
	Atzeritarra	1,8	3,8	5,6	87,6	6,7	100,0
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	40,1	11,0	51,1	42,5	6,4	100,0
	Gabezia	57,3	27,6	84,9	12,7	2,4	100,0
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	38,7	12,3	51,0	39,0	10,0	100,0
	Gabezia	56,9	26,9	83,8	14,2	2,0	100,0
Guztizkoa		54,5	24,9	79,4	17,6	3,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.6.2. Etxebizitzaren eta ingurunearen baldintzak

Bestetik, etxebizitzaren egoerari lotutako arazo desberdinei dagokienez (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.**), GPGBIk lortutako emaitzen arabera, etxebizitza gipuzkoarren %12 inguruk itogin-, hezetasun- eta usteltasun-arazoak dituela azaltzen da etxebizitzako zenbait osagaietan. Etxebizitzetatik %7,6k oztopo arkitektonikoak eta irisgarritasun-arazoak ditu; eta %7,1k bizilagunek edo kanpotik etorritako zaratak eragiten die.

Etxebizitza kokatzen den auzoaren edo gunearen ezaugarri dagokienez, inkestan galdegindako pertsonetatik %9,3k berdegunerik ez dagoen guneeetan bizi dela adierazten du; %6,7k delinkuentzia- edo bandalismo-arazoak bizi ditu; eta %6,0k poluzio-, zikinkeria- eta ingurumen-arazoak aipatzen ditu.

44. Taula. Etxebizitzari eta auzuneari edo inguruneari lotutako zenbait arazoren prebalentziaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012	2014	2018
Etxebizitza-ezaugarriak			
Eraikuntza-gabezia larriak edo aurri-zorian egotea	3,0	2,7	2,5
Itoginak, hezetasunak edo ustelkeria	9,2	12,9	11,9
Argi naturalaren gabezia	5,6	5,1	2,7
Bizilagunek ateratako zaratak edo kanpotik datozen zaratak	16,2	12,9	7,1
Oztopo arkitektonikoak eta mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen etxebizitzako presentzia	9,2	5,6	7,6
Auzune- edo ingurune-ezaugarriak			
Kutsadura, zikinkeria edo ingurumen-arazoak	12,4	13,4	6,0
Delinkuentzia edo bandalismoa	9,2	11,7	6,7
Kaleen garbiketa eskasa	11,0	15,0	5,4
Komunikazio eskasak	6,1	5,7	4,9
Berdegune urriak	12,8	12,9	9,3

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Bilakaera-ikuspegi batetik, alderdi honetan aztertu izandako ia adierazle guztietan hobekuntza gertatu da, bereziki 2014 urtea erreferentzia gisara hartzen denean. Oztopo arkitektonikoak izan dira hazitako bakarrak, baina 2012 urteko ehunekoaren aldean, 2018 urteko ehunekoa apalagoa izan da.

45. Taulan ikus daitekeen bezala, arazo horien intzidentzia erlatiboki altua da Lurraldean, baina 2014 eta 2018 urteen artean nabarmen beheratu da. Berez, hiru edo arazo gehiago dituela adierazitako biztanleen ehunekoa %45,9 izatetik %35,8 izatera pasa da –edonola ere, hiru etxebizitzetatik bat–; eta aipatutako arazorik ez dutenena %54,1 izatetik %64,2 izatera pasa da.


45. Taula. Etxebizitzarekin eta auzune edo ingurunearekin lotutako arazoen etxebizitzaren araberrako banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012	2014	2018
Etxebizitza-ezaugarriak			
-Arazorik ez	70,8	72,6	76,5
-Arazoren bat	29,2	27,4	23,5
-Bi arazo edo gehiago	9,5	9,1	5,8
Auzune- edo ingurune-ezaugarriak			
-Arazorik ez	70,7	64,6	77,5
-Arazoren bat	29,3	35,4	22,5
-Bi arazo edo gehiago	14,3	15,1	7,0
Guztizkoa			
-Arazorik ez	56,7	54,1	64,2
-Arazoren bat	43,3	45,9	35,8
-Hiru arazo edo gehiago	14,5	14,2	7,2

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Azkenik, aipatutako arazo desberdinen eta pobrezia- eta bazterkeria-egoeren arteko erlazioari dagokienez, eskuratutako datuen arabera (ikus 29. Grafikoa), etxebizitza gipuzkoar guztien artean, pobrezia erlatiboko egoeran edo gabezia material larriko egoera bizi dutenen artean arazo gehiago izatea adierazten dute. Hala eta guztiz, eta estatistikoki adierazgarriak izan arren, aldeak erlatiboki murrizak dira eta ez dute aldaketarik izan 2014 urtetik.

29. Grafikoa. Etxebizitzarekin eta auzune edo ingurunearekin nabarmendutako arazo mota desberdinen banaketa. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Hala eta guztiz ere, bazterkeria-egoerak bizi dituzten etxebizitzetara dagokienez, aldi berean arazo horiek egoera hein handi batean, deskribatutako egoera horietako batzuetatik osatu izandako adierazle honi egotzi behar zaizkiola nabarmendu behar da.

3.6.3. Etxebizitzaren ekipamendu-maila


46. Taulan bildutako datuen arabera, eta inkestaren aurreko boladetan gertatu izan bezala, etxebizitza gipuzkoar gehien-gehienetan, etxebizitzarako oinarrizko-tzat har daitezkeen instalazio eta ekipamendu guztiak dauzkate. Hozkailuaren eta garbigailuaren kasuetan aurki daitezke, bakarrik, oso urriak diren gabezia batzuk.

Bestelako ondasun eta instalazio gehigarrietan egoera aldatu egiten da. Honela, etxebizitza gipuzkoarretatik %9,5k eta %16,1k, zailtasunen ondorioz, ez ditu zenbait ondasun edo ekipamendu, adibidez: ordenagailu pertsonala, Interneteko konexioa, gas naturalaren hornidura edo galdera indibiduala. Bilakaera-ikuspegi batek, osagai horiek ez dituzten etxebizitza-ehunekoa berean mantendu edo, kasu batzuetan, murriztu egin da, baina oso modu moderatuan gertatu da hori.

Oro har, 46. Taulan agertzen diren 15 itemak kontuan hartuz gero, instalazio, ekipamendu eta ondasun desberdinak jasotzen dituztenak, haiek guztiak dituzten etxebizitza gipuzkoarren proportzioa erlatiboki altua da (%74,4). Beste etxeen kasuak osagai baten, biren edo hiruren gabezia (%20,0), eta 4 edo gehiagoren gabezia dutenen artean bananduko litzateke (%5,7). 2012 urtean, azkeneko zifra hori %6,2koa izan zen, eta %6,6 2014 urtekoa, beraz, gabezia-egoera horien orekaz –edo baita hobekuntzaz ere– hitz egin daiteke.

Espero zitekeen modura, etxebizitza pobreetan maizago gertatzen da ekipamendu horien gabezia. Adibidez, pobrezia-egoera larrian dauden etxebizitzetatik aipatutako instalazio eta ekipamenduak, oinarrizkoak edo ez, soilik %24,8k dauzka; eta etxebizitza gipuzkoar guztien araberrako proportzioa %74,4koa da.

30. Grafikoa. Oinarrizko ekipamenduak eta beste motakoak ezin erosteagatik ez dituzten etxebizitza moten banaketa. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Lau osagai edo gehiagoren gabezia duten etxebizitzetako ezaugarri soziodemografikoei dagokienez –16.700 etxebizitza inguru–, haietatik ia erdia pertsona bakarrek osatutako etxebizitzak dira eta hamarretik lauk 65 urteko lagun bat dute pertsona nagusi. Gainera, haien artean askoz ere gehiago izaten dira atzerritar nazionalitateko biztanleak, emakumeak edota etxeko lagun aktibo guztian langabezia dauden kasuak. Gabezia horien eragina askoz altuagoa da, bestetik, alokairuan hartutako etxebizitzaren artean. Etxebizitza horietatik %63,7 pobrezia erlatiboko egoeran bizi dira eta heren bat baino pixka bat gehiago bazterkeria-egoeran (%36,3).

46. Taula. Etxebizitzako ekipamendu desberdinen araberrako etxebizitzaren banaketa. Gipuzkoa 2012-2018 (% horizontalak)


	Badute			Ez dute, baina izan dezakete			Ez dute eta ezin dute eduki		
	2012	2014	2018	2012	2014	2018	2012	2014	2018
Oinarrizko ekipamenduak									
Ura	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ur beroa	99,9	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0
Energia elektrikoa	99,9	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0
Ur zikinen ebakuazioa	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Komun osoa	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Sukaldea	100,0	100,0	99,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1
Hozkailua	99,9	99,8	99,8	0,0	0,2	0,0	0,1	0,0	0,2
Garbigailua	99,9	99,9	99,8	0,0	0,0	0,0	0,1	0,1	0,2
Bestelako ekipamenduak									
Telefonia (finkoa edo mugikorra)	99,5	99,8	99,8	0,0	0,1	0,2	0,5	0,1	0,1
Koloreetako telebista	98,8	98,6	98,8	0,3	1,0	0,5	0,9	0,4	0,7
Ordenagailu pertsonala	71,9	72,3	68,5	14,2	12,1	15,4	13,9	15,6	16,1
Internetarako konexioa	68,5	71,5	73,6	15,5	12,3	13,2	16,1	16,2	13,2
Autoa	73,6	73,8	71,3	8,8	7,9	12,8	17,6	18,3	15,9
Gas naturala	70,3	70,0	72,4	14,3	17,8	17,4	15,4	12,2	10,2
Galdara indibiduala	82,0	75,1	76,8	7,7	12,8	13,7	10,3	12,2	9,5

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

3.6.4. Pilaketa

Pilaketa pertsona bakoitzarentzako 15m²-ko azalera erabilgarria baino gutxiago edukitzea ulertuz gero, arazo horrek Gipuzkoako etxebizitzetatik %2,4ri eragiten dio, hau da, 33.500 bat pertsonen datu baliokidea eta biztanleria gipuzkoarraren %4,7. 31. Grafikoan ikus daitekeen bezala, egoera horiek kaltetutako etxebizitza- eta biztanleria-ehunekoak behera egin du; bereziki etxebizitzaren arabera neurtzen denean. Pilaketa gure inguruan gero eta gutxiago gertatzen den egoera bat dela uler daiteke.

31. Grafikoa. Pilaketa-prebalentziaren bilakaera (<15 m² pertsona bakoitzeko) etxebizitza guztietan eta biztanleria osoan. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Zeintzuk dira pilaketa-egoerak gehien kaltetutako talde soziodemografiko nagusiak? Pilaketa-egoeren intzidentzia bereziki altua da 45 urtez gorako pertsonak buru dituzten etxebizitzetan –%5,2–, pobrezia-egoeran dagoen lagun bat buru denean –%5,2–, eta bazterkeria-egoeran dauden etxebizitzetan –%7,3–. Etxebizitzaren edukitza-erregimenari dagokionez, problematika honen intzidentzia alokairuan hartutako etxebizitza batean bizi direnen artean altuagoa izaten da (%3,7); jabetza-erregimena dauzkaten beste aldean (%2,1).

Edonola ere, pilaketa-kasuetatik %58,8 gizarte-bazterketarik pairatzen ez duten etxebizitzak dira, eta %64,4k ez du pobrezia-egoerarik pairatzen. Kasuetatik %91,3 nazionalitate espainiarra duten etxebizitzetako pertsona nagusiei dagokie. Azkenik, bilaketa-ikuspegi batetik, pilaketa-egoeren intzidentzia etxebizitza mota horietan murriztu dela nabarmen daiteke; emakumeak eta 45 urtez azpiko pertsonak buru dituztenak salbu.

47. Taula. Etxebizitzaren pilaketaren prebalentzia, erferentziakoa pertsonen eta etxebizitzaren zenbait ezau-garriren arabera. Gipuzkoa 2018 (% horizontalak)

Kategoria	Sub-kategoria	Prebalentzia (%)	Banaketa bertikala (%)
Sexua	Gizonezkoa	2,8	79,3
	Emakumezkoa	1,6	20,7
Adina*	<45	5,2	59,2
	45-64	2,0	33,3
	65 eta gehiago	0,5	7,4
Nazionalitatea	Espainiarra	2,3	91,3
	Atzerritarra**	3,0	8,7
Edukitza-erregimena	Jabetza	2,1	68,7
	Alokairua	3,7	27,4
	Utzitza eta beste batzuk	3,1	3,9
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	5,2	35,6
	Gabezia	1,8	64,4
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	7,3	41,2
	Gabezia	1,6	58,8
Guztizkoa		2,4	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

**Emitzak hauei dagozkien interpretazioak kontuz egin behar dira identifikatu izandako kasu-kopuru apalagatik.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.7. Gizarte-harremanak, hiritar- eta politika-partaidetza eta boluntarioritza

3.7.1. Gizarte-harremanak

Familia-, bizilagun- eta lagun-sareen bitartez gertatzen diren gizarte-harremanek biztanleriaren bizi-baldintzekin eta gizartratze-mailarekin erlazio zuzena dute.

Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018 urteko Inkestaren arabera, orokorrean, inkestan partaide izandako etxebizitzetan beste kideekin, senideekin edo bizilagunekin dauzkaten harremanak onak dira. 2018 urtean, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, etxebizitzetatik %72k etxebizitzako arto harremanak gutxienez onak direla nabarmentzen du. Aurreko urtean aldean murriztu egin da ehuneko hori, baina ez da gertatu harreman txarra dutela adierazitako kasuak hazi direlako, baizik eta argi eta garbi, pertsona bakarrek osatutako etxebizitzaren ehuneko nabarmen hazi delako, eta ez dagoelako galdera luzatzeko aukerarik.

Gainera, biztanleriaren %97,4k gutxienez onak diren harremanak mantentzen omen ditu beste senide batzuekin; aurreko urteetako tankera ehunekoan ildo beretik. Azkenik, etxebizitzetatik %95k bizilagunekin mantentzen duten harremana gehienbat ona dela adierazten du. 2012 eta 2014 urtetan jasotakoa baino arinki apalagoa da ehuneko hori, ia-ia %96 izatera heltzen zena.

48. Taula. Inguruneke pertsonekin dituzten harreman moten arabera etxebizitzaren banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	Etxeko kideak			Beste senide batzuk			Bizilagunak		
	2012	2014	2018	2012	2014	2018	2012	2014	2018
[1] Oso txarrak edo txarrak	0,1	0,9	0,4	0,2	0,1	0,2	0,3	0,4	0,9
[2] Gehienbat txarrak	0,6	0,2	0,4	1	0,8	0,7	0,6	1,3	1,0
[3] Gehienbat onak	4,2	9,7	4,6	8,7	15,7	7,1	14,7	22,1	14,7
[4] Onak edo oso onak	75,3	66,8	67,4	90	82,3	90,3	80,9	73,6	78,4
[5] Harremanik gabea	0	0,1	0,0	0,1	0,6	1,4	3,2	1,7	4,8
[6] Ez dagokio*	19,9	22,2	27,3	0,1	0,5	0,2	0,2	0,8	0,2
Guztizkoa	100	100	100,0	100	100	100,0	100	100	100,0
+ Gehienbat txarrak, txarrak edo oso txarrak, edo harremanik gabea	0,7	1,2	0,7	1,3	1,5	2,3	4,1	3,4	6,7
+ Gehienbat onak, onak edo oso onak	79,5	76,5	72,0	98,6	98	97,4	95,6	95,8	93,0

*Bakarrik bizi diren pertsonak, seniderik ez dutenak, edo bizilagunak ez dituzten kasuak kontuan hartzen dira.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

49. Taula. Inguruneke pertsonekin mantendutako harreman moten arabera, erreferentziako pertsonen eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018 (% horizontalak)

		Etxeko kideak			Bestelako senideak			Bizilagunak		
		Txarrak, erdipur-dikoak, harremanik gabe	Onak edo oso onak	Ez dagokio	Txarrak, erdipur-dikoak, harremanik gabe	Onak edo oso onak	Ez dagokio	Txarrak, erdipur-dikoak, harremanik gabe	Onak edo oso onak	Ez dagokio
Sexua	Gizonezkoa	5,1	78,0	16,9	8,9	91,1	0,0	20,7	79,0	0,2
	Emakumezkoa	5,7	44,7	49,6	10,6	88,6	0,7	22,9	76,9	0,2
Adina	<45	2,8	70,6	26,6	5,9	93,5	0,6	19,9	80,1	0,0
	45-64	4,4	73,2	22,3	10,1	89,7	0,2	23,3	76,6	0,1
	65 eta gehiago	8,3	58,3	33,4	11,5	88,5	0,0	20,4	79,0	0,5
Nazionalitatea	Espainiarra	5,4	65,9	28,7	9,4	90,3	0,3	20,9	78,9	0,2
	Atzerritarra	4,5	87,8	7,7	9,6	90,4	0,0	28,5	71,5	0,0
Jaioterrria	EAE	4,4	65,8	29,7	8,9	91,0	0,1	19,9	79,8	0,3
	Estatuko beste lekuak	8,8	64,0	27,1	11,2	88,8	0,0	24,0	76,0	0,0
Pobrezia erlatiboa	Estatutik kanpokoa	4,4	84,6	10,9	9,6	88,8	1,6	27,2	72,8	0,0
	Presentzia	6,0	67,0	27,1	12,9	86,1	1,0	26,6	72,8	0,6
Gizarte-bazterketa	Gabezia	5,2	67,5	27,3	8,8	91,2	0,1	20,4	79,4	0,1
	Presentzia	14,1	57,1	28,8	21,1	77,7	1,3	39,4	60,3	0,3
Guztizkoa	Gabezia	3,9	69,0	27,1	7,6	92,3	0,1	18,6	81,2	0,2
	Presentzia	5,3	67,4	27,3	9,4	90,3	0,2	21,4	78,4	0,2

Oharra: harreman txarretan, erdipur-dikoetan edo harremanik gabekoetan "oso txarrak edo txarrak", "gehienbat txarrak", "gehienbat onak" eta "harremanik gabekoa" erantzunak jaso dira.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.


Aipatu berri izandako datuak, hala ere, etxebizitza guztien arabera dira. 48. Taulako datuek azterlanean zehar aintzat hartu izandako ezaugarri soziodemografiko nagusien arabera emaitzak. Batez bestekoa, etxebizitza gipuzkoarren %5,3k harreman txarrak edo erdipur-dikoak dituztela adierazten du; %9,4k beste senideekin eta %21,4k bizilagunekin. Beste aldetik, etxebizitzetatik %67,4k harreman onak edo oso onak mantentzen dituztela adierazten dute, %90,3k hori bera dio familia-harremanei buruz, eta %78,4k bizilagunei dituzten harremanen inguruan.

Barne-harreman txarrak dituztela adierazten duten etxebizitzek 65 urte baino gehiagoko pertsona bat, beste autonomia-erkidegoetan jaiotako laguna eta bazterkeria-egoeran dagoen pertsona bat izaten dute buru. Azken horien kasuan, harreman txarrak dituztela adierazitako ehunekoa %14,1 izatera iristen da eta biztanle

ria osoaren batez bestekoa ia hirukoiztu egiten dute (ez dena harrigarria, izan ere, bazterkeria-indize sintetiko osatzean kontuan hartu izaten den osagai bat baita familia-harreman txarrak izatea). Familiako beste kide batzuekin harreman txarrei dagokien egoera antzekoa da: kasu honetan, pobrezia-egoeran dauden pertsonak etxebizitza guztien aldean tasa nabarmen altuagoak jasotzen dituzte. Bizilagunen arteko harremanei dagokionez, etxebizitza pobreei (%26,0), gizarte-bazterketan (%39,4) eta pertsona atzerritarrek buru dituztenei (%28,5) dagozkie ehunekorik altuenak. Azken horiek ez ziren nabarmen familiarekin bereziki harreman txarrak mantentzeagatik, baizik eta bizilagunekin txarrak diren harremanengatik, gizarteratze-zailtasunak ager ditzaketanak.

Berriaz sostengu- edo laguntza-sareei dagokienean, 2018 urtean, etxebizitza gipuzkoarretatik gehien-gehienek (%89,0) arazoei aurre egiten lagundu ahal izateko lagunen bat baduela nabarmentzen du²⁹. Aitzitik, etxebizitzetatik %11,0k ez du horrelako laguntza motarik jasotzeko aukerarik. 32. Grafikoko datuek argiro erakusten duten bezala, laguntzeko pertsonaren bat ez duen etxebizitzaren kasuetan hazkunde nabarmen bat ezagutu da, zeina 2014 urtean %7,7 izatetik, 2018 urtean %11,0 izatera pasa baita.

32. Grafikoa. Laguntzeko inor ez daukaten etxebizitzaren prebalentziaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Gizarte-harremanetako sareen gabezia-egoera horietan izandako intzidentzia globalaren hazkunderaz gain, ezaugarri soziodemografikoen arabera gabezia horiek etxebizitzetara zein neurritan modu desberdinean eragiten diren nabarmentzea garrantzitsua da.

Honela, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, estatistikoki alde adierazgarriak ez aurkitu arren, laguntza-sareen gabezia dutenen etxebizitzetako ehunekoak ia bikoiztu egiten dira, emakumezkoak buru dituztenen aldean, gizonezkoak erreferentzia dituzten etxebizitzak. 45 urtez azpiko pertsonak eta pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden pertsona nagusiak dituzten etxebizitzetan ere altuagoa da –baita estatistikoki adierazgarriak ere kasu honetan–. Hala eta guztiz, sostengu-sareekin erlaziorik handiena duen faktorea jatorria da: atzerriar jaiotako lagunak buru diren etxebizitzetan eta atzerriar nazionalitate dutenen artean, sostengu-sareei dagokien gabeziak %40 eragiten dieten biztanleak; eta bazterkeria-egoeran dauden biztanleen kasuak batzuetan bikoiztu ere.

Bilakaera ikuspegi batetik, sostengu-sare gabeko etxebizitzaren ehunekoak etxebizitza mota guztien artean gora egin duela nabarmen daiteke, emakumezkoak eta pertsona adinduak buru dituzten etxebizitzetan salbu; eta bai biztanleria pobreko bai atzerriar jaiotako edo atzerriko nazionalitateko biztanleen artean bereziki hazi da.

²⁹ Galdetegian jaso izan bezala, laguntza gisara, dirua mailegatzea, mendekotasun-egoeran karguan hartutako norbait zaintzea, sostengu emozionala eskaintzea edo zenbait kudeaketa-lan egitea.

Azken horien kasuan, adibidez, %22,8 izatetik %45,1 izatera pasa da.

50. Taula. Laguntzeko inor ez daukaten etxebizitzaren prebalentzia, erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018 (% horizontalak)

		Prebalentzia (%)	Banaketa bertikala (%)
Sexua	Gizonezkoa	12,5	77,7
	Emakumezkoa	7,7	22,3
Adina*	<45	16,6	40,8
	45-64	10,9	38,5
	65 eta gehiago	6,6	20,6
Nazionalitatea*	Espainiarra	8,4	71,6
	Atzeritarrak	45,1	28,4
Jaioterrria*	EAE	7,5	48,3
	Estatuko beste lekuak	7,8	13,9
	Estatutik kanpokoak	40,5	37,9
Pobrezia larria*	Presentzia	28,3	11,0
	Gabezia	10,2	89,0
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	20,7	30,7
	Gabezia	9,1	69,3
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	22,3	27,3
	Gabezia	9,2	72,7
Guztizkoa		11,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Etxebizitzetako gizarte-harremanak eta sostengu-sareen eskuragarritasuna aztertu ondoren, epigrafe honetan, azkenik, etxebizitzako gizarte-arazo desberdinen presentzia aztergai hartzen da, nolabait erlazionatzen direnak biztanleriaren azturetan eta jokabideetan (ikus 51. Taula). Jasotako galdera-bateriak –guztira, zortzi– zenbait agertoki aintzat hartzen ditu, adibidez, alkoholarekin edo legez kanpoko drogekin arazoak izatea, aurrekari penalak, tratu txar fisikoak eta psikologikoak, indarkeria matxista eta nerabeen haurdunaldiak.


51. Taula. Etxeko kideren batek pairatu izandako gizarte-arazo desberdinen azken 10 urtetako intzidentziaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012	2014	2018
Alkohol-arazoak	0,5	1,4	0,9
Bestelako drogekin arazoa	1,4	0,5	1,1
Joko-arazoak	0,3	0,2	0,2
Aurrekari penalak	0,9	0,4	0,7
Tratu txar fisikoak	0,8	0,6	0,8
Tratu txar psikologikoak	0,9	0,7	1,3
Bikoterik gabeko ama nerabea, etxean bizi dena	0,0	0,2	0,2
Indarkeria matxistaren indarkeria	--	0,3	0,9
+ Arazoren bat	3,1	2,2	3,6

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Aurreko grafikoak bi datu interesgarri azaleratzen ditu: alde batetik, arazo horien intzidentzia eskasa, izan ere, gehien hedatuta dagoen arazoak –etxebizitzako kide batek azken hamar urtetan tratatu txar psikikorik pairatu izana– etxebizitzaren %1,3ri eragiten baitio. Hedatuena dagoen bigarrenak droga-arazoekin du zerikusia, Euskadiko etxebizitzetatik %1,1k pairatzen duena. Bigarren intereseko datuari dagokionean, zortzi arazo horietatik behintzat bat duten etxebizitzetan gertatutako hazkuntza arina, %2,2tik %3,6 izatera pasa dena 2014 eta 2018 urtetan.

33. Grafikoa. Etxebizitzako kideren baten gizarte-arazo desberdinen arabera etxebizitzaren moten banaketa. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Egoera horien analisia pobrezia- eta bazterkeria-egoerak kontuan hartuta eginez gero (ikus 33. Grafikoa), bi fenomeno horien artean ageri den lotura egiaztatzen da. Izan ere, etxebizitza guztien %3,6aren aldean, pobrezia erlatiboan dauden etxebizitzetatik %5,2k, pobrezia larriko egoeran dauden etxebizitzetatik %7,3k eta bazterkeria-egoeran dauden etxebizitzetatik %24,2k horietako egoeraren bat bizi izana adierazten du.


Bestetik, egoera horietatik behintzat batek eragindako etxebizitzaren ehunekoak ezagutu izan duen hazkundera ere askoz nabarmenagoa izan da, etxebizitzaren guztizkoaren aldean, pobrezia- eta/edo bazterkeria-egoeran dauden etxebizitzetan. Horrela, etxebizitza gipuzkoar guztien ehunekoa %2,2 izatetik %3,6 izatera pasa bada, bazterkeria-egoerak bizi dituzten etxebizitzetako kasuak %12,1 izatetik %24,2 izatera pasa da, hau da, %100eko hazkundera gertatu da.

Bereziki argia izandako gizarte-bazterketan dauden pertsonen egoeraren okertze hori Estatuan egindako beste inkestetako datuekin bat dator, adibidez, FOESSA Fundazioaren Gizarte Premiei eta Gizarteratzeari buruzko Inkestarekin, tankerako egoera bat antzeman duena, eta bazterkeria-egoeren kronifikazioagatik eta aurretik zailtasun gehiago zeuzkaten etxebizitzetako egoeren larritzeagatik gertatu izana uste da.

3.7.2. Hiritar- eta politika-partaidetza

Hiritar- eta politika-partaidetza gizarteratze-prozesuetarako ezinbesteko osagaia da, eta horren ondorioz, kontuan hartzen da ikerketa-esparruko bazterkeria-adierazleak osatzeko. GPGBI 2018tik lortutako informazioaren arabera, etxebizitza gipuzkoar guztietatik %20,4ren kasuan –hau da, diru-sarreraren arabera ekarpen gehien egiten duen etxeko kidea–, etxebizitzako erreferentzia den pertsona bazkide edo afiliatu gisara elkarteren edota gizarte-erakunderen batekoa da. 2014 urtean lortutakoaren aldean, zifra horrek beherakada nabarmena gertatu dela adierazten du, izan ere, erreferentziazko pertsonetatik %28,5k gizarte-erakunde bateko kide zela adierazten baitzuen. 2012 urteko galdera horren emaitza %36,9 izan zela aintzat hartu behar da, baina galdetegi horretan kasu horretan egindako galdera, 2014 urtekoan bezala sinplea izan ordez, gure gizartearen dauden erakunde eta elkarte mota desberdinak xeheki zehazten zituen.

34. Grafikoa. Etxebizitzako erreferentziazko pertsona gizarte-elkarteren bateko kide den etxebizitzaren banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2014-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Partaidetza politikoaren gaia, edo zehatzago esanda, hauteskundearen gaia ezinbestekoa gertatzen da bestetik.

Azterlan desberdinek azalerratu dutenez, pobrezia- eta/edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonen, beste biztanleen aldean, arlo politikoan parte-hartze apalagoa egiten dute eta haien lehentasun politikoak eta/edo interesak defenditzeko aukera gutxiago izan ohi dute. Braulio Gomezen esanean³⁰, “demokrazia ordezkatzaileraren funtzionamendu egokirako dimentsiorik garrantzitsuenetako bat hiritar guztien eskakizunei erantzuteko sentsibilitatea izatea da eta erabaki hartze politikoan aintzat hartzea. Demokraziak ez luke ondo funtzionatu parte-hartze politikorako aukera-berdintasuna izan ezean, emakumezkoen parte-hartzerako, prestakuntza

³⁰ Gómez, Braulio (2016). ³¹ Azterketa egiteko boluntariotzaren definizio bezala, zenbait baldintzetan pertsona fisikoek egiten dituzten izaera solidarioko jarduerak guztietan gizarte-partaidetzako ekintza gisara ulertzen da: [1] Borondatezkoa eta askea da, eta ez dago inolako lan-harremarik; [2] Ez dauka ordainsari ekonomikorik; eta [3] Irabazi-asmo gabeko erakundearen bitartez egiten da, programa eta proiektu zehazten baitan.

apalena duten herritarrentzako, adin zehatz batera iritsi ez edo gainditu duten pertsonentzako, baliabide ekonomiko murriztagoak dituzten laguntzetako edo zenbait auzunetan bizi diren biztanleentzako (...). Hala ere, gizarte-bazterketa ezaugarri duen hiri handi bateko auzo batean biziz gero, inolako hautaketan partaide ez izateko aukera handiak ditu (...). Demokraziaren puntu beltzak kokatzean, biztanle gehienek botorik ematen ez duten errolda-barrutiak ia-ia bat datoz milimetrikoki baliabide- eta eskubide-gabezia duten hirietako aldiriekin. Ekonomia-, osasun-, etxebizitza-, enplegu- edo harreman-arazoak pilatzen diren eremuak dira eta, gainera, gizarte-bazterketa larri bizi dutenak”.

Ondoren ikusiko dugun bezala, egoera hori ez da arrotz gertatzen Gipuzkoan. Datu globalek erakusten dutenez, biztanle gipuzkoarren %68,7k hauteskundeetan beti parte-hartzen du, %12,8k ia beti eta %6,9 aldi batzuetan. Aitzitik, %12,4k ez du parte-hartzen hauteskundeetan, dela botoa emateko eskubiderik ez izateagatik, dela haien ustez ezertarako ez duelako balio.

52. Taula. Erreferentziako pertsonaren ohiko hauteskunde-partaidetzan etxebizitzaren banaketak izandako bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

		2012	2014	2018
Ez du parte-hartzen	Boto-eskubiderik gabea	4,3	4,5	6,9
	Ez du interesik	3,4	4,0	3,6
	Ez du ezertarako balio	3,4	3,9	1,9
	+Gutzizkoa	11,1	12,4	12,4
Parte-hartzen du	Batzuetan	8,7	14,1	6,1
	Ia beti	22,7	18,8	12,8
	Beti	57,6	54,7	68,7
	+ Gutzizkoa	89,0	87,6	87,6
Gutzizkoa		100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

53. Taula. Erreferentziako pertsonaren hiritar- eta politika-partaidetzaren araberrako etxebizitzaren proportzioa, erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018**

		Banaketa horizontala (%)			Banaketa bertikala (%)			Gutzizkoa
		Parte-hartzerik ez	Hiritar- eta politika-partaidetza	Hiritar- eta politika-partaidetza	Parte-hartzerik ez	Hiritar- eta politika-partaidetza	Hiritar- eta politika-partaidetza	
Sexua	Gizonezkoa	12,0	67,8	20,2	70,7	67,3	70,1	68,2
	Emakumezkoa	10,7	70,8	18,5	29,3	32,7	29,9	31,8
Adina*	<45	25,3	57,5	17,2	58,7	22,6	23,5	27,0
	45-64	9,0	67,3	23,6	30,2	38,0	46,6	38,8
	65 eta gehiago	3,8	79,1	17,2	11,1	39,4	29,9	34,3
Nazionalitatea*	Espainiarra	5,3	73,6	21,1	42,6	99,7	100,0	93,1
	Atzerritarra	96,8	3,2	0,0	57,4	0,3	0,0	6,9
Jaioterrria*	EAE	4,7	73,0	22,3	28,1	74,6	79,6	70,2
	Estatuko beste lekuak	4,2	77,9	17,9	7,1	22,2	17,8	19,6
	Estatutik kanpokoa	73,4	21,6	5,0	64,8	3,2	2,6	10,2
Etxebizitzako diru-sarrera baliokideak kintiletan*	1. kintila	29,8	61,0	9,2	51,1	17,7	9,3	19,9
	2. kintila	12,3	70,2	17,5	21,8	21,0	18,3	20,6
	3. kintila	7,9	70,9	21,2	13,9	21,1	22,1	20,5
	4. kintila	7,2	71,5	21,3	11,3	19,0	19,8	18,3
	5. kintila	1,1	70,1	28,9	1,9	21,1	30,4	20,7
Pobrezia erlatiboa*	Presentzia	35,7	57,1	7,3	50,0	13,5	6,0	16,3
	Gabezia	6,9	71,0	22,1	50,0	86,5	94,0	83,7
Gizarte-bazterketa*	Presentzia	32,5	53,5	13,9	37,6	10,5	9,5	13,4
	Gabezia	8,4	71,1	20,6	62,4	89,5	90,5	86,6
Gutzizkoa		11,6	68,7	19,7	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

** Hiritar-partaidetza gizarte-erakunde motaren bateko bazkidea edo afiliatua izatea ulertzen da. Politika-partaidetzan, hauteskundeetan beti edo ia beti parte-hartzen dutela adierazitako erantzunak jasotzen dira.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Bilakaera-ikuspegitik kontuan hartuta, 2014 urteari dagokionaren aldean, boto-eskubidea ez duen pertsonen ehunekoak hazi egin da, eta interesik ez dutenen edo botoak ezertarako baliorik ez duela uste dutenen artean murriztu egin da. Botoa ematen dutenen artean, betiere botoa emandakoen ehunekoak hazi egin da, eta noizik behin edo ia beti botatzen dutenen herritarrena murriztu.

53. Taulak hiritar- eta politika-partaidetzaren araberrako etxebizitza-banaketa egiten du, epigrafe honetan aurretik aztertu izan diren bi galderak oinarritzat hartuta. Era oso sinplean, bestetik, elkarteren bateko partaide ez diren eta hauteskundeetan gehienetan parte-hartzen ez duten etxebizitzaren eta hiritar-partaidetzaren bi dimentsio horietako batean gutxienez parte-hartzen duten arteko bereizketa egin du.


53. Taulako lehen zutabeko datuek erakusten dutenez, hiritar- eta politika-partaidetzak berariaz eragiten die: biztanle gazteei, atzerriko jatorrikoek, pobrezia-egoeran bizi diren biztanleei eta bazterkeria-egoeran daudenei, biztanleria osoaren %11,6aren aldean, ez du politika- edo hiritar-partaidetzarik egiten pobre diren lagunetatik %35k. Are nabarmenagoa da, biztanleria behartsuenaren %20aren ehunekoak %29,8 iristen da, berez, politikan edo hiritar-jardueretan parte-hartzerik egiten ez duen pertsonetatik %51 diru-sarrera apaleneko kintilekoak dira, definizioz biztanleriaren %20 dena.

3.7.3. Gizarte-partaidetza eta boluntarioritza

Azkenik, herritar gipuzkoarren gizarte-partaidetzari eta boluntarioritari buruzko berariazko azterketa batek osatzen du atal hau³¹, galdetegiaren bolada honetan bildutako modulu tematikoko galdera-bateria oinarritzat hartuta.

Inkestaren emaitzetan jaso den bezala, adinez nagusia den biztanleria gipuzkoarraren %85,6k ez du sekula boluntario-lanik egin. Bestetik, %14,4k –84.900 pertsona inguru– boluntario-jardueretan parte-hartu du, azken urtean zehar (%7,7) edo hori baino lehenago (%6,7). %14,4ko ehuneko hori bat dator, gutxi gorabehera, Euskadiko boluntario-jarduerari buruz beste iturri batzuk egindako kalkuluekin.

35. Grafikoa. Erakunderen batean boluntario-lana egindako 18 eta urte gehiagoko pertsonen banaketa. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Parte-hartzerik handiena esku-hartze sozialaren arloan jasotzen da, izan ere, azken urtean boluntario-jarduerak bete dituzten 45.000 lagunetatik %28k arlo horretan lan egiten duen erakundearen bitartez egin baitute. Haien atzetik, aisialdiaren eta kirolaren arloko erakundeak daude, azken urtean nolabaiteko boluntario-jardueraren bat bete izandako pertsonetatik %23. Kultura eta hizkuntza dira, garrantziaren arabera, hirugarren arloa, era honetako erakundeetan azken urtean zehar 6.000 kolaboratzaile izan dituenak.

³¹ Azterketa egiteko boluntarioritzaren definizio bezala, zenbait baldintzetan pertsona fisikoek egiten dituzten izaera solidarioko jarduerak guztietan gizarte-partaidetzako ekintza gisara ulertzen da: [1] Borondatezkoa eta askea da, eta ez dago inolako lan-harremanik; [2] Ez dauka ordainsari ekonomikorik; eta [3] Irabazi-asmo gabeko erakundearen bitartez egiten da, programa eta proiektu zehatzen baitan.


54. Taula. Boluntario izandako 18 urte eta gehiagoko pertsonen jarduera-arloen banaketa. Gipuzkoa 2018

	Azken urtea	Aldiren batean, ez azkenekoan	Guztizkoa
Gizarte-eskuartzea	28,0	31,1	29,4
Aisialdia eta kirola	23,6	16,9	20,4
Kultura eta hizkuntza	15,8	15,5	15,7
Gaixotasuna/osasuna	11,1	13,1	12,0
Giza eskubideak eta gizarte-eskubideak	12,4	6,7	9,7
Garapenerako lankidetzak	13,4	5,2	9,6
Hezkuntza (guraso-elkarteak barne)	9,6	7,8	8,8
Auzunea	5,8	9,0	7,3
Ingurumena eta animalien babesak	2,4	7,2	4,6
Babes zibila	1,7	6,3	3,8
Beste arlo batzuk	5,4	3,4	4,5
Guztizkoa	129,2	122,2	125,9
Pertsonen zenbatekoa	45.274	39.629	84.903
+ Biztanleria osoaren arabera	%7,7	%6,7	%14,4
+ Parte-hartzen duen biztanleriaren artean 2 arlo baino gehiagokotan parte-hartzen dute	%25,7	%19,4	%22,8

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Nolanahi ere, erakunde hauei eskainitako dedikazioa oso desberdina da. Hurrengo grafikoa ikus daitekeen bezala, hiru boluntarioritik batek erakunde horiekin gutxienez astean behin lan egiten du. %17,8k gutxienez hilean behin egiten du, %16,1k hiru hilekoan behin eta %31,3k maiztasun apalagoan. Ikuspegi horretatik, gutxienez hilean behingoa maiztasunaz boluntario-erakundeekin lankide izaten den jendea biztanleriaren %4 ingurukoa izango litzateke.

36. Grafikoa. Azken urtean boluntario-lana egindako 18 eta urte gehiagoko pertsonen maiztasunaren arabera banaketa. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

55. Taula. Erakunderen batean boluntario-lana egindako 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren proportzioa, pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)				Banaketa bertikala (%)				
		Inoiz ez	Boluntario-lana egin du			Inoiz ez	Boluntario-lana egin du			Inoiz ez
			Azken urtean	Noizbait, ez azken urtean	Gutzikoa		Azken urtean	Noizbait, ez azken urtean	Gutzikoa	
Sexua	Gizonezkoa	85,3	7,7	7,0	14,7	48,4	48,4	50,7	49,4	48,5
	Emakumezkoa	85,8	7,7	6,5	14,2	51,6	51,6	49,3	50,6	51,5
Adina	18-34	89,0	5,9	5,1	11,0	20,3	14,9	14,8	14,9	19,5
	35-54	82,6	8,7	8,7	17,4	36,3	42,7	48,7	45,5	37,6
	55 eta gehiago	86,7	7,6	5,7	13,3	43,4	42,5	36,5	39,7	42,9
Nazionalitatea*	Espainiarra	84,7	8,1	7,2	15,3	88,4	93,8	95,9	94,8	89,3
	Atzerritarra	92,9	4,5	2,6	7,1	11,6	6,2	4,1	5,2	10,7
Jaioterria*	EAE	84,4	8,4	7,2	15,6	72,0	80,1	78,3	79,3	73,0
	Estatuko beste lekuak	85,7	6,7	7,6	14,3	15,7	13,7	17,6	15,5	15,6
	Estatutik kanpokoa	93,4	4,2	2,4	6,6	12,4	6,2	4,1	5,2	11,3
Etxebizitzako diru-sarrera baliokideak kintiletan*	1. kintila	90,4	4,7	4,9	9,6	19,7	11,5	13,6	12,5	18,6
	2. kintila	89,5	5,1	5,4	10,5	20,8	13,3	15,9	14,5	19,9
	3. kintila	86,6	7,5	5,9	13,4	20,4	19,6	17,7	18,7	20,1
	4. kintila	84,4	9,2	6,4	15,6	19,1	23,3	18,5	21,0	19,4
	5. kintila	78,2	11,3	10,5	21,8	20,0	32,3	34,2	33,2	21,9
Pobrezia erlatiboa	Presentzia	90,4	4,7	5,0	9,6	15,9	9,1	11,1	10,1	15,0
	Gabezia	84,7	8,2	7,0	15,3	84,1	90,9	88,9	89,9	85,0
Gizarte-bazterketa	Presentzia	87,7	5,0	7,3	12,3	13,3	8,5	14,1	11,1	13,0
	Gabezia	85,3	8,1	6,6	14,7	86,7	91,5	85,9	88,9	87,0
Gutzikoa		85,6	7,7	6,7	14,4	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak. Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Txosten honetan aztertzen ari diren gairik gehienak bezala, boluntario-jarduera estatistikoki adierazgarriak diren aldagai soziodemografikoekin erlaziozaten dira, adibidez, nazionalitatea, jaioterria edo diru-sarrera maila. Horrela, adibidez, hiritar- eta politika-partaidetzarekin gertatzen zen bezala, diru-sarrera mailak gora egiten duen heinean boluntariotza hazi egiten da nabarmen: %10,6 errenta apaleneko kintilean, eta %21,8 errenta handien artean. Jatorri atzerritarreko pertsonen dagokionean, ozta-ozta %7k boluntario-jarduerak betetzen ditu edo bete ditu; eta EAEn jaiotakoetatik %15,6k.

Zein arrazoik oztopatzen dute boluntariotza? Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, boluntario-jarduerarik egiten ez dutenek edo sekula egin gabeko lagunetatik %57k ez du sekula planteatu. %39k astirik ez izatea eta %27,7k interesik eza argudiatzen du.

Azkenik, sekula boluntariotza egin gabeko etxebizitzako erreferentziako pertsonetatik %5,5ak etorkizunean boluntario-jarduerak betetzeko aukerak erlatiboki altuak direla adierazten dutela nabarmendu behar da. Talde horretatik %94,5ak, aitzitik, etorkizun motz batean boluntario-jardueretan hasteko aukera gutxi edo batere ez dagoela irizten dio.


56. Etxebizitzako erreferentziako pertsonak boluntario ez izateko kausen araberrako banaketa. Gipuzkoa 2018

	Proportzioa (%)	Kopurua
Noizbait boluntario-lana bete du	17,2	50.706
Ez du bete sekula boluntario-lanik	82,8	244.795
Arrazoiak (sekulan parte-hartu gabeko pertsonak bakarrik)		
-Ez dut sekula planteatu	57,2	139.990
-Astirik eza	39,5	96.791
-Ez dut inolako interesik	27,7	67.921
-Adin handia, osasuna	12,1	29.631
-Nagikeria edo iniziatiba eza	5,8	14.269
-Informaziorik eza	3,4	8.402
-Boluntario-lanak lanpostuak kentzen ditu	3,1	7.666
-Nire astia beste jarduera batzuetan erabiltzea nahiazo dut	2,2	5.367
-Ez naiz erakundeez fidatzen	0,7	1.720
-Beste arrazoi batzuk	0,5	1.257
-Gutzikoa	120,7	

*Askotariko erantzuneko galdera bat da, eta horren ondorioz, banaketa bertikala %100 baino handiagoa da.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

37. Grafikoa. Boluntario-lanik egin gabeko etxeko erreferentziako pertsonen banaketa, alde aurretik etorkizunean egiteko duten asmoaren arabera. Gipuzkoa 2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.8. Pobreziari aurre egiteko politiken erabilera, eskaria eta eraginkortasuna

3.8.1. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta Lanbideren erabilera

Inkestaren datuen arabera, etxebizitza gipuzkoar guztietatik %11,0k azken urtean zehar aldiren batean oinarrizko gizarte-zerbitzuetara jo duela adierazten du. Urtebete baino gehiagoko aldiran gizarte-zerbitzuetara jo izandakoen ehunekoa tankerakoa da, beraz, aldiren batean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske joan omen da %22,5. Lanbidera joan izandako etxebizitzaren ehunekoa handiagoa da: %18,0k azken urtean, %16,8k urtebete baino lehenago eta %34,8k aldiren batean behintzat. Bilakaera-ikuspegi batetik (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** Taula), Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo izandako etxebizitzaren ehunekoa progresiboki murrizten joan dela –baina oso hein baxuan– ikus daiteke. Azken urtean Lanbidera jo duela adierazitako etxebizitzaren ehunekoak ere behera egin du, era nabarmen batean gainera, ziu-rrerik egoera ekonomikoaren eta lan-merkatuaren hobekuntzaren ondorioz.

Azken urteko zerbitzu publikoen erabilera etxebizitzetako erreferentziako pertsonen ezaugarrien arabera aztertzen denean, dela gizarte-zerbitzuetara dela Lanbidera hein handiagoan hurbiltzen dira etxebizitzako erreferentziako pertsonak emakumezkoak direnean, atzeritar nazionalitatea dutenean edo lan-intentsitate maila baxua edo oso baxua duten pertsonak.

57. Taula. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Lanbideren erabilerearen arabera etxebizitzaren banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen			Lanbide		
	2012	2014	2018	2012	2014	2018
Aldiren batean	24,9	23,7	22,5	40,0	37,8	34,8
- Azken urtea	13,0	11,8	11,0	26,9	23,8	18,0
- Urte 1 baino gehiago	11,8	11,9	11,5	13,1	14,1	16,8
Inoiz ez	75,1	76,3	77,5	60,0	62,2	65,2
Guztizkoa	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Pertsona nagusiaren adina Lanbideren sarbidearekin bakarrik erlazionatzen da (baina ez gizarte-zerbitzuekin, askoz ere zeharkakoagoak direnak zentzu horretan), izan ere, 45 urtez azpiko erreferentziako pertsonak dituzten etxebizitzek hein handiagoan erabili baitute zerbitzu hori.

Azkenik, eta pobrezia- edo bazterkeria-egoeran dauden kolektiboek berriaz bideratutako zerbitzuak ez izan arren, azken urteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen nahiz enplegurako Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabilera nabarmen altuagoa da pobrezia monetarioko eta/edo gizarte-bazterketako egoerak pairatzen dituzten etxebizitzaren pertsonetatik %35,7k pobrezia-egoera pairatzen du, eta %35,6k gizarte-bazterketa. Ildo horretatik egiaztatzen den bezala, Gizarte Zerbitzuetako erabilizaleen artean kolektibo horien gehiegizko adierazgarritasuna gertatu arren, zerbitzuak eskuratzea joaten diren biztanle gehienek ez dute pairatzen bazterkeria- edo pobrezia-egoerarik.

58. Taula. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Lanbideren erabilerearen arabera etxebizitzak, erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzako zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018

		Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak*				Lanbide*			
		Banaketa horizontala (%)		Banaketa bertikala (%)		Banaketa horizontala (%)		Banaketa bertikala (%)	
		Aldiren batean*	Inoiz ez	Aldiren batean*	Inoiz ez	Aldiren batean*	Inoiz ez	Aldiren batean*	Inoiz ez
Sexua**	Gizonezkoa	18,6	81,4	56,4	71,7	31,2	68,8	61,2	72,0
	Emakumezkoa	30,9	69,1	43,6	28,3	42,4	57,6	38,8	28,0
Adina+	<45	22,2	77,8	26,6	27,1	51,0	49,0	39,6	20,2
	45-64	20,3	79,7	35,1	39,9	38,5	61,5	42,9	36,6
	65 eta gehiago	25,2	74,8	38,4	33,1	17,7	82,3	17,5	43,2
Nazionalitatea**	Espainiarra	20,2	79,8	83,7	95,9	31,9	68,1	85,4	97,2
	Atzeritarra	53,3	46,7	16,3	4,1	73,6	26,4	14,6	2,8
Laneko intentsitatea ^{1**}	Baxua	55,1	44,9	29,5	7,0	73,3	26,7	20,0	5,7
	Ertaina	27,2	72,8	27,9	21,6	56,9	43,1	29,8	17,7
	Altua	14,7	85,3	42,6	71,4	33,9	66,1	50,1	76,6
Pobrezia-maila**	Larria	66,3	33,7	12,6	1,9	79,6	20,4	9,8	1,3
	Erlatiboa, ez larria	43,3	56,7	23,1	8,8	51,7	48,3	17,8	8,9
	Gabezia	17,3	82,7	64,4	89,4	30,0	70,0	72,4	89,8
Gizarteratze-maila**	Bazterkeria larria	63,3	36,7	15,0	2,5	64,2	35,8	9,8	2,9
	Bazterkeria moderata	57,1	42,9	20,6	4,5	65,3	34,7	15,2	4,3
	Gizarteratze prekariora	25,6	74,4	32,6	27,4	41,3	58,7	34,0	25,7
	Erabateko gizarteratzea	12,4	87,6	31,9	65,6	24,5	75,5	40,9	67,1
Guztizkoa		22,5	77,5	100,0	100,0	34,8	65,2	100,0	100,0

¹ Adierazle honek etxebizitza baten okupazio-mailaren arabera banatzen du biztanleria, etxebizitzaren potentzialki aktibo diren pertsonen arabera osatzen da: bakoitzak urtean zehar lan egindako hilabete-kopuruaren eta betetako lanaldiaren arabera. Kalkulu honetan, 60 urtez azpiko gutxienezko pertsona bat duten etxebizitzak hartzen dira. Lan-intentsitate baxua duten etxebizitzak izateko, 18 eta 59 pertsona helduek gutxienez potentzialki lan egiterik zutenaren %30 baino lan gutxiago egin izandakoak dira; eta altua, %70a gainditzen dutenak.

** + p<0.05rako Chi karratuaren probaren arabera, estatistikoki adierazgarriak diren aldeak antzeman dira oinarrizko gizarte-zerbitzuen (*) edo Lanbideren (+) erabilerean, sinbolo bakoitzarekin identifikatu izandako aldagai horien kasuan.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.8.2. Laguntza eta prestazio ekonomikoen eskakizuna

Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkestak, bestetik, premia-egoeran dauden biztanleak babesteko eta gizarteratzeko berariazko prestazio eta laguntza ekonomiko sorta baten eskaria jasotzen du (ikus 59.Taula). Alde horretatik, inkestako datuen arabera, azken hamabi hilabetetan etxebizitza gipuzkoarretatik %7,9k diru-sarrerak bermatzeko laguntza-prestazioren bat eskatu dio erkidego- edo estatu-erakunderen bati.

Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzari dagokionez, haie-tatik gehien eskatutako prestazioa dena, etxebizitzetatik %6,0k azken hamabi hilabetetan eskatuko zukeen. Izan ere, prestazio horri baitagokio, praktikan, laguntza-prestazioen guztizko eskariaren %75. Estatuaren esku-duntzako diren laguntzak –kotizaziorik gabeko pentsioak eta langabezia-sorospena– ez dira guztizko prestazio ekonomikoen eskaintzaren %20. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren atzetik langabezia-sorospena kokatzen da, etxebizitza gipuzkoarretatik %1,9k eskatutakoa. Etxebizitzetatik %1 baino gutxiagoko eskaria izango lukete kotizazio gabeko pentsioek (%0,5) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzek (%0,5). 2018 urtean izandako hedapenez harago, prestazio horien eskariak ezagutu izandako murrizketa nabarmena azpimarratu behar da, zeinak biztanleriaren %11,0k eskatzetik %7,9k eskatzera pasa dena. Murrizketarik handiena DBEn gertatu da, 1,5 puntu portzentualetan beheratu dena, baina neurri portzentualetan gehien jaitsi izandako prestazioa langabezia-sorospena izan da.

59. Taula. Azken urtean zehar laguntzak eta prestazio ekonomikoak eskatu izandako etxebizitzaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012	2014	2018
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta	6,2	7,5	6,0
Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza	0,2	0,9	--
Gizarte Larrialdietako Laguntzak	0,4	0,5	0,5
Kotizatu gabeko pentsioak	0,4	0,8	0,5
Langabezia-subsidioa	4,2	3,9	1,9
+Haletako bateren bat	9,8	11	7,9

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Espero zitekeen bezala, prestazio hauei buruzko pertzepzioak zerikusia du etxebizitzetako ezaugarri sozio-demografikoekin. Horrela, prestazio horiek aldiren batean eskatutakoen banaketa ondokoa da: emakumezkoa erreferentzia duten etxebizitzak %11,3; 45 urtez azpiko lagun bat buru dutenak %29,1; lan-intentsitate apaleko etxebizitzak %44,4; pobrezia-egoera larrian dauden etxebizitzak %50,1; eta bazterkeria-egoeran dauden etxebizitzak %39,0).

Hala ere, eskakizunak bideratu izan dituzten guztietatik %74,6k nazionalitate espainiarra du; %77k ez du pairatzen pobrezia-egoera larririk; eta %41 gizarteratuta bizi da, dela erabat edo era prekarioan gizarteratuak. Bestetik, laguntza horiek eskatu izandako pertsonetatik %17 lan-intentsitate bateratu altua duten familietako kide dira, eta, datuen arabera, prestazio mota horiei buruzko pertzepzioarekin bateragarria da.

60. Taula. Azken urtean laguntza eta prestazio ekonomiko desberdinen eskakizunaren arabera etxebizitzak, erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018

		Banaketa horizontala (%)			Banaketa bertikala (%)		
		Baten bat eskatu du	Ez du eskatu batere ez	Gutzizkoa	Baten bat eskatu du	Ez du eskatu batere ez	Gutzizkoa
Sexua*	Gizonezkoa	6,3	93,7	100,0	54,4	69,4	68,2
	Emakumezkoa	11,3	88,7	100,0	45,6	30,6	31,8
Adina*	<45	14,5	85,5	100,0	49,5	25,0	27,0
	45-64	7,3	92,7	100,0	35,8	39,0	38,8
	65 eta gehiago	3,4	96,6	100,0	14,6	35,9	34,3
Nazionalitatea*	Espainiarra	6,3	93,7	100,0	74,6	94,7	93,1
	Atzerritarra	29,1	70,9	100,0	25,4	5,3	6,9
Laneko intentsitatea*	Baxua	44,4	55,6	100,0	54,1	7,4	12,0
	Ertaina	12,2	87,8	100,0	28,6	22,4	23,0
	Altua	2,6	97,4	100,0	17,3	70,2	64,9
	Larria	50,1	49,9	100,0	27,0	2,3	4,3
Pobrezia-maila*	Erlatiboa, ez larria	24,3	75,7	100,0	36,9	9,9	12,0
	Gabezia	3,4	96,6	100,0	36,1	87,8	83,7
	Bazterkeria larria	39,0	61,0	100,0	26,3	3,5	5,3
	Bazterkeria moderatua	31,9	68,1	100,0	32,8	6,0	8,1
Gizarteratze-maila*	Gizarteratze prekarioa	8,3	91,7	100,0	30,1	28,5	28,6
	Erabateko gizarteratzea	1,5	98,5	100,0	10,9	62,0	58,0
	Gutzizkoa	7,9	92,1	100,0	100,0	100,0	100,0

1 Adierazle honek etxebizitza baten okupazio-mailaren arabera banatzen du biztanleria, etxebizitzan potentzialki aktibo diren pertsonen arabera osatzen da: bakoitzak urtean zehar lan egindako hilabete-kopuruaren eta betetako lanaldiaren arabera. Kalkulu honetan, 60 urtez azpiko gutxienezko pertsona bat duten etxebizitzak hartzen dira. Lan-intentsitate baxua duten etxebizitzak izateko, 18 eta 59 pertsona helduek gutxienez potentzialki lan egiterik zutenaren %30 baino lan gutxiago egin izandakoak dira; eta altua, %70a gainditzen dutenak.


* p<0.05 Chi karraturako probaren arabera estatistikoki adierazgarriak diren aldeak.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.8.3. Oinarrizko etxebizitza-premietara Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren egokitzea

Aurretik azaldu den bezala, etxebizitza gipuzkoarretatik %6,0k Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskatuko zukeen. %8,8k aldiren batean prestazio hori jasoko zukeen. 2018 urtean DBE eskatutako etxebizitza-proporzioa 2012 eta 2014 urteetan jasotakoa baino baxuagoa da, DBLren kudeaketa-datuekin eta egoera ekonomikoaren hobekuntzarekin bat datorrena.

38. Grafikoa. Aldiren batean DBE edo DSBL eskatu izandako etxebizitza-proporzioaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018



Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Denboraren poderioz, zenbatekoa jasotzaileen premietara egokitzea eskatzen joan dela ematen du, jasotzaile diren lagunen ikuspegitik, behintzat. Izan ere, 2018 urtean jasotzaile izandako lagunetatik %9,5k haien premiei erabat erantzuten diela adierazten dute; 2014 urtean %13,2k eta 2014 urtean %19,3k.

61. Taula. DBE jasotzen duten etxebizitzaren banaketaren bilakaera, etxebizitzako oinarrizko premiak betetzeko zenbatekoak duen hautemandako gaitasunaren arabera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012	2014	2018
Bai, erabat	19,3	13,9	9,5
Bai, baina ez erabat	35,0	36,9	41,3
Ez nahikoa da	25,6	24,5	34,8
Oso ez nahikoa da	13,0	24,7	14,3
Guztizkoa	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

3.8.4. Gizarte-transferentzien eta gutxieneko errenta-sistemen eragina

Epigrafe honetan, azkenik, pobrezia-tasak murrizteko egungo gizarte-transferentzien analisi labur bat aurkeztu da, baita egungo gutxieneko errenta-sistemak duen prebentzio-izaerako eragina laburbiltzea ere.

3.8.4.1. Pobrezia larria murrizteko gizarte-transferentzien eraginkortasuna

Pobrezia-tasak gizarte-transferentzien aurretik eta ondoren konparatzea europar eremuko erreferentziatzko adierazleetako bat da babes-sistemak birbanatzeko duen eraginkortasuna neurtzeko, eta horren ondoriozko pobrezia murrizketan duen eragina neurtzeko. Ikuspegi horretatik, Gipuzkoako Lurralderako pobrezia larriko tasak murrizteko gizarte-transferentzien eraginkortasuna aztertzen da atal honetan.

62. Taula. Gizarte-transferentzien aurretiko eta ondorengo pobrezia larria. Gipuzkoa 2018

	Pertsonak		Etxebizitzak	
	Tasa	Nº	Tasa	Nº
Gizarte-transferentzien aurretiko pobrezia larria	9,4	67.073	10,0	29.484
Gizarte-transferentzien ondorengo pobrezia larria	5,3	37.838	4,3	12.599
Aldea (ehunekotan)	-4,1	-29.235	-5,7	-16.885
Murrizketa (%)	-%43,6	--	-%57,3	--

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

2018 urteko datuen arabera, 62. Taulan ikus daitekeen bezala, gizarte-transferentziak existitu ezean, Gipuzkoako biztanleria osoaren %9,4k pobrezia larria pairatuko luke, eta etxebizitzetatik %10,0k. Gizarte-transferentziak aintzat hartuz gero (langabezia-prestazioak, gutxieneko errentak, etab.), tasa horiek %5,3 beheratuko lirarteke biztanleen kasuan, eta %4,3 etxebizitzetan. Gizarte-transferentziek, etxebizitzetako pobrezia-tasa, guztira, %57,3an murrizten dutela nabarmendu behar da, eta 16.800 etxebizitza gipuzkoarrei pobrezia-egoeratik irtetzen laguntzen diela.

Konparazio-ikuspegi batetik, eta bilakaerari kontu hartuz gero, pobrezia murrizteko 2014 urtean izandako gaitasuna baino murriztagoa izan da bolada honetan (ikus 63. Taula), baina Espainia osoan jasotakoa baino sendoagoa izan da –euskal sistemaren aldean gutxieneko errenta-sistema askoz ere ahulagoekin–; eta EB-28ko herrialdeetan jasotakoa baino apalagoa izan dena,

³² Gizarte-transferentzien artean, sistema publikoaren transferentziak hartzen dira aintzat, dela gizarteratze-arloan (DBE, DSBL, GL, etab.) dela gizarte-segurantzaren eta langabeziaren arloan (langabezia-prestazioak, familia-babestekoak, seme edo alaba karguan izateko prestazioak, gaixotasun-prestazioak, 65 urtez azpiko ezintasun-prestazioak eta birmoldaketa edo berregituraketa enpresarialaren ondoriozko aurretiko erretiroak). Aitzitik, ez dira jubilazio-pentsioak aintzat hartu.

izan ere, pobrezia larria %57,4³³ murriztu baitzuten 2018 urtean. Bestalde, ondoko bi osagaiak nabarmen-tzea garrantzitsua da: alde batetik, bai Gipuzkoan bai Espainian nahiz Europan, gizarte-transferentzien aurretiko pobrezia-tasa –lan-merkatuak sortutakoa– 2014 eta 2018 urteen bitartean murriztu egin da.

Bestetik, EBren aldean, gizarte-transferentzien aurretiko pobrezia larriko tasaren arabera, aztertutako bi urtetatik edozeinetan, Gipuzkoako egoera askoz hobea izan da. Bestalde, transferentzien ondoko pobrezia-tasa ere hobea izan da EBkoaren aldean, baina kasu honetan jasotako alde murriztagoa izan da. Nabarmendutakoaren arabera, Gipuzkoako egoera hobea izatearen arrazoiak europar lan-merkatuak baino pobrezia gutxiago sortzen duela ondoriozta daiteke, eta ez pobrezia murrizten bereziki eraginkorra den babes-sistema baten ondorioz gertatzen denik.

Espainiako kasuan, aitzitik, lan-merkatuak pobrezia-tasa altuagoak sortzen ditu, eta Europako herrialdeen aldean, neurri apalagoan murrizten duen gizarte-babeserako sistema duelako.

63. Taula. Gizarte-transferentzien aurretiko eta ondorengo biztanleriaren pobrezia larria. Gipuzkoa, Espainia y EB-28. 2014-2018

	Pobrezia larriko tasa		Murrizketa (%)
	Transferentzien aurretik	Transferentzien ondoren	
+Gipuzkoa			
2014	11,9	5,4	-%54,6
2018	9,4	5,3	-%43,6
+España			
2014	19,1	10,6	-%44,5
2018	16,6	10,5	-%36,7
+EB-28			
2014	14,8	6,3	-%57,4
2018	14,1	6,0	-%57,4

Iturriak: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta; INE. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta; Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions)-

Gizarte-transferentzien aurretiko eta ondorengo pobrezia-tasak zenbait aldagai soziodemografikoen arabera aztertuz gero, gizarte-talde guztien artean era homogeneo batean ez dela murrizten emaitzek argi eta garbi erakusten dute.

Izan ere, eta 64. Taulan ikus daitekeen bezala, artarako prestazio ekonomikoen sistemaren bitartez errenta primarioek sortutako pobrezia-tasen murrizketa bereziki baxua gertatzen da 18 urtez azpikoen artean, atzerritar nazionalitatea dutenen artean, eta seme-alabak dituzten bikoteen artean. Horrela, adibidez, 65 urte eta gehiagoko biztanleen laguntzagatiko prestazio horien bitartez pobrezia-tasa %53 beheratzen da, baina 18 urtez azpi-

³³ Eurostatek 2018 urterako EB-28ko datuen arabera, gizarte-prestazioen eragina (jubilazio-pentsioak baztertuta), era konparatu batean, bereziki baxua da Europa hegoaldeko eta ekialdeko zenbait herritan. Adibidez, eragin gutxiena izandako EB-28ko herrialdeen sailkapenean, Espainia seigarren tokian dago (-%37), eta atzetik ditu: Letonia (-%36), Bulgaria (-%35), Italia (-%29), Grezia (-%28) eta Errumania (-%27). 2018 urtean, aitzitik, Finlandia, Irlanda, Belgika eta Frantzia bezalako herrialdeetan %75 baino altuagoa den pobrezia larriaren murrizketa jaso da.

koena ozta-ozta %18 beheratzen da. Pertsona bakarrek familien arteko tasa %73 beheratzen den bitartean, seme-alabak dituzten familietako murrizketa nekez heltzen da %21 izatera. Prestazio ekonomiko horiek talde soziodemografikoen arabera pobrezia beheratzeko eraginkortasun desberdin hori gizarte-babes sistemaren ereduaren osaera propioarekin lotzen da, eta ondorio gisara, beste alderdi batzuen artean, jaiotze-tasaren beheratzea edota haur-pobreziaren emergentzia.

64. Taula. Gizarte-transferentzien aurretiko eta ondorengo pobrezia larriko tasak, biztanleriaren eta etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2018

		Aurretik	Ondoren	Murrizketa (%)
Sexua	Gizonezkoa	8,9	4,8	-46,2%
	Emakumezkoa	9,8	5,8	-41,3%
Adina	<18	14,3	10,8	-24,9%
	18-44	9,9	5,5	-44,2%
	45-64	9,9	4,3	-56,1%
	65 eta gehiago	4,1	1,9	-53,2%
Nazionalitatea	Espainiarra	6,2	2,7	-56,5%
	Atzerritarra	34,1	25,4	-25,5%
Familia multzoa	Pertsona bakarra	13,5	3,6	-73,4%
	Seme-alaba gabeko bikotea	5,7	2,3	-59,9%
	Seme-alabaren bat duen bikotea	6,6	5,2	-21,4%
	Gurasobakarra	26,4	13,1	-50,5%
	Beste batzuk	21,0	13,7	-34,8%
Jardueraren arabera erlazioa	Aktibo guztiak landunak	3,8	2,6	-31,1%
	Bi edo pertsona aktibo gehiagoko etxean behintzat aktibo den batek lana izatea	31,0	25,3	-18,5%
	Ez dago lana duen pertsona aktiborik	72,5	35,2	-51,4%
	Ez dago pertsona aktiborik	10,3	2,7	-73,5%
Guztizkoa		9,4	5,3	-43,6%

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

3.8.4.2. Pobrezia larria murrizteko DBE-EPO/DSBL/GLL sistemaren eraginkortasuna

Gizarte-transferentziek lortutako eragin orokorraz harago, zein neurritan lortzen dute gure lurraldean diru-sarrerak bermatzeko sistemak sortutako prestazioek (DBE/EPO, DSBL eta GLL)?

Gipuzkoako biztanleriaren %5,3k pairatzen duen pobrezia larriko tasa, 65. Taulan ikus daitekeen emaitzen arabera, prestazio horien bitarteko diru-laguntzarik jaso ezean, %7,1 izatera pasako litzateke pobrezia. Horretatik ondoriozta daitekeen bezala, gutxieneko errenten euskal sistemak %25,1eko pobrezia larriko tasaren murrizketa lortuko luke, eta biztanleriaren %7,1 izatetik, haren intzidentzia %5,3 izatera pasa da, 12.600 bat lagunek pobrezia-egoera larria pairatzeari utzita.

65. Taula. DBE-EPO/DSBL/GLL sistemaren aurretiko eta ondorengo pobrezia larria. Tasak eta kaltetutako pertsona- eta etxebizitza-kopurua. Gipuzkoa 2018

	Pertsonak		Etxebizitzak	
	Tasa	Nº	Tasa	Nº
DBE-EPO/DSBL/GLL aurretiko pobrezia larria	7,1	50.512	6,7	19.693
DBE-EPO/DSBL/GLL ondorengo pobrezia larria	5,3	37.838	4,3	12.599
Aldea	-1,8	-12.674	-2,4	-7.094
Murrizketa (%)	-%25,1	-%25,1	-%36,0	-%36,0

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Biztanleria osotasunean hartu ordez etxebizitzak aintzat hartuz gero, neurri erlatiboetan DBE/DSBL/GLL sistemaren eragina are eraginkorragoa da, izan ere, prestazio horien bitartez Gipuzkoan pobrezia-egoerak kaltetutako etxebizitzetatik heren bat libratzea lortzen baititu. Kontuan hartu behar da, neurri handi batean, desberdintasun horiek DBE jasotzen dutenen artean pertsona bakarrekotako erlatibo garrantzitsuaren ondorio direla. Izan ere, Lanbideren 2014 urteko abenduko datuen arabera, Gipuzkoako DBE jasotzen duten bizikidetzaren guztien %41,2 pertsona bakarrekotako etxebizitzetara zegoen, hau da, pertsona bakarrekotako familien pisu erlatiboa %25koa da Gipuzkoako familien multzoa kontuan hartuz gero.

Bestalde, 2012 eta 2018 urteen artean izandako bilakaerari dagokionez, 66. Taulako emaitzek agerian uzten dute prestazio horren eraginkortasunean nolabaiteko murrizketa gertatu dela –pobrezia larriko tasen murrizketaren ikuspegitik–, izan ere, egoera horien murrizketa %31,5koa izan da 2012 urtean, eta %34,4 2014 urtean.

Termino absolutuetan, 2018 urtean pobrezia-egoerak utzitako pertsonen kopurua 20.310 izatetik 12.674 izatera pasatu da.

66. Taula. DBE-EPO/DSBL/GLL aurretiko eta ondorengo pobrezia larriaren bilakaera. Kaltetutako tasak eta zenbatekoa. Gipuzkoa 2012-2018

	2012		2014		2018	
	Tasa	N	Tasa	N	Tasa	N
DBE-EPO/DSBL/GLL aurretiko pobrezia larria	6,3	44.631	8,3	59.053	7,1	50.512
DBE-EPO/DSBL/GLL ondorengo pobrezia larria	4,3	30.589	5,4	38.743	5,3	37.838
Aldea	-2	-14.042	-2,9	-20.310	-1,8	-12.674
Murrizketa (%)	-%31,5	-%31,5	-%34,4	-%34,4	-%25,1	-%25,1

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

DBE/DSBL/GLL gizarte-transferentzien sisteman oinarritutako gure lurraldean lortu izandako murrizketa globala kontuan hartu ordez laguntza jasotzen duten pertsonak aintzat hartuz gero, lortutako emaitzek agerian uzten dute diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren laguntzak jasotzen dituzten pertsonen % 37k, transferentzia horien ondorioz, pobrezia larritik ateratzea lortzen duela. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak pobreziatik ateratzeko duen gaitasuna, urteekin gutxitzen joan dela dirudi; izan ere, 2012 urtean %50etik, 2014 urtean %47ra eta 2018 urtean %37ra pasa baita.

Bestetik, jasotako datuen arabera (ikus 67. Taula), pobrezia-egoera larria pairatu arren, 17.000 bat lagunek –biztanleriaren %2,5 dena eta prestazioa jasotzen duen ia biztanleria erdiaren baliokide dena– ez du DBErik eskuratzen. Hala ere, ezin da zehaztu biztanle horiek DBErik jaso ez izateko arrazoiak zeintzuk diren, hau da, baldintzak ez betetzeagatik edo bestelako arrazoiaren batengatik, adibidez, prestazioa eskatzeari borondatez uko egiteagatik. Portzentaje hori –biztanleriari dagokionez– nahiko egonkor mantendu izan da 2012. urteaz geroztik.

67. Taula. DBE-EPO/DSBL/GLL sistemaren eraginkortasunari buruzko zenbait adierazleen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2018

	2012			2014			2018		
	Eragindako biztanleria	Erreferentziako biztanleriaren araberrako %	Biztanleria osoaren araberrako %	Eragindako biztanleria	Erreferentziako biztanleriaren araberrako %	Biztanleria osoaren araberrako %	Eragindako biztanleria	Erreferentziako biztanleriaren araberrako %	Biztanleria osoaren araberrako %
DBE-EPO/DSBL/GLL jasotzaileak									
- Pobrezia larritik ateratzen dira	14.042	50,0	2,0	17.575	47,4	2,5	12.674	37,7	1,8
- Ez dira ateratzen pobrezia larritik	8.848	31,5	1,3	10.978	29,6	1,5	12.377	36,9	1,7
- Ez zeuden pobrezia-egoera larrian*	5.180	18,5	0,7	8.514	23,0	1,2	8.534	25,4	1,2
Guztizkoa	28.070	100,0	4,0	37.068	100,0	5,2	33.585	100,0	4,7
Pobrezia-egoera larrian eta ez dute jasotzen DBE-EPO/DSBL/GLL									
- Azken urtean DBE/DSBL/GLL eskatu dute	4.051	18,6	0,6	6.499	23,4	0,9	7.735	30,4	1,1
- Azken urtean ez dute eskatu DBE/DSBL/GLL	17.689	81,4	2,5	21.266	76,6	3,0	17.726	69,6	2,5
Guztizkoa	21.741	100,0	3,1	27.765	100,0	3,9	25.461	100,0	3,6

* Azken urtean zehar, aztertutako laguntza edo prestazioetako bat jaso izandako etxebizitzetako pertsonak dira, baina ez daudenak diru-sarrera baliokideen arabera pobrezia-egoera larrian. Horrek ez du esan nahi premia-egoerarik ez zutenik eta/edo prestazioak jasotzeko baldintzarik betetzen ez zutenik.

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

68. Taula. Diru-sarrera motaren arabera hilabeteko diru-sarrera garbien banaketa, pobrezia-mailaren arabera. Gipuzkoa 2018

	Diru-sarreraren kintilak					Pobrezia			Guztiz-koa
	Q1	Q2	Q3	Q4	Q5	Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa, ez larria	Pobrezia gabezia	
[1] Lana	54,6	57,6	67,6	75,2	68,5	53,6	55,2	67,9	67,0
[2] Higigarri eta higiezinen diru-sarrerak	2,6	5,0	3,8	4,2	10,6	2,0	2,6	6,7	6,4
DIRU SARRERA PROPIOAK	57,2	62,6	71,3	79,4	79,1	55,5	57,8	74,6	73,4
[3] Pentsioak	24,8	32,3	26,6	18,8	20,1	10,4	24,1	23,3	23,2
[4] Langabezia-prestazioak	2,1	1,2	0,5	0,6	0,1	4,3	2,0	0,5	0,6
GIZARTE SEGURANTZAKO DIRU SARRERAK	26,8	33,5	27,1	19,4	20,2	14,6	26,1	23,8	23,8
[5] DBE/DSBL/GLL	10,7	1,0	0,1	0,0	0,0	22,2	11,0	0,2	1,1
[6] Bestelako gizarte-laguntzak	2,5	1,5	1,0	1,0	0,3	3,0	2,2	0,9	1,0
GIZARTE LAGUNTZETAKO DIRU SARRERAK	13,3	2,5	1,1	1,0	0,3	25,2	13,2	1,1	2,1
[7] Familia- edo komunitate-sarearen laguntza	2,5	1,4	0,4	0,3	0,4	4,2	2,6	0,5	0,7
[8] Erakunde pribatuen laguntza	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,4	0,3	0,0	0,0
GIZARTEAREN BAITAKO TRANSFERENTZIAK	2,7	1,4	0,4	0,3	0,4	4,6	2,9	0,5	0,7
GUZTIZKOA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Biztanleria osoaren %	20,0	20,0	20,2	19,8	20,0	5,3	11,1	83,6	100,0

* Zerrendatutako mailak ondoko diru-sarreretako agregatuaren arabera osatu dira: [1] Ordainsari eta soldatak; aparteko ordainsariak; kaleratze-ordainsariak; autoenplegutik edo enpresa propioaren ustiapenetik datozen diru-sarrerak; ikastaroak, mintzaldiak edo tankerako jarduerengatik jasotako diru-sarrerak. [2] Jabetza-errentak; kapital higigarrien edo pentsio-funtsetatik edo antzekoetatik jasotako errentak; Ogasunaren itzulketak; eta loteriagatik edo beste sari batzuen bitartez jasotako diru-sarrerak. [3] Jubilazio-pentsioak eta gaixotasun-, alargun- edo ezintasun-prestazioak. [4] Langabeziagatik jasotako diru-sarrerak. [5] DBE, Etxebizitza Prestazio Osagarria, DSBL edo Gizarte Larrialdiko Laguntzen bitartez jasotako diru-sarrerak. [6] Familia-babeserako prestazio edo laguntzak, seme-alabak kargura izateagatik edo lan-bizimodua eta familia-bizitza kontziliatzeagatik; mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko laguntza edo ordainsari-etatik jasotako diru-sarrerak; ikasketa-bekak edo adingabeentzako laguntzak (jangela- eta haurtzaindegi-bekak barne); eta udaletako edo Aldundiaren bestelako gizarte-laguntza publikoak. [7] Senideek edo lagunek emandako laguntza ekonomikoak eta ezkontidearen edo gurasoren baten mantenu-pentsioaren bitartez jasotako diru-sarrerak. [8] Erakunde pribatuetatik jasotako laguntza ekonomikoak (Caritas, Gurutze Gorria, etab.)

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2018ko Inkesta.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eraginkortasuna, pobrezia murrizteari dagokionez, eta prestazio hori jaso behar duten pertsonen ehunekoa alde batera utzita, Gipuzkoako biztanleen diru-sarreraren egitura aztertzea komeni da, biztanleria hori errenta-kintilen bitartez banatuta, eta diru-sarreraren egitura horretan errenta-iturri desberdinek duten garrantzia desberdinduta.

68. Taulan ikus daitekeen bezala, lan-errentek euskal etxebizitzetako diru-iturri nagusia izaten jarraitzen dute, izan ere, etxebizitzetako guztizko diru-sarreraren %67 baitira. Haren atzetik, garrantziaren arabera, pentsioak daude, eta haien bitartez lortzen dira etxebizitza gipuzkoarren diru-sarreretatik %23,8. Enplegua eta pentsioak, elkartuta, Gipuzkoako familien errenten %90 dira. Gizarte-laguntzak ozta-ozta iristen dira errenta horren %2,1 izatera.

Diru-sarreraren egitura hori diru-sarreraren eskalan duten kokapenaren arabera, logikoki, aldatu egiten da. Lanaren bitarteko diru-sarrerak bereziki garrantzi nabarmena dute goiko kintiletan, eta, berariaz, laugarren kintilean, erdi mailako klasearen baliokide izango litzateke. Bosgarren kintilean, aitzitik, lanaren bitarteko diru-sarreraren garrantzia ahulagoa da, talde horretan higieziari buruzko diru-sarrerak duten garrantziagatik.

Aitzitik, talde ahulenen artean –lehen eta bigarren kintilak–, lan-errenten garrantzia apalagoa da, bereziki bigarren kintilean; eta handiagoa Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko diru-sarreraren pisua. Bestetik, gizarte-laguntzak lehen kintileko pertsonen diru-sarreraren %13,3ra iristen dira, eta pobrezia-egoera larrian dauden pertsonen diru-sarreraren %25 dira. Kasu horietan, hala ere, diru-iturri nagusia lan-arlotik dator: beste era batera

esanda, pobrezia-egoeran dauden pertsonen diru-sarreraren %53 soldaten diru-sarreraren bitartez lortzen dute, eta laguntza-prestazioen bitartez %25 soilik. Diru-sarreraren %14 Gizarte Segurantzako prestazioei dagokie, %4,2 familia-laguntza komunitarioei eta %2 diru-sarrera higigarri eta higiezinen bitartekoei.

2014 eta 2018 urteen artean, pobrezia larriko egoeran dauden familien artean, lan-errenten garrantzia hazi egin da –%24,8tik %56,6ra pasa da–, gizarte-laguntzena mantendu egin da, %25 inguruan, eta langabeziako laguntzen garrantzia oso nabarmen murriztu da, 2014 urtean diru-sarreraren %16,3 izatetik, 2018 urtean %4,3 izatera pasa dena.

I. ERANSKINA

Pobrezia, bazterketa eta gizarte desberdintasunen adierazle nagusiak Gipuzkoan

I. eranskina

Pobrezia, bazterketa eta gizarte desberdintasunen adierazle nagusiak Gipuzkoan

Hurrengo orrialdeotan, zehatz-mehatz ematen dira 2018ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestak (GPGBI) gure lurraldeko pobrezia, gizarte bazterketa eta desberdintasun egoerak neurtzeko erabili ditugun adierazle nagusietarako eskaintzen dizkigun emaitzak. Epigrafe hau hiru ataletan banaturik da, zeinetan biltzen baitira, guztira, 17 adierazle. Atal bakoitzean, ikuspuntu edo metodologia jakin batetan bil daitezkeen adierazleak biltzen dira –lehen bien kasua da– edo gai jakin batzuk lantzen dituztenak.

Hona hemen eranskin honetan bilduriko atalen zerrenda:

1. EU-SILC ikuspegia. Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasunaren Estatistikak – ingelesez: Statistics on Income and Living Conditions (EU-SILC)– 2004an jarri ziren abian (POGHE edo Europar Batasunaren Senitarteen Panelaren ordez) eta, gaur egun, Europar Batasunaren kide guztiak, gehi Islandia eta Norvegia biltzen dituzte. Eragiketa estatistiko horren helburu nagusia EBren estatu ki-deak pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borrokan egiten ari diren aurrerapenak ikuskatzea da. Metodologiaren ikuspegitik, estatistika hauek ematen dituzten datuak, batez ere pobrezia eta diru alderdiei eta alderdi materialei dira loturik. Ikuspuntu horretatik garatu da, adibidez, Pobrezia eta Gizarte Bazterketa jasateko arriskuaren europar adierazle deiturikoa (ARPE), pobrezia soilik diruzko arazoei begira kontuan hartzeko joerak gainditu eta ikuspegi osoagoa eskaini nahi duena.
2. FOESSA ikuspegia. Duela hamarkada batetik hona, FOESSA Fundazioa gizarte bazterketa egoerak neurtzeko sistema berezi bat garatzen ari da; burutu dituen lau inkestetan ikus daitekeena (2007, 2009, 2013 eta 2018an) eta horietatik, fenomeno horren hedapena eta intentsitatea neurtu dute. Hurbilpen modu horren onura nagusia da, hartzen dituen bazterketa adierazleek kontuan hartzen dituztela, diruzko arazoez eta alde materialez gain, bazterketan eragiten duten gainerako dimentsioak ere (osasuna, etxebizitza, parte hartzea), fenomeno hori dimentsioanitzeko eta prozesu gisa ikusiz –inkesta panel moduan baita–.

3. Gizarte desberdintasunen adierazleak. Pobrezia eta bazterketaren adierazleak fenomeno horien eragina eta intentsitatea neurtzeko zuzendurik dira; adierazle horiez gain, badira beste adierazleak ere –maiz kopilatsuagoak eta interpretatzen gaitzagoak– ikuspegi horren osatzeko, hala nola diren, adibidez, desberdintasunen adierazleak. Atal honetan, gehien baliatuak diren gizarte desberdintasunen adierazleetako bi ematen ditugu: Gini koefizientea eta S80/S20 indize edo erlazioa. Horrez gain, gizarte transferentzien eraginkortasunaren adierazlea ere baliatzen dugu, pobrezia larria murrizteari dagokionean.

Hautaturiko adierazleei dagozkien datuak fitxetan ematen ditugu eta haietako bakoitzean, honako elementu hauek zehazten dira.

- Adierazlearen definizioa: atal honetan, modu sinple batez jasotzen da hautaturiko adierazleen deskripzioa, kasu bakoitzerako adieraziz, zer den bakoitza, zehatz-mehatz.
- Gipuzkoa 2018ko datuak: hala datu erlatibotan nola absolututan ematen dira, Gipuzkoarako emaitza osoak, adierazle bakoitzerako.
- Oinarrizko gurutzaketak: batzuetan, senitarteei begira eta besteetan, senitarte horiek osatzen dituzten pertsonen begira aurkezten ditugu, adierazle bakoitzerako, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera sortzen diren emaitzak.
- Erkaketa: argigarri gisa ematen ditugu, beste herrialde edo lurraldetako datuak, Gipuzkoan lortu diren emaitzekin erkatzeko aukera eman nahiz.
- Bilakaera: hautaturiko adierazleen azken bilakaeretakako datuak eskaintzen ditugu, hala Gipuzkoaren kasuan nola beste herrialdeen kasuan ere.

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.1. Sarrera apalen tasa

Definizioa Sarrera apalen tasa, pobrezia arrisku gisa ere ezagun da eta adierazten digu zenbat pertsona bizi den, pertsonen kontsumo unitate bakoitzaren erdiko balioko errenta balioakidearen % 60 baino apalago den errenta garbi balioakide duten senitarteetan.

Erdiko balioak, norbanako guztiak, sarrera apalenetik goraka zerrendatuz, norbanakoen erdia balio horretatik behera eta beste erdia gora banatzen ditu.

Senitartearen errenta pertsonen errenta bihurtzeko, ELGaren balioakidetzeta eskala zuzendua erabiltzen da: senitarteko lehen pertsona helduari 1 ematen zaio balio eta gainerako pertsona helduei, 0,5 ; 14 urtez pekoiei, berriz, 0,3.

Gipuzkoa 2018ko datuak

	Pertsonak		Senitarteak	
	Tasa (%)	Ukituen kopurua	Tasa (%)	Ukituen kopurua
Sarrera apalak	16,4	117.157	16,3	48.024

Oinarrizko gurutzaketak

Sarrera apalen tasa eta ukituriko pertsonen kopurua, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera 2018

		Tasa (%)	Ukituriko pertsonak
Sexua	Gizonak	15,5	54.263
	Emakumeak	17,3	62.894
Senitarteko pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	15,2	82.132
	Emakumeak	20,2	35.025
Adina	<18 urte	23,0	28.656
	18-44 urte	17,4	39.237
	45-64 urte	14,3	29.542
	65 edo hortik gora urte	12,6	19.723
Nazionalitatea	Espainiakoa	10,9	68.897
	Atzerrikoa	58,8	48.260
Jaiolekua	EAE	10,9	58.922
	Estatua	16,5	15.909
	Atzerrian	55,2	42.326
Guztira	Guztira	16,4	117.157

Erkaketa

Biztanleria osoaren sarrera apalen tasa eta pobrezia atalasea

	Tasa (%)	Atalasea*
EB-28 2017¹	16,9	--
- Errumania (gehien)	23,6	137,1
- Txekiar Errep. (gutxien)	9,1	414,1
Espainia 2017²	21,6	710,2
EAE 2016³	16,4	858,0
Gipuzkoa 2018	16,4	920,0

Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC. European Union Statistics on Income and Living Conditions. (2) INE. Encuesta de Condiciones de Vida. (3) O.E.E. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta PGDI-2016.

*Atalasea: zifra horrek adierazten du pertsonen kontsumo unitate bakoitzaren hileko sarreraren erdiko balioaren %60. taulan ageri den zifrak erakusten digu pertsona bakarreko senitarte baten sarrera apalen edo pobrezia arriskuaren atalasea. Zifrak herrialde bakoitzeko eurotan emanak dira.

Bilakaera

Biztanleria osoaren sarrera apalen tasa

	2012	2014	2017/18	Bilakaera 2014-18 (%)
Gipuzkoa	16,8	15,6	16,4	▲ %5,1
EAE (2014-16)	15,4	18,5	16,4	▼ -%11,4
Espainia	20,8	22,2	21,6	▼ -%2,7
EB-28	16,8	17,2	16,9	▼ -%1,7

Sarrera apalen atalasea (pertsona heldu bakarreko etxea)

	2012	2014	2017/18	Bilakaera 2014-18 (%)
Gipuzkoa	842,5	852,4	920,0	▲ %7,9
EAE (2014-16)	828,7	811,9	858,0	▲ %5,7
Espainia	693,4	663,4	710,2	▲ %7,1

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.2. Pobrezia larriaren tasa

Definizioa Pobrezia larriaren tasak azaltzen digu zenbat pertsona bizi diren pertsonen kontsumo unitate bakoitzeko erdiko balioaren errenta balioarekin % 40tik beherako errenta garbia duten senitarteetan. Erdiko balioak, norbanako guztiak, sarrera apalenetik goraka zerrendatuz, norbanakoen erdia balio horretatik behera eta beste erdia gora banatzen ditu. Senitartearen errenta pertsonen errenta bihurtzeko, ELGAren balioak eskala zuzendua erabiltzen da: senitarteko lehen pertsona helduari 1 ematen zaio balio eta gainerako pertsona helduei, 0,5; 14 urtez pekoiei, berriz, 0,3.

Gipuzkoa 2018ko datuak

	Pertsonak		Senitarteak	
	Tasa (%)	Ukituen kopurua	Tasa (%)	Ukituen kopurua
Pobrezia larria	5,3	37.838	4,3	12.599

Oinarritzko gurutzaketak

Pobrezia larriaren tasa eta ukituriko pertsonen kopurua, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera

		Tasa (%)	Ukituriko pertsonak
Sexua	Gizonak	4,8	16.829
	Emakumeak	5,8	21.009
Senitarteko pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	4,8	25.901
	Emakumeak	6,9	11.937
Adina	<18 urte	10,8	13.412
	18-44 urte	5,5	12.414
	45-64 urte	4,3	8.969
	65 edo hortik gora urte	1,9	3.043
Nazionalitatea	Espainiakoa	2,7	17.017
	Atzerrikoa	25,4	20.821
Jaiolekua	EAE	2,8	14.867
	Estatua	5,2	5.012
	Atzerrian	23,4	17.960
Guztira	Guztira	5,3	37.838

Erkaketa

Biztanleria osoaren pobrezia larriaren tasa eta pobrezia larriaren atalasea

	Tasa (%)	Atalasea*
EB-28 2017¹	6,0	--
- Errumania (gehien)	12,1	91,4
- Finlandia (gutxien)	1,9	799,6
Espainia 2017²	10,5	473,4
EAE 2016³	4,9	572,0
Gipuzkoa 2018	5,3	613,3

Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC. European Union Statistics on Income and Living Conditions. (2) INE. Encuesta de Condiciones de Vida. (3) O.E.E. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta PGDI-2016.

*Atalasea: zifra horrek adierazten du pertsonen kontsumo unitate bakoitzaren hileko sarreraren erdiko balioaren %40. taulan ageri den zifrak erakusten digu pertsona bakarrek senitarte baten sarrera apalen edo pobrezia arriskuaren atalasea. Zifrak herrialde bakoitzeko eurotan emanak dira.

Bilakaera

Biztanleria osoaren pobrezia larriaren tasa

	2012	2014	2017/18	Bilakaera 2014-18 (%)
Gipuzkoa	4,3	5,4	5,3	▼ -%1,9
EAE (2014-16)	3,5	4,9	4,9	= %0,0
Espainia	9,6	10,6	10,5	▼ -%0,9
EB-28	5,7	6,3	6,0	▼ -%4,8

Pobrezia larriaren atalaseak (pertsona heldu bakarrek etxea)

	2012	2014	2017/18	Bilakaera 2014-18 (%)
Gipuzkoa	561,7	568,3	613,3	▲ +%7,9
EAE (2014-16)	552,4	541,3	572,0	▲ +%5,7
Espainia	462,3	442,3	473,4	▲ +%7,0

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.3. Eskasia material larriaren tasa

Definizioa

Adierazle honek biltzen ditu, diru arazoengatik, honako 9 itemetatik gutxienez lau eskura ez ditzaketela dioten senitarteetan bizi diren pertsonak:

- (1) diru arazoengatik, atzerapenak etxebizitzaren alokairua edo hipoteka ordaintzen edota etxebizitza nagusia mantentzeko gastuak ordaintzen (argia, gasa, etxe zerga, etab.);
- (2) etxea behar bezain bero mantentzea;
- (3) 800 euroko ustekabeko gastuari aurre egitea;
- (4) haragi, oilasko edo arrain janaldi bat (edo horien baliokide begetarianoak), gutxienez astean 3 aldiz;
- (5) urtean astebeteko opor bidaia ordaintzea;
- (6) autoa;
- (7) ikuzgailua;
- (8) koloreko telebista;
- (9) telefonoa (finko nahiz sakelakoa).

Gipuzkoa 2018ko datuak

	Pertsonak		Senitarteak	
	Tasa (%)	Ukituen kopurua	Tasa (%)	Ukituen kopurua
[1] Atzerapenak fakturretan	5,3	38.031	4,6	13.563
[2] Hozbero egokia	9,1	65.136	9,0	26.569
[3] ustekabeko gastuak	24,5	174.719	24,8	73.293
[4] Dieta egokia	2,6	18.211	2,1	6.214
[5] Urteko oporraldia	28,1	200.823	28,4	83.983
[6] Autoa	13,5	96.383	15,9	46.991
[7] Ikuzgailua	0,1	477	0,2	477
[8] Koloreko telebista	0,7	4.877	0,7	1.950
[9] Telefonoa (finko edo sakelakoa)	0,0	261	0,1	261
Eskasia material larria	6,9	49.110	6,4	18.911

Oinarrizko gurutzaketak

Biztanleen eskasia material larriaren tasa, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera

		Tasa (%)	Ukituriko pertsonak
Sexua	Gizonak	6,8	23.655
	Emakumeak	7,0	25.455
Senitarteko pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	6,0	32.683
	Emakumeak	9,5	16.428
Adina	<18 urte	10,6	13.259
	18-44 urte	8,2	18.579
	45-64 urte	6,3	13.048
	65 edo hortik gora urte	2,7	4.225
Nazionalitatea	Espainiakoa	3,6	22.596
	Atzerrikoa	32,3	26.514
Jaiolekua	EAE	3,5	19.008
	Estatua	5,3	5.097
	Atzerrian	32,6	25.005
Guztira	Guztira	6,9	49.110

Erkaketa

Biztanleen eskasia material larriaren tasa

	Tasa (%)
EB-28 2017 ¹	6,6
- Bulgaria (gehien)	30,0
- Suedia (gutxien)	1,1
Espainia 2017 ²	5,1
EAE 2016 ³	6,4
Gipuzkoa 2018	6,9

Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC. European Union Statistics on Income and Living Conditions. (2) INE. Encuesta de Condiciones de Vida. (3) O.E.E. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta PGDI-2016.

[Jarraitzen du]

[Jarraipena]

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.3. Eskasia material larriaren tasa

Bilakaera

Biztanleen eskasia material larriaren tasa

		2012	2014	2017/18	Bilakaera 2014-18
[1] Atzerapenak fakturretan	Gipuzkoa	5,9	4,5	5,3	▲
	Espainia	10,9	12,5	9,3	▼
	EB-28	11,6	12,6	9,1	▼
[2] Hozbero egokia	Gipuzkoa	6,1	8,4	9,1	▲
	Espainia	9,1	11,1	8,0	▼
	EB-28	10,8	10,3	7,8	▼
[3] ustekabeko gastuak	Gipuzkoa	21,7	24,2	24,5	▲
	Espainia	42,1	42,7	36,6	▼
	EB-28	40,4	39,0	33,8	▼
[4] Dieta egokia	Gipuzkoa	1,9	2,0	2,6	▲
	Espainia	2,6	3,3	3,7	▲
	EB-28	11,0	9,5	7,9	▼
[5] Urteko oporraldia	Gipuzkoa	34,4	29,8	28,1	▼
	Espainia	46,6	46,4	34,3	▼
	EB-28	39,7	36,9	30,0	▼
[6] Autoa	Gipuzkoa	12,7	12,9	13,5	=
	Espainia	5,7	6,0	4,6	▼
	EB-28	8,7	8,3	6,8	▼
[7] Ikuzgailua	Gipuzkoa	0,2	0,0	0,1	=
	Espainia	0,3	0,3	0,2	▼
	EB-28	1,2	1,1	1,0	▼
[8] Koloreko telebista	Gipuzkoa	0,4	0,3	0,7	▲
	Espainia	0,1	0,2	0,1	▼
	EB-28	0,4	0,4	0,3	▼
[9] Telefonoa (finko edo sakelakoa)	Gipuzkoa	0,2	0,0	0,0	=
	Espainia	0,6	0,3	0,2	▼
	EB-28	0,6	0,6	0,5	▼

Biztanleen eskasia material larriaren tasa

	2012	2014	2017/18	Bilakaera 2014-18 (%)
Gipuzkoa	5,2	5,2	6,9	▲ %32,7
EAE (2014-16)	5,8	5,2	6,4	▲ %23,1
Espainia	5,8	7,1	5,1	▼ -%28,2
EB-28	9,9	8,9	6,6	▼ -%25,8

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.4. Lan intentsitate apalaren tasa

Definizioa Adierazle horrek adierazten du, biztanleria osoaren portzentaietan, lan intentsitate apaleko senitarteetan bizi diren 0 eta 59 urte arteko pertsonen kopurua. Lan intentsitate apaleko senitartetzat hartzen dira bertako kide diren 18 eta 59 urte arteko pertsonak, egin lezaketen lan guztiaren % 20 baino gutxiago lan egin duten senitarteak (ez dira kontuan hartzen ikasle diren 18 -24 urte artekoak). Proporzio hori kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira, hala azken urtean lan eginiko hilabeteen kopurua nola eginiko lanaldi mota. Halatan, bada, urte osoan, lanaldi osoz lan egin duten bi pertsona helduko senitarte batetan, lan intentsitatea % 100 litzateke, eta urte osoan lan eginik ere, haie-tako bat lanaldi erdiz aritu bada, ordea, lan intentsitatea % 75ekoa litzateke.

Gipuzkoa 2018ko datuak

	Pertsonak		Senitarteak*	
	Tasa (%)	Ukituen kopurua	Tasa (%)	Ukituen kopurua
Lan intentsitate apala	5,7	40.375	4,4	12.934

*Adierazten du zenbat senitarte diren %20 baino gutxiagoko lan intentsitatea duen 18-59 urte arteko pertsona bat bederen dutenak.

Oinarrizko gurutzaketak

Lan intentsitate apaleko senitarteetan bizi diren 0-59 urte arteko pertsonen tasa, zenbait ezau-garri soziodemografikoren arabera

		Tasa (%)	Ukituriko pertsonak
Sexua	Gizonak	5,7	20.092
	Emakumeak	5,6	20.283
Senitarteko pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	4,7	25.584
	Emakumeak	8,5	14.791
Adina	<18 urte	8,3	10.332
	18-44 urte	7,4	16.668
	45-59 urte	6,5	13.375
	60 urte eta gehiago	0,0	--
Nazionalitatea	Espainiakoa	4,0	24.980
	Atzerrikoa	18,8	15.395
Jaiolekua	EAE	4,1	22.038
	Estatua	4,6	4.422
	Atzerrian	18,1	13.915
Guztira	Guztira	5,7	40.375

Erkaketa

